

ARGIA

JOXAN GOIKOETXEA

RAMON GAZTELUMENDI

«Kartzelako
errealitateaz gizarteak
duen ezagutza izpi
txiki bat baino ez da»

CUBILLO AFERA


Datu berriak ekar-
rituz gertatu zuten
Werner Mauss
agente alemanaren
atxiloketak

INGURUGIROA

Zabalgardi: Bizkaiko
errauskailuaren
egitasmoak
haserrea piztu du

PATZIKU PERURENA

«Sekulako beldurra
dago arbola
genealogikoan atzera
egiteko»



«GAZTETXOEK EZ DAKITE
PELLO-JOXEPE KANTATZEN»





Txantxuga Funtz Band
Hau dok umoria



Miren Aranburu
Etokizunaren emoria



Eltzegor
Herrialde Berdean



Ilusio Faltsuak
Iloixoten eta ikusten



Drindots
Made in plazan



Txirri, Mirri eta Txiribiton
1. Txirri, Mirri eta Txiribiton ilargira
2. Xaguxarroksi kontea



Kike Amonarriz
Txistek. Arpa jotzen



Gazteak eta sexualitatea
Gaiak.




Euskal historiaren 15 gertaera nagusi
Gaiak.



Ekonomia ulertzen hasteko
Gaiak.



Independentzia.
Alizia Stürze
Pelai Pagès i Blanch



Lamiak, sorginak eta jainkosak
Julio Caro Baroja




Nafarroa erdi aroan
Béatrice Leroy



Imanol Murua eta Humberto Unzueta
Suetena Bellfasten




Juan Luis Zabala
Galdu arte




Juanjo Olasagarre
Bizi puskak



Pablo Sastre
Itzalaren Ertzean



Zenbaki bizidunak
Didaktiker.



Euskal Gramatika osoa
Didaktiker.



Lau Behi
Lau behi.



Koldo Izagirre
Gure zinemaren historia petrala



Itxaro Borda
Amarezko pena baño



Txirri, Mirri eta Txiribiton
Gure abestiak

ARGIAREKIN arindu
OLENTZEROren
buruko mindak

* Hautetaz gain, GAIAK eta SUSA argitaletxeen, IZ disketearen eta DIDAKTIKER-en katalogoetako titulu ugari ditugu. Eskaiguzu zerrenda eta berehala eskuratuko duzue.

* Bidalketa gasturik gabe

ESKARIORRIA

Izenburua	Prezioa	Aleak	Guztira

Kobratu beharreko kopurua

Transfrentzia: Euskadiko Kutxa 3035 - 0036 - 19 - 0360030651 Ondorengo datuekin batera ingresoaren agiriaren kopia bidali behar da.

IZEN - DEITURAK

KALEA

ZBKIA.

SOLAIRUA

ESKUA

TFNOA

HERRIA

POSTA KODEA

HERRIALDEA

HARPIDETZA ZBKIA.

KONTUTIK

SINADURA

TITULARRAREN IZEN ABIZENAK

HARPIDETZA ZBKIA.

BANKU EDO AURREZKI KUTXA

SUKURTSAL HELBIDEA

KONTU KORRONTEA/LIBRETA

Entitatea


Sukurtsala

K.D.

Kontu zenbakia


SINADURA

- 6. Politika kronika. MIKEL JAUREGI.
- 8. Ramon Gaztelumendi: «Bilboko olatua uholde bilakatu eta Madril gainetik pasako du». MIKEL JAUREGI.
- 12. Kolonbian atxilotu dute ustez ekintzan eskuhartu zuen Mauss agente alemana. Antonio Cubilloren aurkako atentatua berriro ikergai. ORIOL CORTACANS.
- 16. Miseriazko soldaten truke 250 milioi haur ari dira lanean munduan. XABIER ARANBURU.
- 20. EKBren kanpainak herritarrak euskararen egoeraz kontzientziatzea zuen helburu. Bilbora, berea emateko. IDOIA TORREGARAI.
- 23. Paulo Freireren jarraitzaileetatik hasi eta Jean Piageten erudia hartu dutenengana. Pedagogi iturrien isuria euskal ikastetxeetan. IDOIA TORREGARAI eta ARANTXA ERASUN.
- 26. Herritarren mobilizazioak hasi dira Erandion: bertan koka liteke Zabalgardi erraustegia. DANIEL UDALAITZ.
- 29. Joxan Goikoetxea: «Haurrek folklorea ez dute ikasten, ez ikastolan eta ez kontserbatorioan». PELLO ZUBIRIA.
- 34. Kultura kronika. J.J. PETRIKORENA.
- 37. Patziku Perurena: «Sekulako beldurra dago arbola genealogikoan atzera egiteko». XABIER CARRILLO.
- 40. Euskerazaintzak 18 urte daramatza euskara batuaren nagusitasunari aurre eginez. ANDER USABIAGA.
- 42. Dantza eta antzerkiaren fundizioa. MYRIAM GARTZIA.
- 45. Argitalpenak. JON ABRIL.
- 48. Irrati-Telebista. ITZIAR CARRASCO.
- 52. Aukeran. GURUTZE IZAGIRRE.
- 56. Denborapasa.
- 58. Auzia otzandu. RAFAEL LARREINA





JOXAN GOIKOETXEA:

Musikarekin lotura akordeoiairen bitartez egin zuen, eta orain musika irakaslea da, musika jole eta ekoizle izateaz gain. Aztarna zigilu berriarekin estreinatu du oraintsu euskarri berria, CD-ROMa. Baina hurrengo lanean murgilduta ari da jada, Joanmari Beltranekin elkarlaneko bigarren diskoari ekingo baitio. /29



PATZIKU PERURENA:

«Errege-erreginak» deituriko liburua zabaldu digu begietara berez jaiotzez Goizuetakoa izanik leitzartzat jo dezakegun idazleak; bertan, Leitzako ahozko tradizioa jorratu du luze eta zabal, nagusiki paperean edo iruditan garatzen den egungo kulturaren bestaldean ezagutu duen errealitateari leihoa aldenik alde zabalduz./ 37




Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioa
Kultura eta Euskera Departamendua


Argitarapen honen edizioa laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:




BOST FILOSOFO HANDI

PLATON, DESCARTES, KANT, MARX,
WITTGENSTEIN




HILTZEAR DAUDEN KULTURAK



GIZATERIAREN ERAKETA

Richard E. Leakey



TUTANKAMON-EN HILOBIAREN AURKIKUNTZA

Howard Carter



KULTURAREN ENIGMAK

(Behiak, zerriak, gerrak eta sorginak)

Marvin Harris

GAIA

(LURRAREN BIZIAZ IKUSKERA
BERRIA)

James Lovelock



ELEMENTU PIKTORIKOEI EKARPENEA

(IZPIRITUALASNAZ ARTEAN)
(PUNTUA ETA LERROA PLANOAN)

Vasili Kandinsky



GAIK TESTUAK

EUSKARAREN ERABILERAN MURGILTZEN

(EUSKARAZ TREBATZEN ***)

Joseba Ezeiza / Ainhoa Ezeiza




GAIK TESTUAK

TESTUAREN HARIAN

EUSKAL ESALDIAREN
ESTILISTIKA (*)

Joseba Ezeiza



KULTURA ETA EUSKARA EGUBERRITAN ERE

GAIAK ARGITALDARIA

IRAKUR- LEAK MINTZO

Euskaldunon hizkuntz eskubideei erasorik ez!

IRAGAN berri dugun urrian, nik sartutako salaketa baten adierazpena helaraztera joan nintzen Donostiako Lehenengo Argipide Epaitegira. Bertako funtzionario baten aurrean euskaraz mintzatzeko hasi nintzenean, honek euskaraz deus ere ulertzen ez zuela-eta, momentu hartan itzultzailerik ez zegoela eta itxaron egin beharko nuela ihardetsi zidan.

Ordu t'erdia itxaron ostean agertu zitzaidan itzultzailea.

Nire adierazpenak helarazten hasi aurretik, hainbeste denbora itxaron behar izanagatik protesta formal bat egin nuen.

Azkenik, adierazpena euskaraz burutu nuen, baina funtzionarioak gaztelaraz jaso eta bide batez halaxe idatzi zuen.

Nik adierazitakoak euskara hutsean nahi nituela jakinarazi nion funtzionarioari, ordea, eta gaztelaraz egonda ez nuela onartuko, ezta inondik inora sinatuko ere.

Honen ondoren, itzultzaileari eta bioi idazkariarengana jotzeko esan zigun, euskaraz idaztea idazkariaren lana zela. Horrela izanik, berarengana jo genuen. Idazkariak euskaraz ez zekien oso jarrera petralean hartu gintuen, eta tamentez itzultzaileari bulegotik ateratzeko agindu zion. Beraz, idazkaria eta ni bakarrik gelditu genin.

Eztabaida bero baten ondoren, *nire adierazpena euskaraz jasotzeko eskubideari uko egin zion*, baina nik gaztelaraz zegoena ere ez nuen hartu ezta sinatu ere.

Gertakizun haiek zirela medio, nire salaketaren adierazpenik jaso gabe atera behar izan nuen Donostiako epaitegitik.

Honen guztiaren aurrean, euskaldun eta bide batez pertsona bezala dagozkidan eskubideak bortxatu egin zituztela ulertzen dut, eta gutun hau irakurtzen duten pertsona ororen aurrean salatzen dut.

Amaitu aurretik, administrazioaren alor edo sail guztietan, eta batez ere epaitegietan behinik behin, euskaraz mintzatzera eta gure hizkuntz eskubideak aldarrikatzera animatzen zaituztet guzti-guztiok.

Euskaldun ororen hizkuntz eskubideak errespetatu dituzten.

**MANU AROTZENA IRIBERRI (HERNANIKO EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ TALDEKOA)
HERNANI (GIPUZKOA)**

Okerrak zuzenduz

ABENDUAREN 1eko ARGIAN, 1.602 zenbakia zeraman aldizkarian, okerra egin genuen Gizartea Saileko «Gipuzkoa ur berriz bustia» izenburua zuen erreportaiaren 21. orrialdeko bigarren parrafoaren azken esaldiak zera zioen: «Horniketa mailan egiteko dagoen azpiegitura nagusia IBIUREko urtegia da, Baliarrainen aste honetan hasita eraikiko dena». «Aste honetan» ipini genuen lekuan Mikel Urruzola artikulua eragileak «datorren urtean» idatzia zuen.

ARGIA

HIRUKO

TXIKIAN

Merkamarxe

Ekonomi mota lokalagoan salerosgune soila, mundializazioaz, internazional harreman ekonomikoaren egituraketaz, ideologia bilakatu da. Merkatua. Jainko bakarra. Edozer justifikatzeko balio duena. Ebanjelio berria. Arrakasta ala frakasoa. Lurraren espekulazioan oinarritutako etxegintza hirigintza desorekatuaren euskarria dela? Zer nahi duzu, merkatua aztertu eta honen galderen arabera eginiko plana duzu. Musikagintzan, Espainiako Los del Rio-ren «Macarena» bezalako zarpail upela eredu bihurtzen dela? Merkatuak agintzen du. Eta honen aurka ez dago borrokatzerik, hortik at ez baitago alternatibarik. Hauteskunde kanpaina —merkatuak politikagintza hauteskunde kanpaina bihurtu du— gezurra erabili egin zenuela? Bai, baina hark bidea egin eta emaitzetan ni nagusi. Eta arrakasta denez edozein praktikaren estalkia, estalkirik gabeak frakasatuak dira, seguruenik inoiz lortuko ez duten arrakastaren atzetik ibiliko diren frakasatuak.

JOXE MARI OSTOLAZA

ARGIA

JABEA: ZERUKO ARGIA, S.A.L.

LEHENDAKARIA: Joxe Mari Irazusta.

ZUZENDARIA: Pello Zubiria.

Kontseilu Editorialeko

Arduraduna: Baleren Bakaikoa.

Erredakzioa: Xabier Aranburu, Arantxa Erasun, Mikel Jauregi, Juan Joxe Petrikorena, Arritxu Zelaia.

Maketazioa: Berdaitz Goia.

Dokumentazioa: Ernesto Ibarluzea, Ainhoa Gerra.

Administrazioa: Jasone Larrarte.

Harpidetzak: Olatz Korta, Elena Guinea, Maider Amenabar.

Hedapena: Isabel Bereziartua.

Publizitatea: Iñigo Txintxurreta, Nekane Zubeldia, Itziar Diaz de Durana, Miren Larrarte.

HELBIDEAK

GIPUZKOA: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia. 20160 Lasarte-Oria.

Tlf: 37 15 45. Faxa: 37 34 03/36 10 48.

BIZKAIA: Zabalburu 2, 1. ezkerre. 48003 Bilbo. Tlf: 410 34 34. Faxa: 410 37 15.

IPARRALDEA: Xalbardin baita. 64122

Urruña. Tlf: 59 47 60 00. Faxa: 59 47 60 01.

NAFARROA: Iratxeko Monastegia 70, 3. ezkerre. 31011 Iruñea.

Tlf: 17 80 78. Faxa: 17 80 77.

LEGE GORDAILUA: NA 80-1963.

ISSN: 0213-909X.

BATZORDE PAREKIDEA: 72562 E.

INPRIMATEGIA: Antza, S.A.L.

INFORMATIKA: A.S.P., S.A.L.

Lelo aurpegia jarriz

ASTEBURU luzea Hegoaldean iragan berri duguna, ostirala Espainiako Konstituzioaren eguna izaki. Gehienek jai. Batzuek ez. Tartean, asteburua Durangon egin zutenek, disko, liburu eta dena delako produktuak salduz. Beste zenbaitzuk, bezperan bezalaxe egin behar izan zuten lan, bere lanak beste erremediorik uzten ez ziola-eta. Eta gutxi batzuek, bere gogoz, lanerako bidea hartu zuten: esaterako, Gazteizko Alde Zaharreko dozena bat dendarik. 1978an Euskal Herriak espainiar Konstituzioari ezezkoa eman ziola-eta, beronen hemezortzigarren urtemugan jairik ez egitea erabaki zuten. Erakuslehoan erabakiaren berri ematen zuten txartela jarri eta lanera goiz-goizetik. Alferrikakoa? Testimoniala? Koherentea? Bakoitzak atera ditzala kontuak.

Kontuak kontu, Euskal Herriak erreferendumean ezezkoa emandako bi gai izan ditugu mintzagai aste gutxiren buruan: NATO eta espainiar Konstituzioa.

NATO-N sartu ala ez erabaki behar zen 1986an. Euskal Herriak uko egin zion bertan sartzeari, baina azkenean —beste hainbatetan bezala herri honen erabakiari jaramonik egin gabe— barrura. Zortzi urte lehenago, antzeko zerbait: Euskal Herriak ezetz Espainiako Konstituziori, baina azkenean irenstera. Eta isilik egon behar. Herri honen patua hori da antza: isilik egon eta lelo aurpegia jarri.

Bi emaitzon ondorioak parratzen jarraitzen dugu oraindik euskal herritarrok —Hegoaldekook kasu honetan—. Carta Magna delakoaren kasuan, hain sonatua den 2. artikulua bezalako 'altxorrak' topa genitzake: *«La Constitución se fundamenta en la*

indisoluble unidad de la nación española, patria común e indivisible de todos los españoles». Eta baten batek hori apurtzeko balentriarik balu, hor da 8. 'nazioa' Armadaz defendatzeko. Eta hau jasotzen duena onartu zutela ospatzeko egiten dugu jai 'espainolok' abenduaren 6an.

Edozein ideia eta planteamendu defendatu daitekeela errepikatzen digute gero, gainera. Defendatu bai, baina badakizue: *«Saiatuz gero, zuen bila goaz»*. Eta horren froga dira beste egitasmo txikiago batzuk mahairatzeagatik entzun behar izan ditugunak: EAE-Nafarroa arteko Lankidetzarako Batzorde Iraunkorra, euskal se-



lekzioa... Eta jakina, Iparraldeaz ezta hitzik. Nola bada, Frantzia da hura-eta?

BADIRA hiru bat aste NATOko egitura militarrean erabat integratzea 'lortu' dugula. Herri honek, askatasun osoz, erabakiak hartzeko duen ahalmenaren beste froga bat. Madrilen gure ordezkariarik bazegoen, baina dirudienez urteen poderioz —buruko desgasteak jota-edo— oromena galdu dute, eta baiezkoa eman zuten. Herriaren ordezkari izatea zer den defini diezadate, berehala.

MIKEL JAUREGI

DIPUTATU ANGULAZALEENA

TRISTURA udazkenak zuhaitzei hostoak eramatearekin gizaki askori dakarkion jeneroa izan ohi da. Galdutako batailak bat depresioraino darama, horko hori etsipenera, asko eszeptizismora, pila bat amnesiara, eta bakar batzuk haserretu eta beste batailetara. Audiencia Nacionala —ez iezadak hemen Entzutegi Nazionala ipini, jode!— Espainiara parlamentarismoarekin bateratsu iritsi zen: Tribunal de Orden Publico frankistaren suzedaneo berriari aurrean ipinitako kritika eta oposizio guztiak aspaldi itzali ziren.

Nor oroitzen da pentsamendu bakarraren eta historiaren amaieraren aurreko eztabaida haietaz? Eta orain —otsoa beren kastako batengana pittin bat hurbildu denean— horra non eztabaidatu nahi duten tortura eta desmasia guztiak baimendu dituen epaitegi bereziaren akabera. Kontsentsu lotsagarri batez dena disimulatu duen Parlamentuan. Lerdearekin Irango kabiarraren eta Aginagako angulen apurrik darizkiela. Behin honetara iritsita, utz ezazue dagoen bezala. Total, ikusi ditugunak ikusita...

PELLO ZUBIRIA

BITTOR AIERDIREN TARTEA

BAKEGINTZAN AURRERA EGITEKO KLABEAK?



Iparraldetik ikasi

EUSKAL gatazkak blokeo-puntu ugari ditu: presoen egoera, bahiketak, Nafarroa eta EAeren arteko harremanak... Horren aurrean galdera hau da: nola lagundu blokeotik iristen, blokeo-punturen batean besterik ez bada ere? Ziurraski, aurrera egiteko erreferentzia eta erduetako bat oso gertu daukagu, Iparraldean: desblokeoan, batetik, eta adiskidetzan oinarritutako etorkizuna eraikitzen, bestetik.

Zarata handiegirik atera gabe, Iparraldea etorkizunaren plangintza, partaidetza eta erabaki demokratikoaren prozesu eredugarria betetzen ari da. Gizarte zibiletik sortutako ekimen bati esker, lurralde eta instituzio mailako konfigurazio berriaren inguruan borondate eta interes desberdinak batzea

lortzen ari da. Hegoaldean dena polarizazio, konfrontazio eta deskalifikaziorako aitzaki den bitartean, Iparraldekoak blokeo-egoeretatik irteko lana nola egin behar den erakusten ari zaizkigu.

Zer egin dezakegu Hegoaldean gatazka-egoera desarmatu eta baretzeko? Burura datorren lehenengoa hau da: Gobernuari eta ETari, bakoitzari bere aldetik, bidezko irtenbideak lortzeko borondate politikoa azal dezaten, gatazkaren ondorio mingarrienak leuntzen lagunduko duten ekintza zehatzen bitartez, esate baterako dispersioari eta bahiketei amaiera emanez. Baina hori ez da aski.

Horrez gain, asko egin dezakegu, besteak beste: ikuspuntua edo paradigma aldatu, alegia, «zer aporta dezake gutako bakoitzak Euskal Herrian bidezko bakea lortzeko?» eta ondorio guztiekin jokatu; bake-prozesua martxan egongo balitz bezala funtzionatzen hasi, momentu magikorik inoiz iritsiko ez delako; arazo zaharrentzat irtenbide berri-

tzaileak bilatu; egungo status juridiko-politikoaren berrikuspen demokratiko eta mugari gabekoari ekin; «nik galdu egingo dut, baina zuk ere bai» dinamikatik («sufriendua banatzeko estrategia» gisa ere ezagutzen dena), «zuk eta nik, biok irabazten dugu» dinamikara pasa; Euskal Herrian gaur biolentziaren erabilgarritasunaren eta ekimen politiko ez-biolentoetan oinarritutako alternatiba zehatzen inguruan eztabaidan sakondu; akordio politiko zehatzetatik hasi, Nafarroa eta EAeren arteko harremanetan, presoen inguruan, esate baterako.

Eta beste gauza bat: hau dena demokratikoki mugitzeko, eta zubiak eraikitzeko prest dauden sektore eta pertsonen arteko lankidetzua estua uztartu, immobilismo, polarizazio eta tentsionamendu estrategia tinkoen aurrean, itzullbide-aukerarik gabeko eszenategi berrietan kokatuko gaituzten ekimen bultzatzaile eta askatzaileen inguruan bereziki. Iparraldean egiten ari direnaren antzeko zerbait, alegia.

Jaime Mayor Oreja Espainiako Barne ministroa Jose Maria Setien Donostiako gotzainari buruz mintzatu da: «Setiienen hitzak batzuetan oso desegokiak dira, baina gotzainak bakea nahi du Euskal Herrian». Ondokoa esan du Madrilgo Kongresuan EAjko ordezkaria den **Iñaki Anasagastik** hilaren 15erako Getxon HBk deitu duen manifestazioari buruz: «Duela 20 bat urteko deialdi bat dirudi, transizio politikoa hastekotan zenezkoa, Franco hil berria zenezkoa eta Estatututik ez zegoenezkoa».

Juan Mari Ollora ere baketzeaz aritu da: «Honelako gatazka baten funtsa hau da: zein da erabaki eremu subiranoa? Hori da gakoa. Ajuria Eneko Itunak ez du konpondu».

Bestalde, **Fernando Buesa** Arabako PSE-EEren idazkariak EAeko hiruko Gobernuari buruz eta honen aurrean PPK duen jarreari buruz hitz egin du: «PPren estrategia bakarra Euskadin ondoko hau da: Eusko Jaurlaritzan sozialisten lekuan nola sar daitkeen ikustea». Ostera, **Jose Julian Irizar** EAren Gipuzkoako

lehendakariak adierazi duenez, «Al-darrikapen nazionalista guztiak Estatutuaren eremuan kokatzeko eskatzea akatsa da. Estatutuaren bideari bakarrik eutsiz, zaila da alderdien arteko akordioak gauzatzea».

Bere alderdiaz solastu du PSNren Gestorako lehendakaria den **Victor**

Manuel Arbeloak: «PSNk, agian, bostere gehiegi izan zuen». Azkenik, **Joseba Egibar** EAjren EBBko bozeramailearen aburuz, «dena delakoa izanda ere, ez dut uste inoiz konstituzio espainiar bat bozkatuko genukeenik, bere baitan autodeterminazio eskubidea jaso arren».



Ramon Gaztelumendi, Senideak elkarteko bozeramailea

«Bilboko olatua uholde bilakatu eta Madril gaineretik pasako du»

Senideak sortu zenetik, 1992az geroztik, dihardu lanean euskal presoek eskubideen alde. Naturaren eta mendiaren zaletu amorratua, errenteriarra ez dago isiltzeko prest. «Uholdearen beharra» azpimarratu du, uholdea presoak Euskal Herrira ekartzeko.

50.000 lagun Bilbon Senideak-en eta Gureak-en deialdiari jarraiki. Euskal presoek egoeraren konponketa al da, uneotan, euskal gizartea gebien erakartzen duen aldarrikapena?


Zalantzarik ez. Euskal Herriko sindikalgingintzaren gehiengoak euskal presoek Euskal Herritarzearen aldeko lanean dihardu, euskal elkarte politiko piloaren atxikimenduak hor daude, Maroñoko taldeek eta mugimendu sozialek ere aldarrikapen bera egiten dute, 120 udaletxe horren alde agertu dira eta zenbait kasutan —Donostia, Zarautz, Billabona, Zestoa, Zizurkil— dinamika propio bat lantzen ari dira, Gasteizko Legebiltzarrean hartutako akordioa hor dago... Beraz, euskal gizartea euskal preso guztiak Euskal Herrira ekar-

tzearen aldekoa dela esatea nabaria den zerbait baieztatzea baino ez da.

Beraz, euskal gizartea arazo honekiko erabat kontzientziatua dagoela esan al daiteke?

Bai, baina oraindik asko dugu egiteko. Zergatik? Trabak izugarriak izan direlako urtetan. Zentzu horretan, komunikabideen jarrera eta funtzioa nabarmendu izan dugu oso zorrotz. Komunikabideek errealitate bat isildu egin dute urte hauetan guztietan, eta informazioa desitxuratu. Horrek zerbait ekarri badu izan da gizartearen ez-jakintasuna.

Ordea, azken urtebetean gure informazio lanaren fruituak jasotzen ari gara, lan horrek sortu baitu errealitate horren ezagutza euskal gizartean. Baina ezagutza hori izpi txiki bat baino ez da, asko dago ezagutzeke kar-



«Presoen egoeraren kontzientziazioak jarrera bat ekarri behar du berarekin, aktiboa eta berehalakoa». (Arg.: G. Garaialde).

tzelako errealitateaz. Hala ere, izpi txiki honek jada sortu du erreakzio bat, sakanaketa-politika bidegabearen aurkako erreakzioa.

Zer egin daiteke kartzeletako errealitatea ezagutarazteko?

Kontzientziazioak sektore eta alor guztietara iritsi be-


har du, eta kontzientziario horrek jarrera aldaketa eragin: politikarien artean, komunikabideetan —presoe-kin hitz egin behar dute eta hauek bizitutakoa gizarteari helarazi—, elizan —inplikazioa falta da—... Baina, batik bat, lana kaleko jendeari begira egin behar dugu.

Inplikazio falta askotan aipatu izan duzue. Inplikazioa areagotzeko formalarik baduzue?

Inplikazioa ezinbestekoa da. Adibidez, Gasteizko Legebiltzarrean lortutako akordioa kalean bideratuko dela pentsatzen dut. Akordio hori oso garrantzitsua da, eta praktikara eramane beharra dago. Baina ez etzi edo datorren urtean, gaur baizik. Kontzientziario horrek jarrera bat ekarri behar du berarekin, jarrera aktiboa eta berehalakoa. Berehalakoa zergatik? Gose-greba, jipoiak, isolamendua... Hor dituzu arrazoiak. Erakunde horien jarrera ez dator bat espetxeetako jarrera dramatikoarekin.

Orain urtebete ARGIAk Juan Antonio Madariaga «Madari»ri egindako elkarrizketan zera esan zigu: «Presoen helburu bakarra iraunbizitzea da». Gaur egun, zein da presoen animoa?

Pentsa ezazu. Datu objektiboak begiratzea besterik ez dago: sakabanaketa-politika hasi zenetik 350 jipoi inguru, etengabeko trasladoak... Politika honek helburu batzuk zituen, eta nagusientakoa presoak oreka galtzea zen. Adibidez, hor dago



«Kartzeletako errealitatearen ezagutza izpi txiki bat baino ez da, asko dago ezagutzeke». (A.: G. G.)

Olaizolaren kasua: 19 urtez alde batetik bestera eta oraindik zutik dirau, bururik galde gabe. Eta berak bezala beste askok. Espetxea ezagutu egin behar da zer den jakiteko. Guk, senitarteko bezala, zerbait ezagutzen dugu, baina hura bizi dutenak presoak dira. Hori dela eta, presoei entzun egin behar zaie, nahiz eta askotan euren hitzek oilo-azala jarri. **Gaur egun sekula baino gehiago hitz egiten ari da euskal presoen egoeraz eta espetxe-politikaz: bai alderdi politikoetatik, bai mugimendu soziale-tatik, bai erakunde mailan... Zer gertatu da hori borrela izateko?**

Nazioarteko presioa oso garrantzitsua izan da. Espetxeetako Nazioarteko Era-

kundea edo APT bezalako giza-eskubideen aldeko erakundeak Estatu espainiarrera etorri, presoe-kin zuzeneko bisitak egin, zer gertatzen ari den ikusi eta ondoren beraien txostene-tan Estatu espainiarra salatzeari oso erabakigarria izan da jarrera aldaketa horietan. Hala ere, euskal gizartearen presioa da garrantzitsua: udaletxeetan egindakoa, udal batzarraldietan, hitzaldietan, mobilizazioak, konzentrazioak, politikariak salatzea... Horrek guztiak ekarri ditu fruituak; horrek guztiak bota ditu atzerantz alderdi politikoak, talde bakezaleak deitutako horiek, zenbait erakunde...

Hauek ohartu egin dira euskal gizarteak, egunetik egunera, ezagutza handiagoa duela presoen egoeraz, ezagutza horrek elkartasuna dakarrela, eta borrokaldi hori galtzen ari direla. Orain arte posible izan dute «presoe-kin guztiak balio du» po-

litika gauzatzea; orain, ordea, gizarteak aurre egin dio horri. Beraz, aldaketa badago, baina ez atzo ez zuten borondatea gaur badaukatelako; euskal gizartearen heldutasunarengatik eta Bilbon ikusi zen olatuaren presioarengatik baino.

Hemengo erakundeetan, mugimendu sozialetan eta alderdi politikoetan izan den aldaketa aipatu duzue. Madril eta Paris, ordea, urrun geratzen dira. Bi gobernuok egun azaltzen duten jarrera nola alda daiteke?

Aurretik esan nahi dut hemengo zenbait erakundek edo alderdik azaldutakoa ez dela borondate aldaketa, ezta gutxiagorik ere, keinu bat baino. Keinua hori txalogarria denik ez dut ukatuko, jakina. Baina euskal gizarte osatzen duten osagai guztiek sortu dute egungo giroa. Eta gogoan izan behar da Gasteizko Legebiltzarrean onartutakoa legeak dioena

«Amnistiarena ahazturik? Ez; gure helburua senitartekoak etxean egotea da, baina bizirik eta betirako»

besterik ez dela. Benetako borondatea azalduko lukete baldin eta paperean onartutakoa praktikara eramango balute. Adibidez, gai hau Europara eramanez. Hori egingo balute, lehenengo txaloak gureak.


Madril urrun dagoela? Noski, baina Madril Euskal Herrian ere badago. Egin beharreko lan guztia hemen egin behar dugu. Oreak eta elkartasun maila handia lortzen dugunean, eta bide horretan gara, Madrilek ezingo du mantendu sufrikario hau. Egia da beste gai batzuetan Euskal Herriko borondatea agerian utzi izan dela eta Madrilek ukatu egin izan duela eta egiten duela. Presoekin ere jarrera itxi hori mantentzen baldin badu zer gertatuko den? Edozer gauza. Argi dagoena da ez ginatekeela ezer gertatu izan ez balitz bezala geratuko.

Gasteizko Legebiltzarreko akordioa Madril presionatzeko tresna baliagarria izan al daiteke?

Legebiltzarrak, hitzartu duena betetzeaz gain, euskal herritar gehienek eskatzen dutena ere bermatu egin behar du: euskal preso guztiak Euskal Herrira. Beraz, gestio eta ekinbide guztiak ildo horretan jorratu behar dituzte.

Akordio hori sinatu duten lau alderdietatik, ordea, batek baino ez du Euskal Herriratzea defenditzen.

Hori da borondate aldaketarik ez ikustearen beste arrazoi bat. Gerturatzeaz hitz egiten dute, ez-legezkoa den beste neurri batetaz. Presoak Teruelen, Sorian edo Burgosen egongo dira, baina ez Euskal Herrian: ez dira egongo euren berezko giroan, ez senitartekoen al-



«Zebait erakundek edo alderdik azaldukoak ez da borondate aldaketa, keinu bat baino». (Argazkia: Garikotz Garaialde).

boan, ez euskal kulturaren edo lurralde honetan sustairurik, ez euskararen egunerokotasunean murgildurik... Arrazoi teknikoak direla medio egiten dituztela horrelako apustuak esaten dute gero: lekurik ez dagoelako... ELAK eta LABek osatu txostenaren arabera, ordea, orain bertan 400 presorentzako lekua dago hemengo karteletan.

Legebiltzarrak Euskal Herri guztiarekin bat egin beharko luke, baina 30eko mobilizaziora ere ez ziren azaldu alderdi eta ardura-

dun politiko horiek. Aitzakiak jartzen dituzte horrelakoetan. Hala, borondateaz gain, zintzotasuna, nortasuna eta beldurrak alde batera uztea ezinbestekoa dela deritzogu. Izan ere, beldurrik ere bada. Badirudi presoen eskubideak defenditzeagatik ETaren alde zaudela. Horixe saldu dute beraien. Kontua da orain arte erabili dituzten trikimailuak eta argudioak behera datozela. Euskal gizarteak ez da leloa, badaki zer dagoen.

97ari begira jarrita, zer gertatuko da euskal pre-

«Justizian oinarritu akordiora heltzeko elkarrizketa behar da, eta gero eskubide guztien defentsarako borondatea agertu»

soekin? Zein panorama ageri zaigu?

Orain gauzak dauden bezala, beltza. Presoak gose greban daude, eta akaso datorren urtean ere jarraituko dute. Eta horrek ordainetan kostu handiak ekarriko ditu. Gainera, dagozkien eskubideak lortzearren presoak gose greban sartu behar izatea porrota da euskal gizartearentzat. Itxaropena ematen digun gauza bakarra da azkenaldion gizartearen aurreraketa. Elkartasunetik inplikaziora igaro da. Presoekin eskubideak lortzeko borrokan akuilua izango dena euskal gizarteak dela argi dago. Eta zera azpimarratu nahi dut: Bilbokoa olatu ikaragarria izan zen, baina osatzen ari den uholdeak sakabanaketa politika egin, bultzatu eta mantentzearen alde dauden guztiak gaineratik pasako ditu; Madril gaineratik pasako du. Ea lehen bait lehen osatzen dugun.

PPk euskal presoen kolektiboak izendatutako zazpi arduradunekin hitz egiteak zertan lagunduko luke?

Elkarrizketaren bitartez konpondu ohi dira arazoak. Beraz, PPK lehen bait lehen hitz egin behar du arduradun horiekin. Eta Gasteizko eta Nafarroako legebiltzarrek ere eskatu behar diote Madrili presoekin hitz egiteko, Gasteizen onartutako zazpi puntu horiek ez baitira gai honen sapaia.

Presoen egoera konponetzeak bakegintzan eragin positiborik izan dezakeela adierazi duen politikaririk ere bada. Zuk zeuk zer irizten diozu baieztapen horri?

Euskal gizarteak behar duen adiskidetzeari lagundu egin-

go luke. Maila handi batean egun bizi dugun tentsioa baretu egingo luke. Izan ere, preso bat jipoitzen dutenean bere larrutan jasango balu bezala sentitzen du gizarteko sektore garrantzitsu batek, eta horrek nolabaiteko erreakzioak dakartza ondoren. Hori amaituz gero, gauzak asko lasaituko lirarteke.

Bakegintzari dagokionez, orain arte egin ez den zer egin daiteke?

Dena dago egiteke. Justizian oinarritutako egoera edo akordio batera iristeko el-karrizketatu egin behar da. Eta gero eskubide guztien defentsarako borondatea agertu. Eta ez dut jerarkizatuko. Euskal Herria da etorkizunaren jabe, eta hori ukatzen zaigun heinean asko egongo da egiteke.

**Euskal presoek beraiek nola bizi dute gatazka-
ren konponbiderako arastorik ez ikuste?**

Galdera hori oso interesgarria da, baina presoek beraiek galdetzea hobe. Komunikabideek espesetara jotzeko ohitura hartu behar duzue, eta presoek beraiek galdetzearena. Eta espesetako zuzendariak sartzen uzten ez badizue, salatu egoera hori. **«Euskal presoak Euskal Herrira» leloa darabil gizarteko sektore zabal**

T A N T O A

«Ni, lorezaina»

BERE herriaren oraina eta etorkizuna sentitzen ditu. Bere larruazalean sentitzen du, modu sutsuan bizi du. Dramatizatorik gabeko bizi-pena, bizi-indarrez betetako bizipena. Bere eguneroko lanean igortzen duen bizitasuna, bere inguruko defentsan, bere inguru gertukoenean.

Bizitasun erradikala arazoan muinera jotzen duelako; erradikala egia aurretik duela ibiltzen delako; erradikala egia hori ez delako baliorik gabeko burutazioen ondorio, errealtate lagarriaren testigantza baino; erradikala sufrimendurekin jokatzeko ez duelako.


Bizitasun iraunkorra etsipenezko egoerak gainditzeko dituelako, badakielako etorkizuna amore ematen ez dutenena dela.

Bizitasun anonimoa; modu anonimoz, kostu eta alboratu beharreko gauza askorekin eta ordainetan inolako esker onik espero gabe, herri honen historia milaka pertsonak idazten dutela badakielako, egunero herri hau eraikitzen ari diren milaka pertsona.

Elkartasunezko bizitasuna, horrek zer esan nahi duen jakinik justuak diren auzi guztietan inplikatzeko delako.

Gizatasunezko bizitasuna, larruazaletik xurgatzen dituelako bere inguruko errealtate pertsonal guztiak, eta errealtate horietan murgiltzeko delako.

Erabateko bizitasuna, biziaren aldeko apustu hori sendian, lagunengan, kuadrilan, herrian, egunerokotasunean islatzeko delako.



Juan Antonio Madariaga «Madari» Senideak elkarteko bozeramailea

Ez da harrizkoa itota ikuste: milaka kilometro bizkar gainean, hamaika el-karrizketa, korridoreak alde batetik bestera gurutzatuz; baina beti hitz maitakorren bat ezpainetan duela, albo-koentzako keinu beroren batekin, azken txistarekin edo bertso biziren batekin.

Senitarteko guztiei buruz ari naiz. Eta Ramon? Berak zera esango liguke: «Ni lorezaina naiz».

batek uneotan. Amnistiarena abazturik?

Ez da euskal gizartearen sektore zabal baten aldarrikapena, legeak dioena baizik. Amnistiarena ahazturik? Ezta gutxiagorik ere. Gure helburua senitartekoak etxean egotea da, baina bi-

zirik eta betirako. Alegia, ez dugu nahi gaur etxean izan eta bihar berriro preso mordoa egotea. Euskal Herriratzeko amnistiaren bidean pauso garrantzitsua da. Eta gogoratu presoak gose greban badaude ez daudela soilik dagozkien eskubi-

deak aldarrikatzeko, baizik eta beraien izaera politikoa onar diezaieten. Eta preso politikoa direnez, bake prozesuan partehartzaile zuzenak izan behar dute; asko eman dezakete.


MIKEL JAUREGI

Asma ezazu berehalaxe zertan gelditu den gizon hau atzean

Jakina. Oraindik ere betaurreko zaharkituak erabiltzen ari da. Oraindik ere ez da konturatu MULTIOPTICASen Indo Lente Progresiboak egokitzen dituztela. Hoberenak, azkenak, distantzia guztietara bikain ikusteko modukoak. Orain badakizu, zatorz MULTIOPTICASera eta izan zaitez egunean.



MultiOpticas mailegu txartelarekin, ordainketa atzeratua.



**INDO LENTE
PROGRESIBO BERRIAK,
MULTIOPTICASen**


**ZINKUNEGI
MULTIOPTICAS
ZERBITZU OPTIKOETAN 1a**

Hernani, 4 - DONOSTI

Kolonbian atxilotu berria dute ustez ekintzan eskuhartu zuen Werner Mauss

Aljerrera Cubillo hiltzera bidali zuten agente alemana

Hamazortzi urte badira bi ezezagunek Antonio Cubillo larriki zauritu zutela Aljerren; atentatu haren inguruko xehetasunik eman lezakeen agente sekretua, Werner Mauss, atxilotu berria du Kolonbiako poliziak.



Martin Villa eta Antonio Cubillo epai aretoan. (Argazkia: «El Temps» aldizkarikoa).

RODOLFO Martin Villak badu kezkatu ibiltzeko motiborik, Antonio Cubilloaren aurkako atentatuaren inguruan azterna berri eta garrantzizkorik bada eta: atxilotu berria dute Kolonbian Werner Mauss, Alemaniako zerbitzu sekretuko agentea. Cubilloaren abokatuak eskatua dio kasu honetaz arduratzen den epaileari, Carlos

Divar-i, ordezkariarik bidal dezan Kolonbiara Mauss itauntzera. Agente alemanaren testigantza erabakigarria izan liteke UCD alderdia agintean zen garaiko 'gera zikina'ren nondik-norakoak argitzeko.

Aljerren hasi zen 'Cubillo

afera', 1978an. MPAIAC (Kanariar Irletako Autodeterminazio eta Independentziaren Aldeko Mugimendua) erakundearen burua zen sasoi hartan Antonio Cubillo, Aljerian erbestertua bizi zena. Kanarietako mugimendu abertzalea oso

sendoa ez zen arren, Espainiako Gobernuak ahalik eta azkarren amatazea erabaki bide zuen, froga eta itxura guztien arabera. 1978ko apirilaren 5ean atentatu egin zioten Cubillori bi mertzenariok. Larriki zauritu zuten, labanez, baina bizirik

suertatu zen MPAIAC era-kundeko burua. Ordu ezkeroztik hainbat aldiz jo izan du Cubillok auzitegiatara, baina sekula ez du lortu Espainiako Gobernu edota sasoi hartako Gobernazio (Barne) Ministroa, Martin Villa, kondenatzerik.

Radio Canarias Libreren saioak

CUBILLO 1977.aren amaiera ezkeroztik bizi zen erbestean, Aljerren, eta bertatik zabaltzen zituen bere irrati mezuak. «Radio Canarias Libre» emisoratik gauero aldarrikatzen zuen «*Kanariar Irlen afrikartasuna, Errepublikako Guantxe Demokratiko eta Sozialista*» erakitzeko premia. Berak asmatutakoa da *godo* goitze-na, Kanarietan bizi ziren espainiarrei eransten zitzaizen deitura, oraindik ere entzun litekeena. Cubilloren mugimenduak, MPAIACek, ez zuen inoiz sustrai sendorik lortu, 1964a ezkeroztik ekinean aritu arren. Hala eta guztiz, gaueroko irrati saio haiek ez ziren Madrilgo agintarien gustokoak. Are gutxiago Antonio Cubilloren joan-etorriak.

Izan ere, 1978ko otsailean Afrikar Batasunerako Erakundearen biltzarrean parte hartu zuen buruzagi independentistak. Urduri ziren Espainiako agintariak, Euskal Herria, Katalunia eta Galiziako mugimendu abertzaleez gain Kanariar Irlan ere antzekorik sortzeko arriskurik sumatzen baitzuten. Eta nazioarteko erakundeek (OUAk bereziki) Cubillori babesa ematea ez zen, inondik ere, seinale ona. Kanariar Irlak 'Europako kolonia' zirentz eztabaidatu zuten Afrikar Batasunerako Erakundearen

Werner Mauss, Alemaniako 007 diruzalea

ZALDIAK hazi eta saltzea izan zen Werner Maussen lehenbiziko bizibidea 60ko hamarkadan. Baina bazuen beste ofizio bat: ikertzaile pribatua, detektibea. Adulterioak ikertzen zituen bereziki eta makina bat senar edo emazte atzeman zuen beste emagizakumerekin batekin maitasun jolasetan. Zeregin horrek jarri zuen polizia-rekin eta Alemaniako zerbitzu sekretuarekin harremanetan. Batak zein besteak legez kanpoko zenbait ikerlan egiteko kontratatu ohi zuten.

Espainian 1970ean

agertu zen lehenbizikoz. Bi polizia hiltzaile aurkitzeko agindua eman zioten Alemaniako nagusiek. Berehala aurkitu ere. Lagunik egin zuen Espainiako polizian eta autoa (baita txoferra ere) jarri zizkioten bere eskura. Lagun horiek guztiz baliagarriak izan zitzaizkien beranduago, 1978 aldera. Dirua, bestalde, gogotik irabazi izan du Werner Mausek. Badu etxe bat Panaman, beste bi Frankfurturten, eta zoologiko pribatua Alemaniako herriska batean. Panamako hiritartasuna ere lortu zuen,

dirua 'zuritzeko' asmotan seguruenik.

Antonio Cubilloren aurkako atentatuaz gain beste zenbait ekintza ere leporatu izan dizkiote Maussi. Alemaniako *lander* bateko lehen ministro ohiaren ustezko suizidioan zerikusirik izan bide zuten. Bruseleko polizia buruari eskupekoak emategatik ere auziperatu zuten. Justiziak, ordea, ez du sekula lortu bere aurkako frogarik. Kolonbia eta Espainiako epaileak ditu orain bere atzetik Alemaniako James Bond diruzaleak.

biltzarrean. Alarma hotsak Madrilen. OUAren biltzarra egin eta handik bi hilabetera labankadaz josi zuten Cubillo Aljerren. Marcelino Oreja Agirre (Jaime Mayor Orejaren osaba eta aitaponteko politikoa) zen orduan Atzerri Ministroa. Martin Villa, Barne Arazoetako.

Kanariar Irltako eta Espainia osoko iritzi publikoak UCD Gobernuaren atzamarrak jo zituen atentatuaren eragile edo bultzatzailetzat. Alabaina, eta sarritan gertatu ohi denez, poliziak ez zuen bere buru izandakoaren aurkako frogarik aurkitu. Ahalegin izugarririk ere ez zuen egin horretarako, egia esan. Orain, ordea, eta Werner Mauss atxilotuz geroztik, baluke Divar epaileak aztarna be-

rririk, Martin Villa estutasun larrian jartzeko adinakorik. Alemaniako zerbitzu sekretuak (eta Mausek bereziki) izan baitzuten eskuhartzerik Cubilloren aurkako ekintzan. Eta Mausek 1978ko apirilaren 5 hartaz adieraz dezakeenak argi lezake 'Cubillo afera'. Hitzegiten badu behintzat.

Kolonbiako poliziak azaroaren 17an atxilotu zuen Alemaniako agentea Riolcloroko aireportuan, Medellinen. Bere emaztearekin zihoan, eta gerrillak bahituta eduki zuen emakume batekin. Izan ere, Werner Maussen bizibidea horixe zen aspaldian: bahitzaile eta bahituen sendien artean bitartekari lanak egitea. Bahiketen 'industria' goraka ari baita Kolonbian: 1.158 lagun iaz,

mila inguru aurtan. Gerrillariak, narkotrafikanteak, talde paramilitarrak edo militarrek, gaizkile arruntak... denetarik dabil negozio honetan. Baita bitartekariak ere. Ezagunenetakoa, Werner Mauss jauna, bahituak askaraztearen truke diru komisio bikainak jasotzen zituena.

Agentea eta negoziantea


BESTELAKO negoziarik ere bazuen Mausek Kolonbian. Alemaniako enpresari asko dabil Amerikako herri horretan eta interes ekonomiko handiak dituzte. Kolonbiari beste inongo lurraldek baino kafe gehiago, adibidez, erosi ohi dio Alemaniak. Enpresari horien ondasunak zaindu eta babesten diru-iturririk izan zitekeela igarri zuen, nonbait, agenteak. Kolonbiako poliziaren iritzi, 1984an heldu zen Mauss herrialde horretara. Zazpiehun kilometro-

■ **Cubillo 1977.aren amaiera ezkeroztik bizi zen erbestean, Aljerren, eta bertatik zabaltzen zituen bere irrati mezuak**

ko oliobide bat ari ziren erakitzen sasoi hartan, ELNko gerrilariak beren menpe zuten herrialde batean. Obrak zaindu eta lanen segurtasuna bermatzeko kontratu zuten Mauss oliobidea egiten ari ziren enpresek. Medellingo metroa egin zutenean ere hantxe zen agente sekretu ohia, Siemens multinazional alemanaren ordezkari ofizial gisa.

Hauts handiak harrotu ditu Kolonbian Maussen atxilotetak. Alemaniako Gobernuak ukatu egin zuen hasieran agente horrek inongo harremanik zuenik. Kolonbiarrek, baina, Alemaniako enbaxadaren gutun bat aurkitu zioten poltsikoan Maussi, agentea bisitaldi ofizialean zebilela zioen idazkia. Zeregin 'humanitarioak' omen agentearenak, adierazi zuten enbaxadako ordezkariak. Dirudenez, Kolonbiako Gobernuak Alemaniakoari eskatu zion halako jestio batzuk egin zitzaizkien gerrilarekin bake hitzarmena izenpetzeko. Eta Mauss litzateke jestio horien egilea.

«Der Spiegel» aldizkari alemanak orain egun batzuk zioenez, Antioquia departamenduko gobernadoreak, Alvaro Uribe, zapuztu zituen jestioak. Gerrilarekin



Werner Mauss izan bide zuen eskuhartzerik Cubilloren aurkako atentatuan. (Argazkia: «El Temps»).

bakea hitzartzearen aurkako izaki, Mauss atxilotzeko agindua eman omen zuen Uribe. Alemaniako Gobernuak, berriz, ahaleginak eta bi ari da egiten agentea etxeratzen. Hainbat abokatu helduak dira jada Bogotá Maussen askapena ahalik eta azkarren lortzeko asmoz. Zeren eta berehala

ez badute libratzen, Kolonbiako justiziak auziperatu egingo du eta bost-hamar urteko gartzelaldia jaso lezake Cubilloren aurkako atentatuan, ustez, partehartzerik izan zuen agente aleman honek.

Carlos Divar epaileak hortxe du azken aukera 1978ko atentatua argitzeko.

Alegia, Kolonbiara ordezkari bidali eta Mauss itaundu. Eta hortik aurrera, zortea lagun beti ere, Espainiako eta Alemaniako zerbitzu sekretuen elkarrekiko loturak argitu Cubilloren aurkako hilketa saiakeran. Loturarik izan zela ez baitago zalantzarik. Eta Werner Mauss tartean zebilela, horretaz ere ez. Etekin politik lortuz gainera orduan ere, 1978.a aldera. Bada horretaz, susmoak ezezik, xehe-tasunik ere.

«Terra Nova» operazioa

SAXONIA Behereako Parlamentuak batzorde berezia sortu zuen orain hamar urte bi zerbitzu sekretuen arteko elkarlanak ikertzeko. Zehazki esanda, «Terra Nova» operazioaren nondik-norakoak argitzeko. Operazio horren xedea honako hau zen: Aljerian 'terrorista' alemanek entrenamendu baserik ba ote zuten jakitea. Alemaniako zerbitzu sekretuek (BND erakundeak) zeharkako bideak erabili zituen bilatze lan horretan. Aljeriara jo aurretik Kanariar Irltako mugimendu abertzalean infiltratzea erabaki zuten. Gogoan izan Antonio Cubillok Aljeriatik egin ohi zituela irratirako saiok, Kanariar



HONDARRABIN

- ✓ Liburugintzako azken berriak eta euskal diskorik hoberenak
- ✓ Abenduaren 10etik 15era
- ✓ Santiago kalean
- ✓ % 10eko beherapena

BIZI IRAKURRIZ

EUSKADIKO LIBURU AZOKEN BATZORDEA

■ Mausek 1978ko apirilaren 5 hartaz adieraz dezakeenak argi lezake 'Cubillo afera', hitzegiten badu behintzat

Artxipelagoaren independentzia aldarrikatuz. Beste helburu bat ere bazuen «Terra Nova» operazioak: enpresari alemanen inbertsioak babestea.

Egun bezalaxe duela 20 urte ere inbertsio handiak baitzituzten Alemaniako hainbat enpresak Kanariar Irletan. Eta MPAIAC erakundearen leherkariak ez zioten batera mesederik egiten inbertsioari. Beraz, tiro bakarraz bi txori jotzeko ahaleginetan zebilen BND. Batetik, Alemaniako talde erradikalek Aljerian izan zituzketen baseak kontrolpean edukitzea. Bestetik, Kanariar Irletan egindako inbertsio ekonomikoak babestea. Eta hara non bazezgoen baterako zein beste-rako pertsona aproposik: Werner Maus.

Saxonia Behereako parlamentuak agindutako ikerketak garbi dio: Aljerian ez zuten entrenamendu base-rik aurkitu zerbitzu alemanek. Hori bai, Mausek ederki bete zituen poltsikoak. Espainiako zerbitzuek Cubilloren aurkako atentatua (edo prestaketa) ongi ordaindu baitzioten. Bide-nabar, Kanariar Irletan inbertsioak zituzten enpresari alemanek 15.000 marko (garai hartako 750.000 pezeta!) ordaintzen zioten hiler beren hotelak eta gainerakoak zaintzeagatik. Hainbat urte beranduago Kolonbian pagotxa berbera aurkitu zuen Werner Mausek, momentuz atxilotuta badago ere.

GAL aferaren arrastoak

segitu izan dituen edonori ezaguna izango zaio istorio hau. Hots: legez kanpoko bitartekoak erabiltzen dituzten gobernuak halamoduzko jendaila kontratatu behar izaten dute. Jendaila horrek, bestalde, bere buruarentzat probetxurik antzematen du: eskupeko bikainak, zergarik ordaindu beharrik ez, botere politikoaren kontrolik apenas... Horrelaxe aberastu ziren, 'Estatu Arrazoiaren' aitazkiapen, Luis Roldan, Rafael Vera, Jose Amedo, Julian San Cristobal... eta Maus. Gerra zikinak bitarteko eta gurlari zikinak behar izaten baititu.

Lan-zaila Divar epaileak

BERAZ, zorte, adore eta tre-bezia handia beharko ditu Carlos Divar epaileak 'Cubillo afera' berpiztu eta argitzeko. GAL asuntuan gertatutakoa ikusirik, ez dirudi PPren Gobernuak erraztasunik emango dionik Divarri 1978ko atentatu haren egileak aurki ditzan. PSOeren agintepean burututako 'gerra zikina' alfonbrapen ez-kutatzen dabilenak nekez zabalduko du lau haizetara UCDren garaian burututakoa. Arerio politikoaren zinkieriak estaltzen dituenak norberarenak plazaratzeko itxaropen handirik ezin ukan. Egun PPn dabilzan buru asko UCDn ibilitakoak baitira. Rodolfo Martin Villa barne ministro izandakoa, besteak beste.

ORIOI CORTACANS


MUNDUA EZ DA BIRIBILA

Milosevic, urtebete geroago

GERRA bat hasten duenak egin dezakeen okerrik handiena gerra galtzea da, aburu zaharrak dioenez; *vae victis*. Ezegitekoen eskala horretan, hasitako gerra ez irabaztea da ondorengo; eta hutsegite hau behintzat egin bide zuen Milosevicek 1991ean Kroazian hasi eta iaz Bosnian amaitutako gudu. Nozitzeko ordua heldu zaio orain. Duela 12 hilabete, nik uste, gehientsuenok apostu egiten genuen derrigorrean sinatutako bake akordio hark ezingo zuela gatazka gerraren dinamikatik atera eta politikagintzaren alorrera eraman; ezkorrenok pentsatzen genuen aurtengo urtearen azken egunotan berriro borrokak sututa izango zirela.

EZ nau penatzen erratu izanak; are gutxiago, bienbitartean Bosnian eman diren pauso politikoak (suetena, desarmaea, egitura politikoen normalizazioa, hauteskundeak, gerra krimenen pertsegizioa), oso nekez eta herrenka bederen, bide zuzenetik joan direlako. Noski, nire poza hutsaren hurrengo da Clinton administrazioak ukan dezakeenaren aldean... Balkanaldean bertan, bake itunaren irabazle politiko nagusia Milosevic izango zela kalkulatu genuenok (ia denok, alegia) zein oker genbiltzan ikusi besterik ez dago, berriz. Parlamenturako hauteskundeak irabazteko estutasunik ez zuen pairatu Serbiako jaun eta jabeak; baina munizipal eta porrot oso nabarmena nozitu du hiri nagusi guztietan.

ZAJEDNO (Elkartuta) oposizio taldearen elkartasuna, Milosevic botatzearekin amaituko da, jakina; indarrik kontrajarrienak biltzen dira bere baitan. Baina denak Milosevicen kontra elkartu izanak, jada zerbaiz adierazten du. Adierazkorragoa da oraindik oposizioaren manifestazio horietan Estatu Batuei egiten zaizkien lausenguak. Serbiaren aliantza politika atzeko aurrera ipintzeko prest ote dago ba oposizio hori?




MIKEL ARAMENDI

Kazetaria

Miseriazko soldaten truke 250 milioi haur ari dira lanean munduan

Lan handiak, esklabu ttikiak

Sindikatu, lan hitzarmen, ordutegi eta gisa bereko hitzak apenas ezagutzen dituzten langileok; bost eta 14 urte bitartekoak dira, sarritan astean zazpi egunez lan egiten dute, hogeitau ordu egunean.



Pakistango haurrek 60 xentimo jasotzen dute marka ezagun honetako baloi bakoitzagatik.

LANAREN Nazioarteko Erakundeak egin berria duen ikerlanak horrela diosku: esklabutza ez da desagertu munduan, ezta gutxiagorik ere. Txostenak haur eta gaztetxoek lanaren inguruko datuak bildu ditu. Hona hemen nagusienak: bost eta hamalau urte bitarteko 250 milioi neska-mutilek egiten dute lan, egun osoz, bizirik irauteko adina irabazteko justu-justu. Asia eta Afrika dira zerrenda ilun horretan lehen postuak bereganatu

dituztenak; Latinoamerika dator segidan, eta ez pentsa Europan erabat ezabatua denik haurren lana. Portugal eta Italia dira, herri garatuei dagokienez, zerrendan ageri diren Europako bakarrak. Albania, Hungaria eta Errumania gainerakoak.

Europatik kanpo, Bhutan Asian, Mali Afrikan eta Haiti Amerikan, horiek dira Lanaren Nazioarteko Erakun-

deko txosten-buruak. Afrika eta Asiako kopuruak dira kezkarrienak, eta aipatu bi herrietan (Bhutanen eta Malin) 50etik gorakoa da haur-langileen ehunekoa. Europan askoz ttikiagoak dira zenbakiak. Portugal da zerrendaburu: % 1,76. Irabazi, lanbide eta lan baldintzetan ere alde handia dago herrialde batzuetatik besteetara. Baina guztietan,

batez ere herri pobreenetan, hedatzen ari da haurren esklabutza.

Brasil litzateke adibide garbientakoa. Bost eta hamalau urte bitarteko herrietarren % 16,1ek egiten du lan Hego Amerikako herrialde zabalenean. Munduko hamabigarren potentzia ekonomikoa izan arren, populazioaren erdia, gutxi asko, *lumpen* kategorian


sailkatzeko modukoa da. Alegia, erabateko pobrezia mailan, edo horren azpitik, bizi da bi herritarretik bat.

Adibideak, izen-abizen eta guzti: Olima sendiaren etxean zutik edo etzanda egon liteke soilik. Eserlekurik jartzeko tokirik ez baitago. Zorua, lurrezkoa. Gas sukaldea, hozkailu zaharra eta hiru koltxoi, ez dago besterik. Elkarren ondoan egiten dute lo denek. Aitak —Wanderleik— ez du lanik aurkitu azken lau urteotan. Igeltseroa da lanbidez. Amak —Zioldak— neska lana egiten zuen, baina lanik gabe da egun. Berrehun erreal irabazten zituen hilean eta horiekin ordaintzen zituen Olimatarren jaki bakarrak: babarrunak eta azukrea.

Hobe lanean kalean baino

WANDERLEI eta Ziolda sendia mantentzeko moduan ez direnez, bi semeren bizkarretara jauzia da zeregin hori. Bento (8 urte) eta Darcy (11) dira Olimatarren sostengu bakarra. Goizean goiz jaiki eta Oleo Dutako favelatik Sao Pauloko erdialdera jotzen dute autobusez. Bento supermerkatu baten ate parean jartzen da, bezeroen erosketak garraiatzeko. Darcyk autoen aparkalekua zaintzen du. Iluntzeko 10,30ak aldera itzultzen dira etxera, poltsikoetan 20na erreal dituztela. Amak hilabete osoan irabazten zuena baino gehiago eskuratzen dute astebetean Bentok eta Darcyk.

Aitari ez zaio gaizki iruditzen bere semeak lanean aritzea. «Nabiago dut lanean ibil daitezela lapurretan edo eskean baino», dio Wanderleik. Bestelako iri-



tzia du Oded Grajew-ek: *Hemengo pentsakeraren oinarrian dago haurrek lan egin behar dutela, bestela kaleko giroak 'gaiztotu' egingo baititu. Pentsakera horri esker irauten du belaunaldiz belaunaldi miseriak herri bonetan*. Grajew, besterik dirudien arren, enpresaria da. Jostailu lantegi bat zuen, baina duela sei urte Abrinq Fundazioa sortu eta haurren eskubideak defendatzeari ekin zion.

Indian jaiotako haur pobreen egoera ez da Brasigoena baino hobea. Kailash Satyarthik orain hamabi urte sortu zuen erakundeak, South Asian Coalition on Child Servitutedek 20.000 haur libratu ditu esklabutzatik. Ur tantta baino ez: 55 milioi haur ari dira lanean Indian; lau urte barru 70 milioi izango dira. Zazpi urte

besterik ez ditu Ashraf-ek, Satyarthiren egoitzan dau den haurretako batek. Orain aste batzuk jaso zuten, gorputza ubelduraz josia, nekeak jota, agure ttikia zirudiela. Mirzapurren aritzen lanean Ashraf, alfonbrak egiten. Zazpi egun astean, 20 ordu egunean.

Gurasoek eurek uzten dituzte, gehienetan, beren seme-alabak alfonbra edo beira ekoizleen eskuetan. Zorrak kitatzeko, txanpon batzuk jasotzeko, mantendu ezin dituzten umeak beste norabait bidaltzeko... guraso askok berehala jaregiten ditu haurrak Indian, batez ere estatu pobreenan, Bihar-en. Beste hainbeste gertatzen da Pakistan, Bangladesh, Buthan eta inguruko zenbait herritan. Thailandian eta Filipinak Irletan, berriz, esplotazio sexuala da

haur askoren paraderoa.

«Haurren zapalkuntza, herrialde atzeratuetan, egitura zaharren eta iraultza industrialaren arteko topalekuan kokatu behar da. Indian, adibidez, kasta sistemak eta diru-goseak elkar aurkitu dutenean haurrak bihurtu dira proletargoaren proletarioak, miserabletan miserableenak, ia debaldeko langile, konzentrazio eremuetan bizi diren esklabuak», dio Jacques Julliard soziologoak. Zer egin, nola desagertarazi haurren esklabutza edo, gutxienik, Mendebaldeko herritarren kontzientziak lasaitu?

Etsi, haserretu, mugak jarri

HIRU jarreratan laburbildu ditu Julliardek proposamen nagusienak. Lehenbizikoa, etsipena: «Haurren esplotazioa garapen industrialaren ezinbesteko fasea da», diote jarrera honen defendatzaileek. Bigarrena, haserre militantea: «Ez dezagun eros Pakistango haurrek

■ Bost eta hamalau urte bitarteko 250 milioi neska-mutilek egiten dute lan munduan, egun osoz

Indian, gurasoek eurek uzten dituzte, gehienetan, beren seme-alabak alfonbra edo beira ekoizleen eskuetan

egindako baloirik edo kirol oinetakorik! Ez gaitezen esklabutzaaren laguntzaile izan!. Hirugarrena, protekzionismoa: *«Ezin dugu onartu horrelako zapalkuntzarik, gure enpresak berrialde horietara eramango baitituzte, langileak askoz merkeagoak dira eta!.* Jarrera hauetarik bakar batek ere ez du balio, soziologoaren iritziz, haurren esklabutza ezabatzeko.

Konponbidea, beraz, non ote? *«Eskolan. Eskola baita jakituria zabaltzeko tresna nagusia eta haurraren nortasuna sendotzeko erakunde egokiena. Baina haurrak eskolaratzeko guraso askori ordain ekonomikorik eman beharko litzaieke»,* dio Julliardek. Gure inguruotan, ordea, Estatu Batuetan lehenbizi eta European segidan, lehen aipatutako jarretatik bigarrena ari da nagusitzen. Haserre militantearena, alegia. Jokabide 'politikoki zuzenak' asmatu zituen herriak —Estatu Batuek— 'sozialki zuzenak' plazaratu berriak ditu. Edozer eta edonon erostea ez da jada zilegi zuzentasun sozialak agintzen duenez.

Nike, Ikea, Gap eta haur langileak

NIKE enpresa, adibidez, estatuan larrian jarri dute EEBBetako kontsumitzaileen elkarteek (ugariak eta oso boteretsuak) Indonesiako haurrei miseriazko soldatak ordaintzen dizkiela eta. Boikotak behartuta hitzeman du Nikeren zuzendaritzak haurren soldatak

hobetuko dituela. Ikea enpresak barkazioa eskatu behar izan du jendaurrean Indiako haurrei ordaintzen dizkien huskeriengatik. Gap kateak (EEBBtako arropa saltzaile nagusietakoak) 'jokabide sozial zuzena' ziurtatzeko kodea onartu berria du. Hots, bere produktuak egiteko ez duela haurrik erabiliko, ezta sindikatuen jarduera ametitzen ez duten herrialdeetan lantegirik zabalduko ere.

Erantsi etika etiketari


'ZUZENTASUN soziala' ren moda Ipar Amerikatik Alemania, Holanda, Danimarka eta Erresuma Batura hedatua da. Eta orain, Frantziara. Eguberriotan Carrefour, Camaieu edo La Redouten erosketak egingo dituenak honako hau dioen txartela ikusiko du zenbait produktutan: *«Mettez de l'ethique sur l'etiquette. (Erantsi iezaiozu etika etiketari)».* Kanpainaren antolatzaileek diotenez, *«Hiritarrok kontsumitzaile garelako kontu jakina da; orain, kontsumitzaileak hiritar biburtzea da xedea».* Ekologistek orain urte batzuk egin zuten bezala, agian kontsumitzaile elkarteek ere asmatua dute politika egiteko sistema berri eta eraginkorrik. Matematika hutsa: Nike edo Reebok enpresek, adibide bat jartzearen, irabaziak % 1 gutxituko balituzte, Indonesiako haur-langileen soldata bikoizterik balegoke.

XABIER ARANBURU

DIRUAREN HOTSA

Hilaren 11rako greba deialdia dela eta

LAB-EKO estatuko administrazioko arloak ez dio bere laguntza eman CCOO, UGT eta CSIFek egin duten hilaren 11rako greba deialdiari, ez baitira nahikoak sindikatu horiek deitutako mobilizazioak gobernuaren soldata izozketaren asmoa bertan behera uzteko. Finen, beste interes batzuk direla medio hipotekatuta baitaude. Bestelako mobilizapen gogorragoak ezinbestekoak lirateke soldataren igoera helburu duten ekintzetarako, gobernuari min egin nahi baldin bazaio behintzat. Bestalde, estatuko administrazioko euskal langileei ez zaie negoziazio ahalmena ziurtatzen, Madrilen soilik bideratu nahi delarik erabaki ahalmen oro sindikatu zentralista hauen bitartez, eta izozketaren benetako irtenbidea galaraziz, hau da, E.H.ko administrazioetako langile guztien lan baldintzen berdintasuna, transferentzien edo negoziazioaren dezentralizazioaren bidez.



JOXIN ITURRIOZ


LABeko estatuko administrazio arloaren

PP-REN eta orokorrean azken urteotan Madrilen hartutako erabakiek zerbitzu publikoen desegite prozesua dakarte, herritarren beharretatik gero eta urrunago eramanez administrazioa. Zerbitzu publikoen defentsan behar beharrezkoak dira negoziazio eta erabaki ahalmenak Euskal Herrira ekartzea euskal administrazio bakarra eraikitzeko, euskal gizarteari egokitutako zerbitzu publiko ona eta emankorra osa dezagun.

LAB-EK gogor egingo du estatuko administrazioko langileok pairatzen ditugun erasoan kontra, eta soldata ahalmenaren berreskurapena eta homologazioaren bidean eman daitezkeen neurriak (transferentziak, negoziazioaren dezentralizazioa...) defendituko ditu benetako irtenbidetzat, epe motzeko irtenbide antzuak baztertuz. Bide luzea daukagu oraindik, baina horra bideratuta jarraituko dugu lanean, asanbladak eginez eta bestelako ekintzetara deituz, sindikatu zentralisten interes monopolistetatik aldenduz, geure kasa edo asmo hauekin bat datozen beste sindikatuekin elkartuz.



NEGU GORRIAK: Salam, agur (CD-MC)



DUT: At (CD-MC)



1500 MC 2200 CD
BAINO GEHIAGO
EZ ORDAINDU

Π L.T. (CD-MC)



King Mafrundi (CD-MC)



ETSIAIAK:
1987-1997 Hamar urte
(VHS)



BAP!!:
...ta bestela ondo?
(VHS)



MC 1000 CD 1500



ESAN OZENKI RECORDS
Pilar kalea, 1 bis. 20.304 IRUN Tel: 943 - 633137 Fx: 943 - 633130
[http:// www.eusnet.org / partaide / esan_ozenki](http://www.eusnet.org/partaide/esan_ozenki)
E-mail: esan_ozenki@eusnet.org

EKBren kanpainak herritarrak euskararen egoeraz kontzientziatzea zuen helburu

BILBORA, BEREIA EMATEKO

A

arunbata honetan EKBk irailean martxan jarritako «Eman euskarari berea!» kanpaina amaitutzat emango du Bilbon. Kanpainak herrietan izan duen eraginarene balantzea egiteko garaia da.



Gizarteko esparru guztietara iristea izan da kanpainaren helburua. (Arg.: EKB).

JUAN Mari Mendizabal EKBko lehendakariaren esanetan «manifestazio honekin euskararekiko herritarrek duten kezka kaleratu nahi dugu, Euskal Herriko administrazioaren aurrean euskararen aldeko politikan aurrera egin behar dela aldarrikatu nahi dugulako. Euskarak bultzada baten beharra duela adieraziko du gizarteak eta guk horri Plangintza Orokorra deitzen diogu».

Kanpaina honen bidez

herri guztietara iritsi nahi zuten euskararen egoeraz kontzientzia hartzeko. Eta badirudi helburu hori bete-betean lortu dutela. «Herri bakoitzeko elkarteetara iristen saiatu gara: ikastetxe, sindikatu, kirol elkar-

te... Azken finean, gizartea elkarte hauetan baitago. Lan hau izan da zailena ere. Talde hauetara jo eta guk ikusten ditugun kezka nagusiak adierazi dizkiegu. Era honetan, herri bakoitzeko sektore propioetan kezka

bauek landu egin dituzte. Hau da, «Eman euskarari berea!» kanpainaren bitartez lehendik zeuden kezkak bideratu eta lantzea posible izan da. «Hori gertatu da behintzat administrazio eta unibertsitatean».

Kanpainaren arrakasta handiena EKBk plazaratu nahi zuen mezua herrietara heldu eta ulertu dela da. «Jendeak blokeo egoera batean gaudela ulertu du,

«Manifestazioa ez da amaiera, beste zerbaiten hasiera adierazi nahi du»
JUAN MARI MENDIZABAL

bots, euskararen normalizazioan aurrera egin gabe gaudela ulertu du. Herria kontzientziatu egin da, azaldu du Juan Marik.

Ondorengo hilabeteetan ikusiko da horrek eragina duen ala ez. Hala ere, Mendizabalek kanpaina hau «bil ala bizikoa» denik ez du us-te: «Manifestazioa ez da zerbaiten amaiera, alde-rantziz, zerbaiten hasiera adierazi nahi du. Hurrengo urteetan euskararen aldeko mugimenduaren bere era-gin sozial eta politikoa han-ditzeko pausoak izango di-ra hauek».

Elkarren indarrak batuz

KANPAINAK bere azken urratsak emango ditu laster, baina goian aipatu bezala, lan asko dago oraindik egi-teko. EKBko lehendakariak adierazi digunez, «euskal-gintzaren munduan lan egiten dugun guztiok ba-tzea da hemendik aurrera egin beharreko lana. Gure-tzat euskara oso kezka bizia da, baina oraindik gizar-tean eta are gutxiago poli-tikan, ez da lortu beharri-zan bat izatea». Azken urte hauetan esparru desberdi-netan lan asko egin dela ai-patzen du, baina era isolatu batean, inoiz ez bateratasun baten barnean. «Garbi dugu denon artean bultzada eman behar diogula gure bizkuntzari, eta horretara-ko guztiok batera gogor ekin behar diogu lanari. Kon-tuan izan oso une garran-tzitsua dela oraingoa. 1997. urtean bizkuntza politikak eztabaidatu egingo direla eta bertan ezarriko direla datozen hamar urteetarako oinarriak».

IDOIA TORREGARAI



SABIN INTXAURRAGA

Zeanuriko EAKo zinegotzia

Ez al duzu uste udalerrri bat Uematik ateratzeko erabakia hartzeko udal-batzarra kontuan hartu behar duela eta herritarren gehiengoaren iritzia errespetatu behar duela?


MIKEL ILARREGI

Uemako lehendakaria

Uemak antolaturiko hirugarren jardunaldien bezperan, EAJk hainbat akusazio kaleratu zituzten prentsaren bitartez. Interes politi-koak direla medio, Uema beste zeregineta-rako plataforma bezala erabiltzen dela esa-nez. Ondorioz, «atera egingo» ziren meha-txua bota zuten. Guzti honen aurrean, zu-zendaritza batzordeak mantso eta poliki az-tertu du guzti hau.

Ez dugu erantzun beligerantea eman nahi izan susmo eta uste okerrak argi daitezen. Horregatik, premiazko bilera baten deialdia luzatu diegu. Akusazioak ukatu ditugu, baita gure harridura erakutsi ere. «Izkutuko ma-muak» gaingiduta zeudela pentsatzen genuen, joan den urteko Lizartzako jardunal-dietan EAJ ordezkariak adierazi zuen bezala.

Jarrera hau ez zaigu zilegia iruditzen, eta argitu beharre-koa da. Uema, ha-sieran jarritako hel-buruetan eta urtero asanbladan onartu-riko asmoan murgildurik dago. EAJ, EA eta HB proiektu baten inguruan bat egitea au-rrerapauso handia dela iruditzen zaigu. Be-raz, nola atera aztertu beharrean, elkarrekin nola jarraitu aztertu beharko genuke. Honek hiru taldeen adostasuna eta konpromezua suposatzen du. Bestela jai dugu; akabo urte hauetako esperientzia eta Euskal Herriko arazoei eman nahi diegun irtenbidea. He-mentxe apustua.



URREA



● Ehun farmazilari baino gehiago biltzen ditu Farmazilari Euskaldunen Elkarteak. Nazio mailako elkarte osatu dute, izan ere, EAE, Nafarroa eta Iparraldeko farma-zilariak osatzen dute elkarte hau.

GOROTZA




● Gipuzkoako Erizaintza Eskolak kale-ratzen duen «Circular» lau orriko berripa-pera guztiz gazteleraz egin dute. Non eta Euskal Herriko herrialde euskaldunear, euskara ahaztu.

kutxi kutxi Mari Lutxi!


TAKOLO PURRITX ETA PORROTX en

"Tantaka Yotanka"
diskoa

"Beltzi"
bideoa



ETA



berri berriak kalean dauzkazu!

eta berarekin batera...

"Tantaka Yotanka"
ikuskizuna

Abendua: Donibane Lohitzune (14), Amurrio (15), Eibar (21), Usurbil (22), Tolosa (23), Pasaia (24), Ordizia (26), Bermeo (27), Zornotza (28), Oiartzun (29), Zizur Nagusia (30)

Urtrarrila: Donostia (2), Zarautz (3), Durango (4), Basauri (5), Orereta (6), Bilbo (19)...

ONGI PASA NIKOLASA eta... JAU!

Paulo Freireren jarraitzaileetatik hasi eta Jean Piageten eredua hartu dutenengana

PEDAGOGI ITURRIEN ISURIA EUSKAL IKASTETXEETAN

Pedagogi eredu edo molde garbirik ez dago euskal ikastetxeetan, baina iturri pedagogiko ezberdinetatik edanda ere joera nabariak dira ikastetxeak batzuetan. Nahasketan oinarritutako eredua erabiltzen duten ikastetxeak nagusi izaki, iturrietan joera nabarmenagoak dituztenengana jo dugu. Paulo Freireren eredutik hasi eta Jean Piageten eredura gehiago hurbiltzen direnengana iritsi gara, eredu esperimentalak tartean.

«PERTSONA bakoitzari, bere egoera baloratzeko eta aldatzeko, besteekin barremanetan jartzeko eta mundua aldatze eta hobetze lanetan konprometitzeko, gaitasun kritiko baten jabe izaten laguntzean datza Askatasunerako Heziketa». Halaxe zion Paulo Freire pedagogo brasildarrak «Askatasunerako Hezikuntza» liburuan (1967) eta halaxe jaso dute Hernaniko (Gipuzkoa) Langile Ikastolan beren pedagogi oinarritzat. Ikaslearen kontzientzia sozial eta politikoa zuzperetzea oinarri zuen alfabetatze-metodoa sortu zuen Freirek, 1964ko estatu kolpearen ondorioz bera kartzelaratu zuten arte Brasilen metodo ofizial izan zena.

Horrela, elkarrekintzan oinarritutako prozesu dinamiko bat bezala ikusten dute hezikuntza Hernaniko ikastola honetan: ikasle bakoitzak dituen ahalmen fisiko, afektibo, sozial, artistiko eta sortzaileak garatu eta sendotu ditzan, «neska-mutil bakoitzari pertsona aske,



Elena Urruzola eta Hernaniko Langile ikastolako ikasleak. (Arg.: G. Garaialde).

kritiko eta solidario izaten lagunduz, eta ikasketa mailak egokituz, ikasleek hurrengo hezkuntza mailatan heziketa prozesua jarraitu ahal izan dezaten».

Elena Urruzolak adierazi bezala, duela 25 urte sortu zen ikastetxea. Garai hartan eskola berriaren ildotik lan egiteko mugimenduan murgilduta zirela, guraso eta irakasleen artean emandako eztabaiden artean eredu berri bat bilatu nahi izan zuten. Freireren eredu oinarritzat hartu zuten orduan, nahiz eta urteak pasa ahala «gure proiektuan bestelako aportazioak egon diren, Antzuolako eskolaren inguran konstruktibismoaren ideiak jaso ditugu, baita Bergarako psikomotrizitate eskolaren esperientzia eta

«EAEko 25 zentrori laguntza ematen diegu eta beste 10 zentrori Espainian» LOLI ANAUT

formakuntza».

Ekarpenak ekarpen, hasieratik gauzatzen joan izan diren pedagogi ereduari eusten diotela azaldu du Langile ikastolako irakasleak, «urteen poderioz indartzen joan da, gainera. Irakasleen eguneroko lanetik eta bonen azterketatik abiatu gara beti, zein aurrerapauso eta arazo genituen eztabaidatzeko». Pedagogi ereduaren kudeaketa guraso eta irakasleen arteko eztabaidan dago oinarritua, hilabete behin egiten dituzten bileretan gai pedagogikoak ere lantzen

baitituzte: «Gurasoek beti onartu izan dute gure pedagogi berezia, baina behar bada beraiek parte hartzeko aukera izan dutelako izan da».

«Norberaren esperientzia eta egoera baloratu eta interpretatzeko, ingurukoekin elkarrizketarako prestutasuna izateko eta ingurua aztertu eta gizarte bidezkoago baten alde lan egiteko konprometzua hartzeko» dute garrantzitsutzat ikasleengan izpiritu eta gaitasun kritikoa garatzea Langile ikastolan, eta ahalegin horretan gauzatu dute meto-

dologia egokia. Irakasleen zeregina neska-mutilen esperientziak bideratu eta animatzea da, interes guñeak bilatzen lagundu eta hazkunderako garrantzizko dituzten teknika eta ezagupideak euren kabuz aurkitzen lagunduz. Baliabideen sozializazioa lantzen dute gela barruan nahiz kanpoan, haur bakoitzak «bereak bakarrik» izango diren testuliburu eta abarren beharrik izan ez dezan baitaude hornituta gelak. Honi lotuta, ikasketa prozesua orokorrean ebaluatzen dute irakasleek eta horrexegatik ez dute ontzat ematen azterketa eta noten neurtze-sistema; alternatiba gisa, ebaluaketaren ondorioak gurasoei ahoz azaltzen dizkiete.

Hezkuntza prozesuaren irekitasunarekin lotzen dute eskola bera: «Inguru zehatzean txertatua egongo da. Hormen itxitasuna apurtuz errealitatearen bila, kalera irtengo da, gure esperientzia aberastu eta osatze bidean jarri dezaketzen zerbait bitarteko nabiz guraso eta herritarrei ikasgelak zabalduz».

Donostian berrikuntza eredu

BADA, baina, inolako eredu pedagogiko klasikori jarraitu gabe propioa sortzera jo duten ikastetxeak, Donostiako Amara Berri Hezkuntza Berrikuntzarako Ikastetxea, kasu. Loli Anautek koordinatzaile pedagogikoak azaldu duenez, berak 24 urte daruma eredu propio lantzen, eta Amara Berri ikastetxe publikoan duela 18 urte sortu zenetik praktikan jarri dute irakasleen artean osatzen duten eredu hau. Anautek dioenez, «guk geuk egiten dugu, guztiok; Euskal

Konstruktibismoaren bitartez Ebanjelioa

Euskal Herriko ikastetxeetan iturriztat erabiltzen dituzten pedagogi ereduaren artean izaera berezidun batzuk badaude, erlijioarekin lotura dutelako, hain zuzen. Kristau eskola euskalduna dute helmugatzat La Salle ikastetxeetan Juan Luis Urmeneta Hezkuntza eta Elebitasunerako Idazkartzako partaideak azaldu duenez.

Eredu pedagogikoari dagokionez, konstruktibismoaren ildotik doaz La Sallekoak ere. Konstruktibismoaren oinarriez gain «ikaslearen protagonismoa, irakasleen talde-lana, Ebanjelioaren zabal-kundea eta euskal bizkuntza eta kulturaren txer-tetzea» dute helburu.

Lehen hiru printzipioak

La Salleko Joan Bautistak ezarri zituen XVIII. mendean eta «laugarrenaren funtsa ere garai hartatik letorkiguke, tokian tokiko kultura ezagutu, maitatu eta sustatzea, alegia, azaldu du Urmenetak, baina La Salle erakundeak 110 urte daromatza Hego Euskal Herrian». Irakaste prozesuei dago-kienez, konstruktibismoa ei da gaur egungo teoria nagusia eta LOGSEren ezarpenak, besteak beste, teoria hori jarraitzera bultzatu ditu.

Ikastetxe bakoitza da, horretarako, formazio-toki irakasle goarentzat. Ikastetxe bakoitzak izan ditzakeen berezko premiez gain, badituzte prestakuntza oinarri komunak. Baliabideak era ego-

kian landu ahal izateko azken urteotan garrantzi handia eman ei diote ikastetxeetako administrazio eta pedagogi kudeaketari, kalitatezko prozesuak bultzatuz eta horretarako zuzendaritza taldekideak prestatuz.


La Salle Ikastetxeetako pedagogi ereduaren kudeaketari helduz, Urmenetaren ustez ikastetxean parte hartzen duten guztien artean eztabaidatzen da eredu. «Gainera, La Salle ikastetxe ezberdinetako irakasleek euren artean ere eztabaida dezakete, ikastetxe bakoitzeko mugen gaindiko proiektu bat daromagu eskuartean-eta. Horregatik egituratu dugu, hain zuzen ere, instituzio-prestakuntza».

Autonomi Elkarteko 25 zentrori laguntza ematen diogu eta beste 10 zentrori Espainian». Ikasle bakoitza izaki globala dela azpimarratzen dute, printzipio metodologikoekin erabat lotuzat baitute ikaslegoari buruzko kontzepzioa. Eta bizi-tza global horren garapen esparruak lantzeko ikastetxean egoera globalak sortzen dituzte.

Horretarako, osagarriak eta egonkorak diren testuinguru sozialen bidez programatzen dute metodologia: ekintza guztiek beren baitan edo beren adieraztean barne dute zergatia. Bestalde, aniztasunaren aldeko apustua egiten dute, programazioak berak ikasle bakoitzari bere erritmo eta martxan lan egiteko aukera ematen baitio. Ezberdintasunaz duten pertzepzioa erabat lotuta dago antolaketa molde honekin: kualitatetzat hartzen da, eta ez eragingarri bereiztaile bezala. Hezkuntza eremuari dagokionez, gainera, heziketarako eskuharmen eremutat dituzte kirol, kultura, jangela eta garraioarekin lotutako ekintzak.

Metodologia honek guztiak gauzatzen ditu ikastetxearen helburu orokorrak: *«Ikasleak arretazko jarrera garatu dezala, jokaeran eta pentsakeran autonomia hartu dezala, elkarrizketaz baliatuz irtenbideak bila ditzala, bere portaera zuzena bideratu, kritikak erabili eta jasotzen jakin dezala, ideiak defendatu eta arrazoitu artean oreka lor de-*

Ikaslearen kontzientzia sozial eta politikoa zuzpertzeari oinarri zuen alfabetatze-metodoa sortu zuen Freirek



zala, gebiengoak hartzen dituen erabakiak onartzen ikasi dezala gutxiengoari entzun ondoren, materiala zaintzeko obitura garatu dezala eta muga sozialaz jabetu dadila, bidegabe-ria ekiditeko».

Antzuolako ikusmoldea

IKUSMOLDE konstruktibistaren ildotik gauzatzen dute heziketa Antzuolako Herri Ikastetxean. Bertako arduradunek konstruktibismoaren ondorio nagusia azpimarratu dute: *«Zeure kabuz aurrera egin nahi izanez*

gero, zure teoria eraiki, horrela beste bat egin dezakezu honek balio ez dizunean». Konstruktibismoa ez dute eredützat, *«gure errealitate zehatzetaz hausnarketak egiten lagunduko digun ikuspegi orokor bat emango digu, hau da, talde baten hausnarketa prozesua»* da.

Antzuolako eskolan pedagogi ildo nagusiak haurra ulertzeko eran datzate eta honen ondorioz helduak jokutzen duen funtzioaren aldaketan. Haurra bere ikasketen prozesuan zuzenki eta aktiboki inplikatzeko da eta *«hau izango da gure egitearen abiapuntua, haurra eskolara etortzen denean bere interesak, galderak, ardurak, esperientziak, gogotak... ekarriko baititu».* Hel-

duak zeharkako interbentzioak egingo ditu eta interbentzio zuzenak, gelako dinamikan bete-betean inplikatu. Heldua, beraz, ez da izango informazioaren igorle hutsa eta umeen ekintzari emandako lehenetsunak bere funtzioa aldarazten du. Antzerki bat balitz, heldua antzezlanaren zuzendaria litzateke. Haurra, aldiz, aktore eta lan guztien egile. 1979-80an irakasleek nabaritzen zuten gabezia teorikoa lantzearen ondorio da ikusmolde hau, konstruktibismoaren inguruko prestakuntza teoriko trinko baten emaitza. Ikusmolde aniztetan gauzatu baitira eredu iturriak.

Donostiako Amara Berri Hezkuntza Berrikuntzarako Ikastetxeko ikasle hezkuntzarako egoera globalak bultzatzen dituzte pedagogi metodologia lantzeko. Argazkian, Donostiako ikastetxeko egoitza. (Argazkia: Garikoitz Garaialde).

**IDOIA TORREGARAI
ARANTXA ERASUN**

Herritarren mobilizazioak hasi dira Erandion: bertan koka liteke Zabalgarbi erraustegia

ZABALGARBI: BIZKAIAN INGURUGIROA ERRAUTSI

Zabalgarbiko arduradunek zaborrak errausteko proiektuarekin aurrera egiteko erabakia hartu dute eta honek aurkako erantzun gogorra jaso du. Azken mobilizazioa azaroaren 23an antolatu zuten BBKko Batzar Nagusiaren aurrean, Zabalgarbiko bazkideetako bat baita. Bezperan lehergailu batek eztanda egin zuen banketxearen Bilboko auzo bateko kutzazain automatikoan eta beste bat indargabetu zuten egoitza nagusian.

AZAROAREN 28an Iraultza Askek hartu zituen bere gain ekintza hauek. Erraustegiaren aurkako lehen erantzun bortitza da, nolabait ere lehen oharpen armatua. Horrela bada, erraustegiaren proiektua berbideratu ezean, beste Lemoiz edo Leizaran bat bilaka daiteke. Erantzun gogor honen arazoi bakarra ez da kutsadurak hainbeste kaltetutako herri batean, Erandion, koka daitekeela, baizik eta Bizkaiko talde ekologista eta mugimendu sozialek badaikitela proiektua aurrera eramango dela, ezarri egin zaiela, argi eta garbi eztabaidatu gabe, beste alternatiba edo aukera batzuk aztertu gabe. Nahiz eta proiektuak Bizkakiko Batzar Na-

gusien tramite guztiak bete dituen —HB, IU eta PP aurka azaldu ziren, nor bere arrazoiengatik—.

Arazo ekonomikoa dago batetik, inbertsio garrantzitsua eskatzen duelako, eta ekologikoa, bestetik, ingurugiroan eragin handia izan dezakeelako. Osagai guztiak, beraz, arazo politikoa handia sortzeko, Lemoiz edota Leizarango proiektuekin suertatu zen bezala.

Zabalgarbi proiektua 1993an sortu zen kapital publiko eta pribatuarekin. Helburua, Hiriko Hondakin

Solidoak energia elektriko bihurtzea. Erraustegiak bi zerbitzu garrantzitsu beteko lituzke, era honetara: energia elektrikoa sortu (arduradunen arabera, Bizkaiko beharraren % 20 asetuko luke) eta etxeetako zaborren arazoari konponbidea eman.

Balorizazio energetikorako bi planta izango lirake eta bakoitzak orduko 30 tona hondakin tratatzeko ahalmena izango luke, urteko 226.000 tona, alegia. Plantako 90 megawatteko potentzia du. Bien artean

Osagai guztiak ditu arazo politikoa handia sortzeko, Lemoiz edota Leizarango proiektuekin suertatu zen bezala


urteko 1.270 milioi kw-ordu elektrizitate sor lezakete. Planta termikoetan oro har erabiltzen diren ekipok erabiliko lituzkete. Arduradunek diotenez, jadanik esperimentatuak izan diren teknologiak erabiliko lituzkete.

Zabalgarbiko arduradunak behin eta berriz, etengabe, ari dira mezuak zabaltzen, irrati bidez, postontzietarako txartel bidez, eta abar, proiektuak berme osoa duela adieraziz. Mezu horietan esaten dute era honetako erraustegiek erregai garbiagoak erabiltzen dituztela eta gainera erretze-gasak tratatzeko teknologia oso aurreratua eta moderna dutela.

Zabalgarbi elkarteak % 60 kapital pribatuaz osatua dago: Ingeniera Sener (kapitalaren % 45); BBB (% 10) eta Babcock Wilcox (% 5). Gainerako kapitala erakunde publikoena da; Bizkakiko Foru Aldundia (% 30) eta Eusko Jaurlaritzako Energia Erakundea (% 5).

Aurreikusita dagoen in-

HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BALIOTZE ENERGETIKORAKO PLANTAREN FUNTZIONAMENDUA



bertsioa 40.000 milioi pezeta pasatxokoa da (1.600 libera inguru). Lehenengo planta 2000. urterako martxan jar-tzea espero da eta bigarrena, berriz, 2003.erako.


Erraustegiaren kokalekuari dagokionez, Bizkaki-ko diputatu nagusiak berri- kitan esan du ez dagoela oraindik erabakita, baina badirudi Erandio dela bu-ruan daukatena, Sakoni ibarrean, Bilboko Erribera- ren eskuinaldean.

Herritar eta taldeak aurka

PROIEKTUAK ez du herri- tarren aldetik onarpenik, eta hasi dira lehenengo adieraz- pen eta mobilizazioak. Biz- kakiko ekologistek honako arrazoi hauek ematen dituz- ten proiektuaren aurka: «Kutsadurari dagokionez, erraustegiaren tximinieta- tik aterako dira, besteak beste, dioxinak, metal as- tunak, furanoak..., haue- tako batzuk minbizia era- giten dute. Bestalde, erraus- tegiak ez ditu zaborrak de- sagertarazten, errauts bi-

hurtu baizik, eta errauts hauek toxikoak eta arriskutsuak dira, se- gurtasun-isurtegieta- n pilatu beharrekoak». Ekologista adituek dio- tenez, errauts toxiko hauen % 30 beste isur- tegi batzuetan gorde eta zaindu behar izaten da eta honek, noski, are- agotu egingo du lurralde horietako bizilagunen bizi- kalitate kaskarra.

Bestalde, birziklatze- ri, bere zentzu zabalean, atek ixten dizkio. Hiri- hondakinak tratatzeko irtenbide oso garestia da, batetik hasierako 40.000 milioiko inbertsioa be- har duelako, eta bestetik, mantenimendu-gastuak ere handiak direlako. Gas eta fuel oil kopuru izugarriak eskatzen ditu erretza-indi- zeak igotzeko. Beraz, erraustegia ezezik benetako planta termikoa izango da Zabalgarbik egingo duena, eta aditu hauen iritzi- z, badira alternatiba garbiagoak eta merkeagoak Gipuzkoan frogatu den bezala.



Hauxe da Zabalgarbiren egitasmoaren arabera Bizkaiko errauskailuak izango duen irudia.

Proiektu honen aurka daudenek Gipuzkoara begi- ra daude, bertan baitute ere- dua. Gipuzkoan ere hasiera batean antzeko proiektu bat zuten pentsatua, baina hainbat talde sozial, ekolo- gista eta politikoeekin ezta- baidatu ondoren, eta herri- tarren presioa dela medio, beste alternatiba baten alde- ko apustua egin dute; al- ternatiba garbiagoa, mer-

keagoa eta ez hain kutsaga- rria, Zabalgarbiko proiektu- aren aurka dauden hauen esanetan.

Bizkaiko ekologistek es- kuartean dute azterketa ekonomiko alderatu bat, Gipuzkoako Goierrri eskual- deko udalek osatzen duten Sasieta Mankomunitateak eginga, eta bertan Zabalgar- biren aldean alternatiba hobek eta merkeagoak

■ Zabalgarbiren % 40 erakunde publikoena da: Bizkaiko Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako Energia Erakundea

proposatzen dira. Zehazki, Sasietan Hiri Hondakin Solidoen tratamendu osoaren kostua (isuri, bildu eta birziklatu), isurkinei buruzko arategi guztia betez, tonako 15.000 pezetakoa da. Gipuzkoan baztertutako erraustegi proiektuaren arabera, berriz, 25.000 pezetakoa izan zitekeen (garratua, erraustegia, errautsen segurtasun-biltegia eta abar barne).

Sasietako Mankomunitateak burututako azterketa honen arabera, nahiz eta arategi berriarekin nabarmen handituko den isurkin kontrolatuen kopurua, erraustea baino askoz ere merkeagoa izango da.

Bizkaiko Foru Aldundiko arduradunek, aldiz, beren tesia indartzeko, zera diote: Gipuzkoak epe motzerako irtenbidea duela eta epe luzeago batera arazoak izan ditzakeela. Baina Gipuzkoak diseinatu duen proiektuan 1996-2020 arteko epeaz hitz egiten dute, eta Bizkaia onartu dituen oinarrietan, berriz, 1995-1999 urte tartea jasotzen da. Honen guztiaren aurrean, beraz, ez da harritzekoa Bizkaian proiektuaren aurka dauden talde, herritar eta politikoen galdera hau egitea: zelan izan daiteke txarra Bizkaiko Gipuzkoarako ona dena?

Azpiko interesak

BIZKAIKO ekologisten ustez, arrazoi ekonomiko handiak daude, batetik, eta EAJren interes zehatzak bestetik, proiektuarekin, kosta

ala kosta, aurrera egiteko. Susmoa dago EAJko zenbait pertsona eta alderdi honen inguruko enpresek interes ekonomiko bereziak dituztela Zabalgarbi proiektua gauzatzeko.

Proiektuaren aurkako iturrien arabera, EAJko pertsona jakin batzuk amore izpirik ere eman nahi gabe ari dira jokatzeko. Bestek beste, aipatzen dira Javier Atutxa EAJko BBBko lehendakaria, Ester Solabarrieta Bizkaiko Foru Aldundiko ingurugiroko diputatua eta Madrilgo Kongresuan EAJren bozeramaile den Iñaki Anasagastiren emaztea, eta Iñaki bera.

BBV eta Iberdrola

TESTUINGURU honetan aztertu behar da BBV eta Iberdrolaren jarrera. Zergatik beti errentagarritasun handienaren bila doazen bi erakunde hauek ez dira proiektu honetan sartu? Errentagarritasunik ez dagoelako? Adostasun politikorik ez dagoelako? Adostasun sozialik ez dagoelako? Proiektuaren aurkako sektoreen iritzian, bi erakunde hauen kezkarik handiena adostasun politiko eta sozial eza izan da. Adostasunik ezean, beldur dira arazo handiak sor litezkeela erakuntzatik bertatik hasita, eta azken batean proiektuak ez du errentagarritasunik beraietzat. Gogoan izan dute BBV eta Iberdrolaren barne erabakietan Lemoiz eta Leizaranen gertatutakoa.

DANIEL UDALAITZ



La Casa del Café

— Juan Irujo, I. A. —
DONOSTIA



«Haurrek folklorea ez dute ikasten, ez ikastolan eta ez kontserbatorioan»

A

kordeoiaren mundutik etorrira, hainbat musika talde eta motatan barrena ibiliz, CD-ROMa den euskarri berria estreinatzerira iritsi da Joxan Goikoetxea. Aztarna zigilu berriaren 0 zenbakia berea da. Zurikeria gutxiko mutil gaztea da Joxan musikaria.



«Herri musika izan daiteke arte mota horretan pinturan surrealismoa dena». (Argazkia: Garaialde).

Zure azken lanean akordeoia baztertu egin duzu. Inork erabiltzen al du gaur tresna hori?

Egia esan, oso jende gutxi. Batu itzazu kontzertuetan, folk egiten edo ezteietan akordeoia jotzen dutenak, eta zenbat dira?

Zure ikasleei zer esaten diezu orduan?

Batetik, hori bakarrik ez diet irakasten. Egunero hiru otorduetan arrainzopa

ematea litzateke bestela. Egoeraren froga begien aurrean dago: inork ez duela akordeoia jotzen segitzen. Hemen bat baino gehiago dira munduko txapelketa irabazi dutenak: Balerdi, Furundarena, Castaño —Segovian irakasle dagoena—, horiez gain beste asko ibili dira Europatik... eta non daude gaur?

Ni ere ibili naiz lehiaketa horietan. Begiak irekitzen

lagundu dit ibilera horrek, eta egia esan teknika aldetik lantzerak behartu ere bai. Baina orduan nirekin aritutakoen arrastoa jarraitu dut, hemengoena, Frantzia edo Alemaniakoena. Eta inor ez da ageri. Orduan, zergatik dago akordeoia dagoen bezala? Akordeoijolerik ez dagoelako. Lehen mailako ehundaka pianista aurkituko duzu, baina akordeoia-ekin berrogeita hamar ur-

tetan kontzertuak ematen jarraitzen dutenak, hiruzpaila. Jendea kiskali egin da hausnartzeko ahalmena edukitzeko puntura iritsi aurretik.

Mundu guztiak txalotu du Arrasateko txapelketa. Eta akordeoiaren zirkuitua lehiaketetan datzala dirudi.

Hasteko, maila horretako lehiaketek jende helduagoarentzat izan behar dute.



«Nirekin aritutakoen arrastean inor ez da ageri eta, orduan, zergatik dago akordeoia dagoen bezala?

Akordeoi jolerik ez dagoelako. Jendea kiskali egin da, gazterik, hausnartzeko ahalmena edukitzeko puntura iritsi aurretik».

Biolin edo piano lehiaketak helduagoentzat dira, ez hamalau urtekoentzat. Neska-mutikoak kiskaltzen ari zara.

Egia esan, nire ikasleak ez dira horrelakoetan interesatzen. Guk, adibidez, euskal kanta zaharrak irakasten ditugu. Zeren eta orain gaztetxoek ez dakite «Pello-Joxepe» kantatzen. Lau kanta irakasten zaizkie eskolan. Eta ez ikastolan eta ez kontserbatorioan ikasten ez ba-

dute, non ikasi behar dute folklorea?

Trikitixaren munduan ere zure bidaiatxoa egin duzu.

Beti egon naiz musika herrikoitik gertu, etxeko giroagatik, ikastolako haurra izanik. Horretan zorte handia izan dut, musika eta dantza edoski ditut mutikotan. Aurreraxeago Tapia ezagutu nuen, bera eta Junkera gauza berrietan sartzen ari zirenean. Pepe Iantzi eta

Enrike Zelaiaren fandango eta arin-arin guztiak jo ditudala uste dut, eta akordeoi lehiaketan eromenean sartuta nengoenean ere beti aurkitzen nuen ordu erditxoa horretarako.

Trikitixa txapelketan aurkeztuta, agian ausartegia izan nintzen. Txapelketa iritsi zenean, Tapia eta Leturiak «kalean gora Euskadi, etxean erdaraz» dion pieza hori jo zuten, badaezpada ere; eta ni urrunxeago joan nintzen.

Trikitilarien pieza klasi-koak ere akordeoijoleek asmatuak dira, baina.

Trikitilarien erdian, armonia aldetik beste ikuspegi bat nuen, eta hala moldatu nuen han eskainitakoa. Baina egitura klasikoa zuten nire piezek. Epaileak ordea, disonantzia erdi bat entzun eta burura eraman zituen eskuak: «Gaizki egin du». Ez zuen galdetu «zer egin du?», ez baitzuen ulertzen. Pittin bat jazzaren koloreetara hurbiltzen ziren akorde batzuk ziren. Azkoitiko saioan azkena gelditu nintzen, baina ideia berriekin zetozen trikitilarietara laguntzen nien irudipena neukan.

Geroztik sortu zen trikitilari elkarteak ere.

Bai, Arrate irratan hasita bilera batzuk egin ziren, eta elkarte baten oinarriak jarri. Baina bertsolariak beren elkartearekin egin dutena ez dute lortu. Gure bileretan ez nuen ikusten helburu bat, ez modu bat. Ez da trikitilarien arazoa bakarrik, musikarien artean ere ez dugu lortzen zerbait serioa aurrera ateratzerik. Bertsolariak argi-goak izan dira.

Kalean gaur entzuten den akordeoi bakarra trikitixa dela esan daiteke.

Eta normala da. Gaur musi-

kak hemen betetzen duen funtzio bakarra «jiji-jaja» hori da. Herri honetan daukagun saltsa guztiaren gainetik, funtzionatzen duen bakarria hori da, eta akordeoiak ez du sekula alor hori bete. Zelaia bera oso serioa izan da. Iantzi eta horiek aspaldi galdu ziren. Trikitixak jai eta festa giro horretan bilatu du altxorra.

Dena dela, hasieran esan duzunera itzuliz, ez diot akordeoiari uko egin. Hurrengo diskoa akordeoi hutsez egin nahi nuke. Hori da ongien menperatzen dudana, eta horren bidez adierazten dut ongien nirea.

Aztertu dezagun pittin bat argitaratu duzun CD-ROM hau, gure artean musikari batek burutu duen lehen.

Begira, musika ez dut planteatzen bizimodua ateratzeko modu bezala. Ondo berezi nahi ditut irakasle lana, jateko ematen didana eta ongi zaintzen dudana, eta bestetik sormena. Sormenaren alorrean, beti interesatu zait irudia. «Libertango» aurkeztean ere erabili genuen, Metropoli egindako moldaketan... musika osagai deskribatzaile bezala erabiliztea, alegia.

CD-ROMa alde horretatik ideala da: musika duzu, irudia, bideoa, argazkia, eta guzti horrekin zerbait burutzeko posibilitatea. Hitzak ere sartu ditut lehenbiziko aldiz, kantak, kontakizunak sintetizatzen behar nuelako. CD-ROMa zenbaitek osagarri bezala ikusten du, baina ez dut uste zuzena denik; beste tresna bat da. Oraingo alukeria batzuk dituen: kantak ez dira oso rik entzuten, memoria aski ez dagoelako. Baina entzuleak ordenadorearen au-

«Trikitikari txapelketan, nire armaniak entzunda, epaileak eskuak burura eraman eraman zituen, eta azkena gelditu nintzen»

rean jarri behar du, eta irentsiko al du musikariaren txapa guztia? Behar bada oso gutxi.

Atal estetikoek gain osagai komertziala ere izango du euskarri hori aukeratzeak.

Egia da musika saltzea gero eta zailago dagoela. Sekulako butxadura nabari da, eta inora ez daraman bide batean lasterka goazela dirudi. Euskarri hori katalogo edo aurreko bidearen bildumatzat ez zait interesatzen —azken finean gaztea naiz oraindik—, nahiz eta informazio hori ere erosleari eskaintzen zaion. Munduan argitaratu diren CD-ROM asko erosi ditut, eta diru asko gastatu —garestiak baitira— eta era ezberdinetakoak ikusten dira. Bob Dylanek ez du berea ikusi ere egin, disketeak egin dio eta kitto. Peter Gabrielek guztiz kon-

bentzitura egin du, aldiz, euskarri horretan sinesten duelako, behar bat duelako. Musikariak sentimendu eta sentsazio asko jasotzen ditu, eta horiek beste osagai batzuekin onduta musikaren iragazkitik pasata eskaintzeko beharra hor dago.

Ea hori irakurleari hobeto esplikatzeko diozun.

Joan den egunean «Goazen lagun» hau Hernanin aurkeztu genuenean, Iñaki Eizmendi hurbildu zitzaidan. Esaten zuen halako sufrimendu bat somatzen zuela hitzetan eta musikan, seguruenik holako zerbait bizi izan dudalako. Egia dela erantzun nion. Bi urteko lana biltzen duen honetan egoera pertsonal bat dago erditik. Lana argitaratzea bera da egoera hori gainditzeko beste modu bat. Ez da publikoarekin konfesatzea, baina nire lanak hala kale-

ratu izan dira, sufrimenduak gainditzeko modu bezala. **Nostalgia, denbora, etsipena... hori da giroa.**

Estreina neronek egin nahi nituen hitzak ere, eta idatzi nituen. Baina oraindik ez nago horretarako prestatua; kantak Joserra Gartzia eta Xabier Amurizak berriatzi dituzte. Pavese, Lete, Tere Irastortza, Mikel Lasa eta abarren zatiak ere badaude. Argi berria, eguzki berria, ordu ilunak... Polita da frogatzea nola bat egiten duten duten gai horiek hainbeste jenderengan. Letek «*ordu ilunak*» aipatzen ditu eta Silvio Rodriguezek «*las horas que nunca brillan*». Horiek ilustratzeko Dali, Margritte, eta horien bidetik sortu ditugun irudi berriak.

Eta musika herrikoa. Musikariok zuen sormenarekin segurtasun faltaz aurkitzen zarete?

Hori baino gehiago, erantzunkizunagatik jo izan da herri musikara, galtzen ari

NORTASUN AGIRIA

Hernanin sortua da 1967an, eta bertan bizi da Krisekin ● Oso mutikotan hasi zen herriko bandan txistua jotzen eta hamaika urte zituela akordeioa ikasten ● Hernaniko musika eskolan irakaslea da hamaika urteotan ● Sei disko burutu ditu, 1988an plazaratu zuen «Lehen geltokian» hartatik hasita ● Antzerki obrentzako musika egin du eta filme baten banda egin nahiko luke ● Txomin Artola, Alan Griffin eta Josean Martin Zarkorekin batera Alboka taldeko partaidea da ● Joanmari Beltranekin elkarlaneko bigarren diskoari ekingo dio, «Egurraren orpotik dator»i jarraipena emateko ● Estudio txiki bat dauka, aita harotzak lantegia du pabiloi berean



«Musika ez dut
 planteatzen
 bizimodua
 ateratzeko
 modu bezala.
 Berezi nahi
 baititut irakasle
 lana, ogibidea,
 eta sormena»,
 dio
 Goikoetxeak.
 Argazkian,
 mutikotan
 Egañazpi
 pandero
 jolearekin.



den gauza hil ez zedin. Dena dela, funtzio hori gaudituta dago eta atea zabalik. Nik sinbolismoa landu nahi nuen, «Ametsaren bidea» lanean ere hortik jo nuen, eta herri musika primeran datorkit horretarako. Musika herrikoa izan daiteke pinturan surrealismoa dena.

Musika herrikoa, tradizionala edo dena delakoa, ez al da hori kultura periferikoek esportatzeko duten gai bakarra? Merkatu kontu bat.

Gaur egun bai. Orain «etnikoa» deitzen dena horixe da. Bakarrik batzuetan txukun lantzen dela herri baten altxorra eta beste batzuetan prostituitu egiten dela.

Hemengo jenderik ba al dago prostituituta?

Oraindik ez dut ikusten holarikorik, ez dakit maila horretaraino iritsi ezin garelako edo kontsiderazio moralengatik izango den.

Egia esan, zer esporta dezake Euskal Herriak? Herri musika eta rock borrokalaria esango genukeena.

Baina hori barneko mugimenduaren isla da, ez kanpotik erakargarri ikusten denarena. Hutsune handi bat dago. Ideia falta izugarria dago eta gazteak rock gogorrera eta *heavy*ra doaz. Hogeita hamar urtez goiti zabilzatenok paso egiten diozue denari, desliluratuta zaudete, eta atzetik datorrena bestea da: neska-mutikoen dena irensten dute.

Duela hamar-hamabost urte sentsibilitate gehiago zegoen. Baina inertzia batean erori gara. Gero kanpora irteten zara eta gustu pittin

batekin egindako kontzertu batean Sevillako Monumentala betetzen da. Edo Granadan, edo Cartagenan, edo Murtzian. Jendea berdin doa rock kontzertu batera, kontzertu klasiko batera edo jazzera, ez dizut musika etniko delakoa bakarrik aipatuko. Sentsibilitate falta handi bat dago hemen. Kostatzen da aldatzea.

Igoal gertatuko da musikariek ere zeresan berri gutxi daukazuela.

Baliteke. Har ezazu Oskorri bat: gauzak egiteko modu bat badu eta beste urte askotan segi dezake formula horrekin. Zoaz Madrila eta hori da euskal folkean dagoen gauzarik progresiboenena. Bere formularen perpe-

tuazioa da, eta komunikabide guztietatik inbutuz sartu nahi zaigu. Ni ez naiz gauzak perpetuatzearen aldekoa, eta horregatik ez dut bialdiz gauza bera egiten, ikastea beharrezkoa zait. Benito Lertxundi berari ikusten zaio eboluzionatzeko nahi bat; beste gauza bat da adin bat izatea, eta jendeak ere kantaldietan beti aurreko gauzak eskatzea. Baina ahalegina hor dago.

Kanpoko merkatua aipatzen duzu behin eta berriro. Hori ere Madrildik kontrolatzen al da?

Dudarik gabe Radio Nacional de Españako Ramon Trecet-en esku dago % 85 disko batek funtzionatzea edo ez. Kepa Junkera begi onetik sartu zaio Treceti, eta hori du ondoko bost urteetan funtzionatzeko bermea. Askok beren produktuak Trecetengan pentsatuz egingo dituzte. Nik ez dut

«Hogeita hamar urtetik gorakoek paso egiten diozue denari, desliluratuta, eta neska-mutikoen dena irensten dute»

«**Estudioan
gezur bat
konposatzen duzu;
gezur hori ahalik
eta elaboratuena
izatea nahi dut,
gero sinesgarria
izan dadin»**

beragan pentsatu, baina nik ere kanpoko merkatuari erraztu nahi dizkiot gauzak, hitzak ingelesez ipiniz eta beste. Euskal Herrian klanek funtzionatzen dute, eta bakoitza bere aldetik doa. Politikan bezala. Gehiago ikusten dugu bereizten gaituena lotzen gaituena baino.

Trecet Espainian jainkoa da musika berriak, beste musikak edo *new age* deitzen den horretan. Hori zirkuituetan ere ageri da: musika mota horientzako hiri mordoska batez osatutako sarea dago. Euskal Herrian ere bere adarrak baditu, hor dago Arpafolk, Euskadi Irratian ere zerbait bada, baina indar gutxiagorekin. Egia esan, produktu gutxi daude hemen Trecetek kontrolatzeko modukoak.

Euskal Herriko zirkuituak ongi ezagutzen dituzu...

Gaztetxeen eta inguruko mugimendua dago batetik. Niri ondo iruditzen zait nahi duten musika programatzea, baina «funtzionatzen duena» aipatzen hasi eta «ona» edo «txarra» zer den erabakitzea pasa dira, zer den erakargarria eta zer aspergarria. Eta tristea da burubide hori. Institutuzioen zirkuituak daude bestetik, bi urtez behin aldatzen direnak, bakoitza bere lagunekin. Ni ezin naiz kexatu, badira ni baino askoz okerrago



«Radio Nacional de Españako Ramon Trecet-en esku dago %85ean disko batek funtzionatzea edo ez. Kepa Junkera begi onetik sartu zaio Treceti, eta hori du ondoko bost urteetan funtzionatzeko bermea».
(Argazkia: Garikoitz Garaialde)

tratatuak izan direnak. Baina kultura osoa dago dirulaguntzen lerroan. Begira antzezleei eta besteei.

Entzulearengana iristeko beste biderik?

Alan Griffin-eta Donostiako ostatu batean ari dira jotzen. Guk ere, Alboka osatzen dugun taldean, datorren urte osoan hori egiteko asmoa dugu: astero taberna batean jo. Folk musika dantza eta festari lotuta dabil. Ostatuetakoa da beste bidea, Europan oso erabilia.

Sorkuntza gero eta disiplinartekoagoa da. Eta laborategikoa.

Niri behintzat hala interesatzen zait. Gauzak bere iza-

kera garbian interesatzen zait hartzea, baina egunero irensten duguna era anitzetan iristen zaigu. Sortzea ere berdin egitea iruditzen zait logikoena. Oraintxe bertan letra bat hartu eta kanta bat osatzea ez zait interesatzen.

Estudioko lana nahiago dut zuzeneko baino. Estudioan azkenean gezur bat eraikitzen duzu, konposatzen, grabatzen. Gezur hori ahalik eta konplexuen eta elaboratuena izatea interesatzen zait, gero sinesgarria izan dadin. Horretan da oso polita surrealismoa.

Sorkuntzak gero eta garestiagoa dirudi.

Egia da. Bi urteotan orain

argitaratu duguna kontrolatu nahian urrats asko egin dugu alferrik. Nire orduak kontatu gabe, lagunaren orduak daude. Eta lagun horiek altxor bat dira. Loteria bat ere bada, zirkulu batean mugitzea eta lagun on bartzuk edukitzea. Sortzea garestia da, ez dut hortik bizi-tzeko asmorik. Ez dut esango gizadiari sekulako etekina eskaintzen ari naizela, baina nire lanean erantzunkizunez jokatu nahi dut. Kultur munduan mugitzen garen edo zaretan beste bartzuen artean sentitzen naiz horretan.

PELLO ZUBIRIA

Liburu eta diskoen uholdea eta gero

URAK gainezka datoz. Liburu eta diskoen uholdeak Durango harrapatu zuen pasa den asteburuan. Bertako kultur kudeatzaileek, hainbesteko jarioa ikusita, azoka berriko presara bideratu zituzten urak, karpa handi baten azpian bere onera etorriko zirelakoan. Izan ere, gauza jakina zen uholdeak ehundaka disko eta liburu isuriko zituela karpapera, bertako zoko guztiak testu eta doinuez blaituz. Hara inguratutakoek aipatu dutenez, urte osoan ez dute halako kultur-eguratsik ezagutu. Bazter-bazterretik ibilita ere, oinak bustita itzuli dira gehientsuenak etxera, oparitxo bat edo beste erosita; eta gehixeago ausartu direnak berriz, kultur-uholdearen erdian igerian ondo dakitenek alegia, boltsak gainezka eta eztabaida sutsutan amildurik amaitu zuten asteburua. Korronte biziko urak bildu dira azoka berrian, eta korronte horien joan etorrian sortutako zurrunbiloak gogor astindu ditu azoka


beraren ormak, nahiz eta enbata latzenak –ostiral eta igandekoak– aurreko urteetan baino jasangarriagoak gertatu diren, jende eta *stand* bolumenak neur-tuz egindako kalkuluak zuzenak zirela azalduz. Ordea, aurtengo soluzioak ez du datorrenerako balio. Behin-behineko egoitzaren zurrunbiloan biraka jarraitzen du Durangoko Azokak, urtetik urtera gero eta haziagoak datozen kulturaren urak behin betiko nola bideratu jakin gabe.

INOIZ baino txalupa handi eta txiki gehiago hurbildu da Durangoko ur handiotara, sotoak gainezka zituztela. Karga ustuta itzuliko ziren asko, merkantzia prezio onean saldu eta arin-arin. Guztiek izan dute baina, idazle eta musika talde hasi berriek nola arrakastatsuenek nahiz isil-isilean dabilzanek, kulturaren itsas zabalean bititako azken abenturak zaletu eta ingurura bildutako festazale

ugariren aurrean haizatzeko aukera. Bernardo Atxagak kasu, INPAC nazioarteko sarirako hautagai izendatu duten honetan, adierazpen deigarriak egin ditu bere obraren garapena azaltzeko orduan: «*Hurrengo eleberria euskaraz idatziko dut aurrenekoz, gero erdaratu egingo dut eta, azkenik, berriro idatziko dut itzulpenetik sortutako bariazioak aintzat hartuz*». Argi dago, ezta? Ramon

Urtean osoko kultur errekaetoetan ez da noski, egunotako korronte bizien aztarna handirik izango; bere indarrak erakutsi ondoren, bare jarraituko du kultur gintzak

Finlandiarren eskola nagusi geratu da asteburu honetan jokatu den Arrasateko IV. Akordeoi Lehiaketan, Janne Rattya eta Mika Vayrynen-en eskutik. Hirugarren lekua Iñigo Aizpeoleak jaso du, guztira 38 parte hartzailearen artean burutu den norgehiagokan. Nazioarteko epaimahaiaik goi mailako lehiaketa izan dela azpimarratu du eta munduko onenen artean kokatu du. J.M. Pemanen argazkian Janne Rattya «Urrezko Erensugea»-ren irabazlea ageri da.



Zeru eta infernuak

Saizarbitoriak egun aitortzen ez zaion estatusa eskatu du idazlearentzat, hainbeste denbora isilik egon eta gero, luma jori-jori astintzeko prest dagoela eta, goiko mastara igoz. Hauek gehi Joan Mari Irigoien, Patxi Zabaleta... Durangoko salmenta-korronteak ondo menderatzen dituzten idazleak direla erakutsi dute, beste behin ere. Musika alorrean, Negu Gorriak taldeak -azkenekoz-, Benito Lertxundi eta Kepa Junkerak aurrea erakutsi die bestelako doinu eta joerez agertu direnei. Kulturak hala ere, iturburu askotatik datozen urak jasotzen ditu bere baitan, eta gauzak honela, sukaldaritzan edo mendi ibileraren inguruko liburu, urtekari, egutegi eta beste hainbat produkturekin zamatutako untzien brankak ondotoxo ibiliko ziren Durangon; azokako uretan murgiltzen denak ez duela, alegia, urpean bukatzeko arriskurik, eta bakoitza bere sakoneran arrantzan egoki egiteko modua aurkitzen duela.

Durango gainezka egin duten urak betiko jatorria itzuliko dira behin azokaren ate handitik kanpora isuria egokituta ondoren. Urte osoko kultur errekastotan ez da noski, egunotako korronte bizen aztarna handirik izango; bat-batean bere indar guztiak erakutsi eta, kultur ekoizpenak bare-bare jarraituko du, eta eta gu berriz, bazterretik begira, hurrengo liburu edo diskoak urte osoa irauten duen lozorrotik aska gaitzan arte.


EUSKARAZKO antzerkigintzak, eremu oso mugatua bada ere, igerian egin dezan nahikoa ur bildu ezinik dabilta Azpeitian. Aurreko formula, obrak bertan estreinatuzko laguntzak zuzentzearena, hondoa jotzekotan dela antzematen da, eta bestalde, talde amateurrek protesta luzatu dute eurekiko jarrera kaskarra azpimarratuz. Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetan apenas erakusten da oihala goraino jasotzeko indarrik, eta behin jasotzen hasita lehorte koloreko paisaia azpimarra daiteke eszenarioaren erdian. Egundak biltzen duen interesa eta euskarazko antzerkigintzari egiten dion mesedea zalantzan jartzeko modukoak dira, bederen. Konponbideak, berriz... Gidoi berria asmatu behar.

J.J. PETRIKORENA

GEURERATU ezinik gabiltzanak eta geureratzen ditugunak hartu ditu hizpide Iñigo Aranbarrik «Jakin» aldizkariaren azken alean. Euskal Parnasora sartu nahi ditugunak, erdaraz jardunagatik ere euskal herritarrek direlako. Barojari Zestoan egin zitzaion omaldiaren harira, Unamuno, Samaniego eta abarren aldarrikapena ere egin behar ote dugun galdezka. Areago, «beren artea frankismoaren banderapean jarri zuten» Zuloaga eta Telleria aitatu ditu, baita Jose Artetxe ere. «Cara al sol-en egilea, seguruenik, buruan zuen.

Begirunerik gabeko kultura dela, esaten du, ospakizunen triptikoetatik bultzatzen dena. Euskalduntasunaz ari da Aranberri edo, zehatzago formulatuta, espainolotasunaz. Gure espainolotasunak ematen baitigu gure euskalduntasunaren neurria.

GAIA polita da. Unibertsala eta partikularraren arteko borroka eternalaren *round* berrizat joko dute askok, unibertsal zaleek batez ere. Bi kontzeptuon arteko harremana dialektikoa izanik, gairi litekeela esaten dute bestetuek, tesi bila segitzen duten partikular zaleek gehienbat. Liskar intelektualerako, hona gaia: Madrilen Francisco Iturrinoren antologia zabaldu da. «Pintore bizkaitarra jaiotzez kantabriarra» dio entziklopediak. Euskal abangoardistetan europarrenetakoa, Parisen bizi eta lan egin zuen. Aurreratuegia euskal begintzat? Euskal Artisten Elkarteko kide eta elkartearen erakusketetan parte hartua, Picassorekin batera erakusketak egin eta Matisserekin bidaiatu zen Andaluzia eta Marokon bere estetika eta irudien bila: argia, argi 'mediterraniarra' esaten zioten. Ijitu eta *manolak* bere koadroen protagonista; estetika ez zuen oso *euskaroa*.



MIKEL ELORTZA

BAZKARAKO asko dira belar klaseak. Euskalduntasunaz, espainolotasunaz eztabaidatzeko aukera ederra, areago hizkuntza tresna ez duen diziplina batean. Has gaitezen, Bilbora dator gero erakusketa.


Menestran nire berdura jarri gabe ez nuke amaitu (hasi) nahi. Espainolotasuna gai nagusia izanik, besterik du garrantzitsu Aranberrirenak. Etikaz ari da, baloreez. Memoriaz; gauza larregi ahanzten ari baitzaigu. Errukiaren tankera duen kontsentsuaren izenean-edo, denak on -geure- bihurtzen ditugu. Eta ni ez nago ados. Santuak Elizak egiten ditu; nik lagunago ditut deabruak. Azken batean, santuen arropak garbituz ez dugu zerurik irabaziko.

TXUTXU - MUTXUKA


ALDIZKARIEN DIRUEK BEHERA EGIN DUTE AURTEN

EUSKO Jaurlaritzatik zabaldu den informazioaren arabera, aldizkarigintzarako partidak % 15eko beherakada izango du aurten. Aldizkariak 1996ko aurrekontuari dagozkion diruak jasotzeko dituzte oraindik, eta zenbat jasoko duten ere jakin gabe dabilta. Honekin batera, urtean lau ale baino gutxiago kaleratzen dituztenek (Egan, Bat eta Hegats, adibidez) ez dute pezeta bat bera ere jasoko. Honi guztiari datorren urteari begira euskal prentsaren diruak zaku bakarrean biltzeko hartu den erabakia gehitzen badiogu, sosak behera egitearekin batera kezka gora egin duela antzeman daiteke idatzizko komunikabideen alorrean.


NOR - NORI - NOR K

**LUIS ALBERTO ARANBERRI**

«Amatiño» izan da Becerro de Bengoa saiakera sariaren irabazlea, euskarazko alorrean, idazleek komunikabideekin izan ohi dituzten harremanez diharduen «Intelektualak, telebista eta multimedia» lanari esker. Soilik bi saiakera aurkeztu ziren lehiaketara. 18 urteko Urtzi Urrutikoetxeak jaso du bestalde, Ernestina de Champourcin poesia saria, «Gaur ere ez du atertuko» obrarekin ●

**JESUS MARI LAZKANORI**

149 koadro eskegi dizkiote Bilboko Windsor galerian. «Oroimenekoak» izenburupean, etxeko leihotik ikusten duen Urdaibaiko paisaia erretratatu du pintore bergararrak. Pintura «ezagutzarako erraminta» moduan ulertzen duenez, irudion bitartez «errealitatea jasotzeko daukagun modua» aztertu nahi izan duela adierazi du Lazkanok. Urtarrilaren 11 bitartean izango dira ikusgai ●

**ARITZ LOPATEGIK**

irabazi zuen Araba eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Abadiñoko finalurrean, Arkaitz Ugartetxearen aurretik. Saio bakarra geratzen da beraz, abenduaren 22an Arriagan jokatu den finalekoa, txapelketari amaiera emateko, eta bertan, Lopategiz gain, Unai Iturriaga, Jon Enbeita, Asier Otamendi, Arkaitz Ugartetxea, Mañukorta, Juanjo Respaldiza eta Igor Elortza izango dira txapelaren bila ●

TEILAK

■ BIDEA... ABENTURA ZENEAN

ZUMALAKARREGI Museoak «Dilijentzia: bidea... abentura zenean» deitu erakusketa ibiltaria prestatu du, museoaren eta bere historiaren zabalkuntzari begira. Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean emango zaio hasiera egitasmoari, abenduaren 18an, Bernardo Atxagak okasiorako propio idatzitako ipuina ardatz gisa harturik. Ipuinaren hariari jarraikiz, Zumalakarregi museoan dilijentzien munduaren inguruan bildurik dituzten XIX. mendeko testu eta irudi anitz aurkeztuko dituzte antolatzailleek, beti ere modu ludikoan, horretarako irakurketa eta irudien ikusketa gunea, katalogoa, taldeka erabiltzeko maleta didaktikoa eta gaiari buruzko ikus-entzunezkoen emanaldiak baliatuz. Batik bat ikasleei zuzendua izango da eta 1997ko urtarrilaren 7tik 15a bitartean bisitaldi gidatuak eskainiko dira. Irizar Elkarte Kooperatiba eta Irungo Udalaren babesa jaso du erakusketak.

■ «HITZA ETA EKINTZA» PLAZARA

GAZTE mugimenduaren komunikazio tresna izan nahi duen «Hitza eta ekintza» aldizkariak lehen alea plazaratu du, komunikabideen inguruko dossier zabala eskainiz. Harpidetza bitartez egingo da banaketa, eta aldizkariak gain, sare telematikoaren bitarteko eskaintza eta herriz herri «Hitza eta ekintza» taldeak antolatzen ari dira.

Patziku Perurenak Leitzako ahozko tradizioa hartu du gaitzat «Errege-erreginak» liburuan

«Sekulako beldurra dago arbola genealogikoan atzera egiteko»

Goizuetan sortua, baina dagoeneko oso leizartuta dago Patziku Perurena. Txikitan ere Leitzako kontuak entzuten omen zituen zaharregandik, eta herriaren ezagupen horren adierazpide anitz eman ditu gainera. Azkena, «Errege-erreginak» liburua. Bertan, Leitzaldeko ahozko tradizioa, ahal izan duen guzti-guztia, bildu du.

Zergatik «Errege-erreginak» izen hori? Nondik beldu da?

Ni Goizuetan Karreto izeneko baserri batean jaioa naiz eta handik 200 bat metrotara Artantxu izeneko etxea zegoen. Bertan bizi ziren Leitzako ahozko tradizioan sekulako garrantzia izan duten aitona-amonak: Joan Sestau, izengoitiz «Erregea» deitzen ziotena, eta bere emaztea, Francisca Zabaleta. Haien Leitzako kontuak aditzen txoratuta egoten nintzen. Lana bukatzean haiei omenaldia egitea pentsatu nuen. Hori, hala ere, lehenengo haria izango litzateke. Beste esplikazio bat ere badago: Gure gura-

soek eta aitona-amonak bertako kulturari, ahoz-belarri-ra jaso duten kultura izugarri horri, ez diote batere apreziorik, miserableen kultura bezala ikusten dute. Horri buelta emateko «Errege-erreginak» deitzen diet omenaldi gisa. Bestalde, oro har, baserritasunak erregetasun horrekin, lustrearekin, deus ikusirik ez duela iruditzen zaigu, eta alderdi ironiko bat ere eman nahi izan diot izenburuari.

Abozko tradizioa beraz, baur koskorra zinenetik jaso duzu, ezta?

Bai, oraingo kultura papelean edo iruditan ikusten dena da, baina nik beti izan dut bihotzean bertatik ber-




Patziku Perurenak dioenez, euskal literaturan, eta soziologian oro har, konplexuz beteta aritu gara. (A.: Leire Arzuaga).

tarako literatura. Edozein gertakari geografian bertan ikasi dut, *in situ*, heriotza

baten istorioa dela edo beste. Gertakariok imajinazioa zabaltzeko aukera ematen

«Bereikuntza hori, kultura jantzia eta ez jantziaren artekoa, gezurra da. Nik garbi ikusten dut partikulartasunak beti indarra izango duela, unibertsaltasunera iristeko partikulartasunetik abiatu beharra dagoela». (A.: Leire Arzuaga).



dute, errealitateak ez du imajinazioa mugatzen. Gezurra da hori.

Esandakoa esanda ere, abozko kultura beti gutxietsia izan da.

Hor ditugu elizak ekarri duen oratoria batetik, eta modernitatearen inguruko teorizazio guztia bestetik, Freud eta Marx moduko bi teorizatzaile handien eskutik. Garbi ikusi da gizartean Marxen teorizazioak porrot egin duela. Orain gizonaren psikologiaren inguruko objektibismo teorikoak sekulako indarra bereganatu du eta ez zait batere gustatzen. Hori utzi egin behar da. Ni eszeptikoa naiz, gauza xume eta hurbilekoen aldekoa. Ikuspegiarena da kontua. Literaturan ere berdin: Arestiren ideiak ere literatura mundu ofizialera eraman behar hori... Literaturarekin deus ikusteko gutxi du ofizialtasun horrek. Ongi dago euskara ofizialtasun horre-

tara eramatea, baina hizkuntzaren literaltasuna da egunero berritzen dena eta eguneroko errejistroak eta eguneroko afektiboak libertate oso batean sortzen dituena.

Euskal literatura bide okerretik jorratzen ari dela diozu?

Euskal literaturan, eta soziologian oro har, konplexuz beteta aritu gara. Atzetik ibili garela iruditzen zaigu. Nahi eta nahiez munduan egiten diren literatura mota guzti horiek eduki beharra azpimarratu da. Beharbada munduan egiten den literatura ergelkeria da eta jenero guztiak ez dute zertan sartu beharrik gurean. Euskaldunari, esaterako, jenero beltza ez bazaio gustatzen, zergatik euskaratu behar dugu?

«Beharbada munduan egiten den literatura ergelkeria da eta jenero guztiak ez dute zertan sartu beharrik gurean»

Norentzat? Hemengo eleberririk askoz ere xumeagoa eta bertatik bertarako gustorago irakurtzen badugu, zergatik aritu horrelako buruhausteetan? Denborak esango du. Baina nire liburu hau kasu, ez dut literatur moduan egin, ingurua ezagutzeko baizik, eta ikaragarri libretitu naiz, jendea ezagutu dut... Saio bat da.

Ez al dizute sarri atzerakoia zarela leporatu?

Hori saldu egiten da. Gaurkotetasunak edo aktualitateak izugarritzko garrantzia du, eta nik ez dakit zer den gaurkotetasuna zuzen esateko. Ez dakidan bezala zer den euskalduntasun purua. Ni atzo bertan sortutako poema batekin txoratzen naiz, edo duela 800 urte idatzitako ba-

tekin. Norberak osatzen du bere aktualitatea. Merkatuan ordea, gaurkoak, modernoak funtzionatzen du. Pertsona guztiak hala ere, badiuzte errejistro berdin batzuk, ez hirian, ez baserrian, ez inon aldatzen ez direnak. Hori da gizartean eta literaturan balio duena.

«Errege-erreginak» ez ote da lan txikia? Ez al duzu poesia eta narrazio literarioa alde batera utzi?

Bereikuntza hori, kultura jantzia eta ez jantziaren artekoa, gezurra da. Nik garbi ikusten dut partikulartasunak beti indarra izango duela, unibertsaltasunera iristeko partikulartasunetik abiatu beharra dagoela. Teoria honek edozein toki, teknika eta giro sozialetan funtzionatzen du. Mundu guztiak esango dizu: New Yorken kokatzen den eleberririk bat unibertsala da. Nueva Yorken ordea, kale eta taberna konkretu batzuk izango di-

tu, eta ni Nueva Yorkeko eleberri bat irakurtzen ari naizela leku horiek ezagutzen ez baditut apartekoak egingo zaizkit.

Liburu honi dagokionez, egin dudan beste edozein bezain zoragarria da. Besteak hainbeste balio du.

Leitzak beste herri batzuk baino abozko tradizio aberatsagoa al du?

Ni Goizuetan jaio naiz eta pixka bat konpara dezaket. Goizuetarra, adibidez, beti esan da lotsagabe sanao dela, gauzak garbi botako dituen. Leitzakoa, berriz, zukurragoa da, arranditsua, badu hutsetik sortzen den harrotasun hori. Leitzak baina, berez, ez du deus ere, asko hitzegin dela bere gainean. Leitza bezain aberatsa da beste edozein herri. Propagandak leitzarren harrotasuna tartean dela, agian eman dio izena.

«Euskaldun petoa hitzun motza izan da; hitzaren grazia nabaritzen den familietan ikusi dut ez dela oso bertako jendea»

Liburua osatzerakoan bainbat jenderekin kontsulta egiten ibili zara. Zer nolakoa izan da jaso duzun barrera?

Nik gauza bat ikusi dut: eskulako beldurra dago arbola genealogikoan atzera egiteko. Hori gai delikatu da, arraza dela eta arrazismoaren inguruko. Nik somatzen dut ahozko tradizioan euskaldun petoa hitzun motza izan dela. Hitzaren grazia nabaritzen den familia horietan ikusi dut ez dela oso bertako jendea. Agian, galdu dena ijito kastako jendea da, edo agote eta judu kastakoa. Ezin dut garbi esan, baina hori nabaritzen dut. Nire familia beragatik

ere esan dezaket: seguraski Perurenatarrak ijito edo agote kastakoak izango ziren. Ikusi dut, kasu batzuetan, hori onartzea ohore gutzia galtzea dela.

Abozko tradizio gisa ezagutzen dena beraz, ez dugu euskaldun petoarena?

Euskaltasuna baserrietan loratu dela aipatzen da behin eta berriz, esate baterako. Baserriak herriko etxe batenak ziren, legeak hala markatzen zuen, eta oro har, inguruko burdinoletan eta lanean aritu zen jendea, jende kriptikoa, beste kasta batekoa, kanpotik etorria zena, burdinolak bukatzean baserrietan sartu zen. Ho-

nen inguruan, kriptologia-ren inguruan, lan bat egiteko asmoa dut. Sorginak ere zer ziren? Non azaltzen ziren? Beti herritik aparteko herri zahar batetan, edo kobazuloetan. Eta non bizi ziren, izan ere, integratu gabeko jende horiek? Ederki ikusten da, arrazismoa sortu ahala, kasta izkutatzen saiatu izan dela beti. Dokumentazio eskasa dago, eta dagoena hori estaltzeko osatu da. «Errege-erreginak» egiterakoan zenbait familiak horrelako kontuez deus ere aditu nahi ez zutela esan zidaten. Nik uste dut, Arana eta horien kontuak, zortzi deituzena eta, hori disimulatzeako kontuak direla. Gainera, jendeak uste du ijito kastakoak Jimenez, Garzia... deiturikoak direla, eta ez du deus ikustekorik.

XABIER CARRILLO

«EIZU» ren harpidedun izan nahi dut!

Izen abizenak.....

Helbidea.....

Tnoa..... P.K.....

Herria.....

Herrialdea.....

Bankua.....

Sukurtsal zk.....

Kontu zk.....

Urtebeteko harpidetza: Hego Euskal Herria eta Estatuak: 6.500 pta. Ipar Euskal Herria eta atzerria: 11.500 pta.

Diputazio kalea, 3 - 1.
40009 Bilbo - Tel. (94) 423 15 52

DOSTAIZU!

Jolas bilduma

Ipuin bilduma

Eskuratu lehenbailehen!

Euskerazaintzak 18 urte daramatza euskara batuaren nagusitasunari aurre eginez

Galdutako gerran borrokan

Denboraren aurka ari dira, baina, arrazoia eta herria beraiekin daudelako uste sendoan, ez dute amore eman nahi. Batek baino gehiagok, euskara batuaren ordua markatzen duen erlojua eskumuturrean ez dutenez, oker dabilzala esango du. Berdin da: Euskarazaintzak berean darrai, Euskaltzaindiaren konpasean ari diren orratzak gelditu nahian, orratz hauek euskara galbidean jarri dutela uste dutelako.

GAZTEEK ekartzen dizkiote erakunde bati bizitasuna eta garai berrietara egokitzeko beharrezkoa duen aldaketa gogoia. Hala diote; eta Euskerazaintzak ez ditu ez soberan gazteak. Gaur egun, hamabi lagunek osatzen dute Euskarazaintzaren ba-

tzorde nagusia: gehienak adinekoak dira eta lau gazte baino ez daude bertan. «*Bai, gazte gutxi dugu*», dio Martin Olazar Euskerazaintzako lehendakari eta Mungiako apaizak, arazoaz oharturik, «*baina, jarraitu, jarraipena izango dugula uste dut,*

edozein erakundek ezer egin gabe ere urte luzez irautea erraza delako, eta gureak lan asko egiten du: argitalpenak, ekitaldiak...».

Euskerazaintza 1978an hasi zen bere lehen urratsak ematen, euskara batuaren ibilbidea aztertzeke Euskal-

tzaindiak Bergaran deitu zuen batzarrean: batuaren aurka zeuden zenbait euskaltzainen proposamenak onartu ez zirela eta, talde horrek beste bidetik jo eta Euskerazaintza Euskeraren Erri Akademia sortzea erabaki zuen. Erakunde berriaren lehendabiziko agerpena 1979ko urtarrilaren 27an egin zen Eibarren.

Batua, euskararen kaltea

EUSKARA batuaren aurka azaltzeko bi arrazoi ematen ditu Euskerazaintzak. Alde batetik, batua ez dela herrikoia, seme-alabek euren gurasoekin hitz egiteko baliagarri ez dela eta honek hondamendira daramala euskara. Bestetik, egungo batasuna egiteko erabakia, Euskaltzaindiak 1968an hartu zuena, erabat politikoa izan zela.

«*Gure herrietan, Bizkaian batez ere, umeek eta gazteek erdaraz egiten dute ikastolatik kanpora, han ikasten duten euskara kallean eta etxean erabiltzeaz lotsatu egiten direlako; familia askotan gurasoek euskaraz egiten diete seme-alabei, eta hauek, berriz,*

Gizarteari zabaldu nahia eta diru arazoak

EUSKALKIAK eta bere ideiak zabaltzeko helburuz, Euskerazaintzak hainbat argitaralpen kale-ratu ohi du. Aldizkarien artean, «Saski Naski», «Euskerazaintza» eta Euskalza-leak taldearekin batera egiten duen «Zer» aipa daitezke. Aldizkari hauen hedapena murriztu da: «Euskerazaintza» hiruhilabetekariak, esaterako, 700 ale besterik ez ditu banatzen. Honekin batera, li-

buruak ere argitaratzen dituzte, baita zenbait poesia sari eta omenaldi antolatu ere.

Erakunde honen diru sarrerak ez dira batere handiak: Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioek ematen dituzten diru laguntzei eta argitalpenen salmentei esker bizi da Euskerazaintza, hauek nahikoa ez bazaizkio ere.

Erakunde hau zuzentzen duen batzordeko ki-

deen profila hau izan liteke: apaiza, gipuzkoarra, eta adinekoa. Idazleak ere ez dira falta, egungo euskal literaturgintzarekin, berriz, harreman gutxi dutenak: Bixente Latiegi, Manu Oñatibia, Jose Maria San Sebastian «Latxaga», Augustin Zubikarai... Batzorde hau hilean behin biltzen da, eta bertan erabakitzen dira Euskerazaintzaren eginbeharraren ardatz nagusiak.



Olazar: «Herria gurekin dago: Latiegik egindako ikerketak erakusten duenez, egunkarietako ia eskela guztiak euskalkiez daude idatzita».

erdaraz erantzun, gura-soekin herrikoa ez den bizkutzaz hitz egitea egokia ez dela ulertzen dutelako. Honela bada, euskara atzerakada», iritzi dio Martin Olazarrek.

Honekin batera, Euskerazaintzako kideek euskararen batasuna ezkerreko eta ETaren inguruko taldeek bultzatu zutela ere pentsatzen dute. Euren esanetan, sektore hauek, EAJtik bereizteko asmoz, «*h' eta euskara batuaren aldeko apostua egin zuten, Sabino Arana bi bauen kontrako zelako*». Olazarrek gainera-

tzen duenez. «*H'a 'eta' modura aboskatzen da grekeran... 'h' euskal iraultzaren ikur plastikoa dela idatzita dago*».

Euskalkien alde

HALA eta guztiz ere, Euskerazaintza ez dago euskara batzearen aurka; batua ez dela beharrezkoa uste dute, baina begi onez ikusten ez dutena, batez ere, batasun hori egiteko era da: «*Euskara batua egitekotan, berez etorriko da, ez lau lagunek, mabai baten inguruan bilduta hartzen duten erabakiaren ondorioz; hori eus-*

kara manipulatzeara da», dio. Euskaldunok arazorik gabe elkar ulertzeko bidea norberak bere euskalkia ondo ikastea omen da: «*Bakoitzak bere euskalkia ondo jakinez gero, beste guztiak ulertzea erraza izango litzateke; nik bizkaiera behar den bezala ikasten badut, gipuzkera eta lapurtera erraz ulertuko ditut, eta, apur bat zailago, zuberera*».

Martin Olazarrek ez du uste garai berrien aurka doazenik: «*Hizkuntzak modernitatearekin batera aldoaz? Euskarak hitz modernoak behar ditu, bai, baina, berez, tradizioa da. Dena dela, zer da modernoagoa, beharrezkoa ez den 'h'a kentzea ala gordetzea? Italian, esaterako, kendu egin dute berriki... Gainera,*

kontuan hartu behar da berria gurekin dagoela; Bixente Latiegik egindako ikerketak argi erakusten duenez, egunkarietan azaltzen diren ia eskela guztiak euskalkiez daude idatzita».

Euskara batua bizitzaren arlo guztietara hedatzen ari den honetan, Euskerazaintzak itsu-itsuan eusten dio bere borrokari, aspaldian galdutako gerra batean arituko balitz bezala; borrokatu behar, ordea, Martin Olazarrek dioenez, euskararen beraren biziraupena jokoan baitago gatazka honetan: «*Euskalkiak galtzen badira -eta galtzen ari dira- berriak ez du euskara batuaz hitz egingo; arinago egingo du erdaraz*».


**«Euskalkiak galtzen badira, herriak euskaraz egin ordez erdaraz egingo du»
MARTIN OLAZAR**

ANDER USABIAGA

Provisional Danza taldeak zabaldu du La Fundicion aretoko Dantza Hilabetea

Dantza eta antzerkiaren fundizioa

La Fundicion elkarteak areto berria zabaldu du Bilbon eta Dantza Hilabeteari heldu dio. Abenduan zehar, antzerkia eta dantza uztartzen dituen hitzik gabeko espresibide garaikidea izango da bertan nagusi.



Abenduan zehar dantza eta antzerkia uztartzen dituzten lanei egin zaie tartera La Fundicion aretoan.

EMAKUMEZKOEK kandelak pizten dituzte areto iluna argiztatzeko. Biolin hotsa, ispiluak eta mahai-kaiola batek osatzen dute eszenatokia. Gizonezkoak bortizki agertzen dira, ispiluak kolpatuz. Musika aldatzen da. Azkenean, emakumezkoak gerritik gora biluzik agertzen dira. Provisional Danza taldeak Bertolt Brecht-en «Madre Coraje» liburuan oinarritu du muntaia, La Fundicion aretoaren Dantza Hi-

labeteari hasiera emanez. Carmen Werner taldeko kideak dioenez, «Brecht-en liburua irakurri eta berehala bururatu zitzaidan 13. kapitulua dantzara ekartzeko modua». Lau emakumezko eta lau gizonezko osatzen dute muntaia. «Emakume eta gizonezkoen barreman latz eta hainbatetan bortitzean oinarritzen den lan honek kaleko zein intimi-

tate giroko bortxa kontuak ditu oinarri. Askotan gogor eta desatsegina izan daiteke eta modu honetan lortzen du nabitaetzko espresibide desberdina, errelitateari lotua, zuzena eta zehatza».

Aurpegiz aldatzeko garaia

LUKE Taguak, La Fundicion elkarteko arduradunak esan digunez, «10 urte daramagu

plataforma hau eramanez eta aurpegiz aldatzeko garaia heldu zaigu». Elkarte pribatua izanik, dantzaren inguruan sortu zen plataforma honek beste alternatiba batzuk ere barneratzen ditu egun eta ohizkoak dituzten erakusketa eta antzerkia ezezik opereta txikiak ere ekarriko dituzte areto berri- ra. «Datorren urterako Per-golesiren 'La Serva Padrona'

« Hainbat areto elkarrekin egiten ari garen lanari esker antzoki handien sare alternatiboa bilakatu gara»
LUKE TAGUA

XVII. mendeko opera barrokoa antolatu nahi dugu».

Euskalduna jauregiaren parean, ibaiaren bestaldean, finkatu dute La Fundicionen egoitza berria. «Bilboko erdigunetik gertu egon nahi genuen. Betidanik nabiko baztertuta egon den ikuslearengandik gertu egotea nahi genuen, mundu honetan aritzea bizimodua bilakatzeko baita. Hau ez da arraindegi bat».

Eskaintza alternatiboa

KALITATEZKO eskaintza alternatiboaren eskutik esperimentazioaren mugak ukitzen dituen areto hau Bilbon aurki daitekeen bakarra dugu. «Gure asmoa antzoki handien alternatiba izatea da, jakinik antzoki handien aldean abantailarik badugula: dantzaria usain dezakegu, eszenatokia eta ikusleen artean ez baitago espazio fisikorik», esan digu Luke Taguak tamaina txiki-ko aretoa deskribatzera-koan.

Espanian 32 areto dira La Fundicionen modukoak (bai funtzionamenduz bai tamainaz) eta batera ari dira lanean. «Elkarrekin egiten ari garen esfortzuaren ondorioz Espainia mailan antzoki handien sare alternatiboa bilakatu gara», jarraitzen du Luke Taguak. Euskal Herrian mota hone-



La Fundicion elkarteak hamar urte bete ditu areto berria estreinatuz. (A.: Xouse Simal).

tako beste areto bat dago, Iruñeko Antzerki Eskola, La Fundicionen zirkuitu berean funtzionatzen duena.

Areto hauen arteko loturak ondorio ongarriak eragiten ditu. Adibidez, areto honetatik azken 10 urteotan

Espanian ezagutu diren muntaia eta joera berri gehienak pasatu dira, «ez bakarrik dantza mailan, arte plastikoak eta antzerkiaren gainean ere lan egin izan dugu». Urtero 30 milioi pezetako (1,2 milioi libera inguru) aurrekontua du La Fundicionek.

Abendua dantzan

ABENDUAN zehar Dantza Hilabetea antolatu du La Fundicion aretoak. Ekimen hau zabaltzeko Provisional Danza taldea aritu eta gero, Chua Alba flamenko boskotearen «Bailes por Compas» obrak hartu zuen txanda. Flamenkoaren orpotik, kultura honen barne mundua erakutsi digute.

Hurrengo asteburuan, abenduaren 13 eta 14an, Diez & Diez dantza taldea arituko zaigu «Milagro izeneko muntaiarekin. Errealitate eta desioaren arteko harremana dantzatu eta antzestuko dute.

Madrilgo IX. Lehiaketa Koreografikoaren ira-

bazlea izan den Damian Muñoz dantza taldea izango da hurrengo, abenduaren 20, 21 eta 22an, «Humedades» lana aurkeztuz. Hiru koreografia desberdinez osatua, «gizakion arimaren gorabeheretan oinarritzen da», azaldu digu Damian Muñozek: «Gizakiak tantaka isurtzen dituen abultasunak eta gizatasunak, bizitza, heriotza, amodioa, bakaratasuna dugu mintzagai». La Fundicion aretoaz gain, Gasteizeko Principal Antzokian ere jardungo du, abenduaren 14an, Damian Muñozen taldeak.


Antzerkia eta dantza loturik

ABENDURAKO antolatu dituzten azken emanaldiek antzerkiarekin baino dantzarekin dute zerikusirik. Basauriko Antzerki eskolak ikasturte bukaerarako proiektua aurkeztu du, «Historias Subitas de Noche Buena» obra. Dena prest dago beraz, La Fundicioneko areto berriak aurrera egin dezan. Aurrerantzean ere bertan ikusi ahal izango ditugu, orain arte bezala, dantza eta antzerkiaren ezkontzatik sor daitezkeen lanak.

MYRIAM GARTZIA

ARABA eta Bizkaiko

Kortsolari Xepaketa '96



BABESLEA
Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación Foral
de Bizkaia

ANTOLATZAILEA
DEIETZOLARI ELKARTEA
BIZKAIA

LEGUTIOtik-BILBOra

URRIAREN 27tik - ABENDUAREN 22ra


L I B U R U A K



«KALAMIDADEEN
LIBURUA»

JOAN MARI IRIGOIEN
ELKAR, 314 or.

Euskal literaturan ibilbide luzea egin du dagoeneko Joan Mari Irigoienek. Seigarren eleberria du honakoa, baina baditu bi poema liburu eta baita haur eta gazteentzat hiru liburu ere. Liburu honekin, orain arteko bere lanen moldeak hautsi ditu donostiarrak. Pertsonaia xebreak aurkezten dizkigu liburuan, komedia gisako istorio txoro bat osatuz. Gizartearen gaineko fartsa sano, lotsagabe eta kritikoa egiten du «Kalamidadeen liburua»n. Marrazkiak Olariagarenak dira ●



«AZARO URRUNETAKO
INTIFADAK»
GARIKOITZ BERSALUZE
KAIERO, 102 or.

Argitaletxe berria estreinatzen du Garikoitz Berasaluze zarautzarrak bere lehen liburu honekin. Lubaki bandan ibilitako zenbait kidek osatutako taldea da Kaiero eta idazle gazteen idazlanak kaleratzeko asmoa agertu dute. «Azaro urrunetako intifadak» liburu hau Euskal Herriak bizi duen egoerari jarritako krespoi beltza dela aipatu du idazleak. Irakurketa bikoitza eskaintzen duten poemak dira, amodio zein guda olerkiak baitira. Lubaki bandaren eragin nabaria dute liburuak zein egileak berak ere ●

XABIER MENDIGUREN ELIZEGIREN BEGIETAN

Berriz ere poesiareki adiskidetzeko liburu

KOINTZIDENTZIAK ez dira beti txiripa hutsa izaten; edo hala izanda ere esanguratsuak izaten dira. Azaroan bi liburu atera ziren batera, oso antzeko tituluekin: Juanjo Olasagarreren «Bizi puskak» eta Jabier Muguruzaren «Bizitza pusketak». Izenburu bera izan zezakeen «Itzalaren ertzean» Pablo Sastrenen ipuin bildumak ere, eta baita Pako Aristiren honek ere: denak ere gizon-emakumeen istorio eta gazi-gozeekin datozkigu, bizikizunetatik abiatuz eta ez abstrakzioetatik, kontu xumeak kontatuz eta ez teoria osoak edo historia globalak. Esperientzia bitalak eta zatikatuak, bizi pusketak.

Pako Aristirena hartu dut mintzagai, baduelako Pakok dohain bat hitz juxtuak hautatzeko, talentu berezi bat eguneroko gertaeretatik istorioak

ateratzeko. Begirada da gakoa, bizitza denon aurretik berdintsu igarotzen baita, baina Pakok begirada ernea ageri du liburu honetan paisaiari eta naturari erreparatzeko, era gutzietako jende eta gauza txikienei ere antzemateko.

Ohizko lirismotik urruti dabil Aristi: narratiboak dira bere poema gehienak eta bere estiloa zenbaitentzat agian lauegia, prosatik hurbilegia. Niretzat, aldiz, lirika mota diferente bat da hau, mikro-istorioz eundua, eta giza jendearen barru-barruko sentimenduez oratua. Umore-ttantak ere ez dira falta, errazkeri airea dutenak ere bai tarteka, baina liburuari bizitakoaren usain eta traza ematen diotenak. Hizkuntza, berriz, egileak inoiz erabili duen biribilena: esentzial, doi eta gardena.

Pako Aristi
CASTLETOWN



«CASTLETOWN»
PAKO ARISTI
EREIN



«TESTUAREN HARIAN»


JOSEBA EZEIZA
GAIK, 475 or.

Legazpi 6 euskaltegiko sortzailetako bat da Joseba Ezeiza. Urteetan helduei euskara irakasten hartutako esperientziatik «Testuaren hariaren. Euskal esaldiaren estilistika» liburua idatzi berri du. Bertan, esaldiaren egituraketa, aditz jokatu eta jokatu gabea eta esaldi motak aztertzen ditu. Euskara irakasle izateaz gain, itzulzaile, kazetari eta orotariko euskaltzaleei zuzendutako euskal sintaxiaren inguruko sakontze-mintegien ardurduna ere bada. Euskara irakasle lanetan dabilenarentzat, euskara sakondu edota ikasten dihardutenentzat erreferentzia liburua bilakatuko da ●

«BOST FILOSOFO
HANDI»

ELIAS GOÑI OLALDE
GAIK, 156 or.

Ez da ohikoa gure artean horrelako liburuak aurkitzea, eta are gutxiago euskaraz. Ez dute eleberriek bezala istorio batera lotzen, baina historian eragin handia izan duen eta duen gaia azaltzen du: filosofia. Garaian garaiko bost filosofo handien lanak bildu ditu Elias Goñik liburu honetan. Platon, Descartes, Kant, Marx eta Witgensteinen pentsamendu filosofikoaren funtsa, testu aukeraketa eta testuinguru historikoa elkartu ditu. Atal bakoitzean autoreetako bana azertu du eta hauen inguruko bibliografia ere erantsi du. Egungo gizartea ulertzeko pausua ●



«XAGUXARROSKI
KONTEA»

TXIRRI, MIRRI ETA
TXIRIBITON

VHS, ETB-SUPERBAT

Telebistako pailazoen istorioekin bideoa argitaratu du ETBk. Superbat taldearen eskaintza berri bat da hau. Bi ataletan banaturik dago bideoa. Lehenak «Txirri, Mirri eta Txiribiton ilargira» du izenburu eta bigarrena guztiz berria da, IZk aterako duen diskoarekin lotura zuzena duena: «Gure kantak eta Xaguxarroski kontea». Zuzendari orokorra Fernando San Jose izan da eta zuzendari artistikoa, berriz, Jose Inazio Ansorena, Mirri bera ●

«AIO!»

MIXEL
DUCAU&ZALDIBOBO
ELKAR

Duela lau urte argitaratu zuen Zaldibobok bere lehen diskoa, eta orain arteko bakarra. Taldean aldaketa handiak izan ondoren (Mixel Ducau bakarrik gelditzen da ordudunik) guztiz eraberriturik dator Zaldibobo. Musikan dantzarako doinuak dira nagusi, rock-zouk-soul-salsa-folk-funk motako musika nagusi baita. Talde berrian, Joxan Goikoetxea (eskusoinua), Mixel Longaron (bateria), Luis Camino (perkusioa), Ritxi Salaberria (baxua), Rikardo Abril (tronpeta) eta Igor Teiletxea (tronboia) daude Ducaurekin batera egitasmo berri honetan. Kantuak Ducauk eginak dira gehienak. Hitzetan, Mikel Markezek, Joseba Tapiak eta Andoni Egañak lagundu dute ●




Hontza
LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4
Tel. 42 82 89 Faxa: 43 12 56
20 004 DONOSTIA




«MO'MAU»
MO'MAU
TX

Jazz eta rock doinuak nahasten ditu MO'MAU taldeak lehen disko honetan. Bost kanta baino ez dituzte bildu (azkena instrumentala), kalitate apartekoak, hala ere. Musikariak ere hala-koak dira: Juanjo Falcon baxuan, J.C. Labaka kitarran, Javi Area baterian, Satur Babon saxoan, Juanan Diez tronboian, Mikel Valcarlos tronpetan, Ane Irazu ahotsetan eta Gorka Lasa teklatuetan. 1996ko Irailaren 30etik Urriaren 5era Azkarrateko Katarain Estudioetan grabatu zen lan hau eta Kaki Arkarazo aritu zen soinu teknikari eta produktore lanetan. Diseinua eta ilustrazioak, berriz, Iñaki G. Errok egin zituen. Disko honetan agertzen diren hitzak eta musikak taldeko partaideek egin dituzte. ●

«25 KANTU URTE»
OSKORRI
ELKAR

Azaletik zein barrutik, disko eder baten aurrean aurkituko da entzulea. Oskorri taldeak 25. urteurrena ospatzeko Getxon emandako kontzertua zuzenean grabatu eta argitaratu du Elkarrrek. Argazki ugari eta polit askoak daude bertan. Luxuzko edizioa luxuzko 25 kantuetarako eta luxuzko 17 gonbidatuk apainduak: Martin Carthy, Niko Etxart, Joserra Fernandez, Pedro Guerra, Gwendal, Kepa Junkera, Mikel Laboa, Fermin Muguruza, Liam O'Flynn, Ruper Ordorika, J.C. Perez, Albert Pla, Anton Reixa, Jon Sarasua, Joseba Tapia, Patrick Vaillant eta Gabriel Yacoub. Bakoitzak jatorrizko hizkuntzan kantatutako zatia ere ageri da liburuska gisa aurkeztu duten disko trinkoan ●



«GURE FABULAK
BERTSOZ»

JUAN MANUEL
ETXEBARRIA
IBAZABAL, 146 or.

Juan Manuel Etxebarria zebierarrak, liburu honetan, bertso mota, neurri eta soinu ezberdinetako 30 fabula interesgarri eskeintzen dizkigu euskara landu eta errimatu batean. Neurriz eta erri-maz egindako fabula liburu hau, aurrekoz atzera zein atzekoz aurrera irakur daiteke eta, besteak beste, euskal bizitzako arlo nagusi hauek ikutzen dira: etnografia, linguistika, literatura, antropologia, soziologia, erlijio eta sineskeriak, etika, ohiturak... Helburu batekin: Lehenak gaurraren bidez etorkizunean iraun dezan ●

«EGUBERRI BERRIAK»
ENRIKE ZELAIA
ELKAR

Euskal Herrian gabon kanten gainean egindako lehenengo disko guztiz instrumentala da Enrike Zelaia kaleratu berri duena. Bertan, "Hator hator", "Mendi aldetik datoz", "Horra Mari Domingi", "Gau erdian" ... aurki daitezke, besteak beste. Gabon-kantak galtzear daudela ikusita, ekarpen positibo bat egin nahi izan du musikariak. Piezak aukeratzeko garaian hiru irizpide hauek erabili ditu: gure kultur ondareko erreperorioak (zati nagusia honek osatzen du), mundu osoko gabon-kanta ezagunenak eta tratamendu aldetik, gainerako sentimendu eta emozioak alde batera utzi gabe, kutsu alai eta jai-girokoa eman nahi izan dio Enrike Zelaia akordeoi-joleak bere lanari ●



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



Galeusca TVk PAS3R satelitearen bidez Amerikako kontinentera emitituko du.

Amerikaren konkistara

Abenduaren 31tik aurrera Galeusca TVk satelitez Ameriketara bidaliko du seinalea. Satelite bidezko kate honetan Euskal Tebista, Kataluniako TVC eta Galiziako TVG batu dira. ETBren audientzia Euskal Herrian duenaren bikoitza izango dutela espero dute. Baina hiru tebistak ez doaz bakarrik Amerikaren konkistara, Galeuscaren seinalez baliatuko baitira Radio Euskadi eta Euskadi Irratia ere.

ABENDURAREN 31n Galeusca TV-k satelite bidezko seinalea emitituko du lehen aldiz. Galeusca TVk bateratuko ditu ETB, Galiziako TVG eta Kataluniako TVCren seinalea.

Hasierako aukera Hispasat bazen ere, azkenean seinalea PAS3R (PanAmSat) satelitearen bidez iritsiko da Hegoamerikara lehendabizi eta Iparramerikara beranduago. Banaketarako kable

bidezko seinalea aukeratu dute, «*hemen erabili ohi dugun ubin sistemaren garapena Ameriketara nabiko kaxkarra da, kable bidezko tebista da nagusi. Han da goenari egokitu behar gaitzaizkio*», azaldu du ETBko emisio eta aurkezpen burua den Andoni Aranburuk.

Ekaina bitartean Mexiko eta Argentinako 2.600.000 etxebizitzatara seinalea iristea espero dute. Hauek Ga-

leuscaren programazioaren barne albistegiak, kirolak, ikuskizunak, dokumentalak... ikusi ahal izango dituzte. «Galeusca Noticias» albistegiak «Teleberri», «Telenoxornal» eta «Telenoticias» saioa informatiboak jasoko ditu. Informatibootan aipu berezia izango dute Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko berriek. Kirola ere, oinarrizko osagaia izango da. ETBk «Rompecabezas», «La

monda», «¿Qué pasa pues!», «Toma y daca» eta «Del País de los vascos» saioak emanango ditu besteak beste.

La programazio osoa gaztelera izango da. «*Zein bizkuntzatan emitituko den erabakitzea arazo latza izan da* -dio Andoni Aranburuk- *gure lana Ertamerika eta Hegoamerikara begira dago eta hemen gaztelera da nagusi, beraz, produkzioa gaztelera egingo dela planteatu da. Gure bizkuntzan egindakoa erderaz azpigitulatu da*».

Euskal-Etxeetan inkesta bat egin ondoren, euskaraz emititzea eta gaztelaniaz azpigituluak ipintzea nahiago dutela konturatu dira. Bestelakoa gertatzen da Amerika iparraldean: mantentzen den euskara duela 50 urteko euskara da: «*Gaur egungo 'Txiskola' jarriko bagenie, galduko liratekeela uste dut. Beraz, horrelako banaketa-geografiko garrantzitsu batean emititzeko gaztelera nahitaezkoa da*», azaldu du Andoni Aranburuk.

Galeusca TVren ekimen hau Ertamerika, Hegoamerika eta Euskal Herriko euskaldunen arteko distantzia murriztuko du: «*Duela 30 urte arte, bango eta hemen go euskaldunon artean kostu handiak zituen hilabete-ko bidaia baten distantzira egon dira. Gaur egun, berriz, une berean hemen gertatzen diren gauzak ameriketara egongo lirateke ordu erdiko programa batean*», esaten du Andonik. Tebistarentzat ere pausu garrantzitsu da Andoniren ustez: «*Gu hain handiak ez izan arren, horien artean kokatu egiten gara eta hori gure aldetik atrebentzia da*».

ITZIAR CARRASCO

Xabier Zaldua: «Oso gauza gutxitara heltzen gara tajuz»

Euskal Telebistaren sorreratik bertan da Xabier Zaldua, denetarik pixka bat egitea egokitu zaio, baina batik bat informatiboen arloan aritu da. Aspaldian ez genuen kameren aurrean ikusi, baina azkenaldion asteburuetako informatiboetan aurkezle lanean dakusagu.

Albistegietan gero eta gehiago iritzi kazetaritza erabili ohi da.

Telebista honek pintzipioz ez du filosofia hori, baina editore eta aurkezle izan diren zenbaitek hori egiteko joera izan dute. Nik neuk hori egitekotan, ondo bereiztuko nuke bata eta bestea, guk profesionalki ondo bereiztu beharko genukeen zerbait da.

ETBko albistegiek zentsurarik jasaten al dute?

Alde batetik, albisteen aukeraketarekin manipulazioa eman ohi da. Bestetik, bakoitzak bere ikuspuntutik ematen du albistearen berri. Hitzeko zentsura ez dut ezagutzen, noiz edo noiz akaso egon da kasu zehatzen bat. Editorea, eskaintzen duen albistegiaren erantzule da, beraz ahalik


eta modurik egokienean egiten saiatzen gara. Hor sartzen da norberaren etika eta autozentsura.

Albistegiek zein kalitate maila dute?

Nik zenbait gauza gustura aldatuko nituzke, baina ez dakit zein punturaino errealista naizen. «Jakin»-en irakurri dudanaren arabera Euskalkom biltzarrean, informatibo generoaren gain-behera dagoela aipatu zen. Egia dela uste dut. Batetik, gai zaparrada dago eta ikusleak gauza gutxirekin geratu ohi da. Bestetik, medioak berak eskatzen duen azkartasunak baldintzatzen gaitu. Beraz, oso gauza gutxitara heltzen gara tajuz. Medioak berak bultzatuta, gauza asko egiten diren bezala egin beharra dugu.

Zeintzuk dira egun albistegiak burutzeko izaten diren arazoak?

Presaren iritsi beharra. Irratiak duen berehalakotasunik ez dugu, horrek asko mugatzen gaitu oraindik. Aurrerantzean telebista edukiaz eta formaz aldatzera doa onerako edo txarrerako: bai teknologiatatik, bai etorriko den telebista uholde aukera horrengatik ere. Telebista espezializatu beharko da.



«Iritzia eta albistea ondo bereiztu beharko genuen zerbait da».

ITZIAR CARRASCO

TXORI BATEK

ESAN DIGU

Futbol partidutako iragarkiek audientzia txikia

Futbolak duen audientzia handia ez dator bat partiduen atsedendiko iragarkiek dutenarekin, horrela diote Sofres etxearen audientzi neurketek. Urriko partidu ikusienak aztertu eta jaso dutenaren arabera, atsedendiko iragarki ikusiena, iragarkien audientzia rankingean 110. da. Urriaren teledibistan ikusienak izan ziren 300 iragarkien arteko hiru bakarrik izan ziren futbol partiduetan eskainitakoak. Honen arrazoia ikusleak iragarki tartearan iraupen zehatza ezagutzeko datza, 15 minutu -ezin gehiago-, beraz *zapping* egiteko edo 'atsedenditxo' hartzeko une egokia ikuslearentzat.


Aurrekoaz gain iragarkien errentagarritasuna zalantzan jartzen duen beste datu-erik ere bada: saturazioa. Futbolik ez den egunetan ordu horretan ohi dena baino iragarki kopuru bikoitza eskaintzen da.

Ikerketa honetan ez dituzte neurtu, nahitaez ikusi behar diren futbol partiduetako iragarkiak, ETBk pantailaren azpialdean eskaintzen dituenak kasu.

■ Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa

Ostiral gauean 22:05ean Arrasaten izandako Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa eskainiko dute. Ukraina, Alemania, Bielorusia, Euskal Herria eta beste hainbat tokitako partaideak izan ziren bertan. Urrezko dragoia eta 500.000 pezeta irabazi zituenaren ekitaldia abenduaren 13an ETBn.

■ Finalen asteburua



ETB-DV Torneoko Herri Kirolen finala jokatu dute. Final hau 16:9 ikusmira berrian eskainiko dute zuzenean larunbatean arratsaldeko 16:00etan.

Igandean beste final bat eskainiko dute, Euskal Herriko Erremonte txapelketera. Final hau zuzenean izango da Galarretatik arratsaldeko 17:00etan.


Igande goizeko norgehiagoka Bizkaia aldetik eskainiko dute zuzenean, Igorreko Nazioarteko Saria. Ziklo krosslarientzat sari esanguratsu hau abenduaren 15ean 12:00etan izango da.

■ Evander Hollyfield «Boxeo izarrak»-en

Pedro Mari Goikoetxeak zuzenduriko boxeo saio honetan nazioarteko burruka esanguratsuak eskaini ohi ditu.

Hollyfieldek Tyson garai-

tu ondoren, hirugarren aldiz munduko txapelduna izatea lortu du. Egun arte Mohamed Allirekin batera lortu duen bakarra da. Larunbatean eskainiko duten Alex Stewarten aurka izan zuen borroka saioa eskainiko dute. Lehia hau izan zen garaian punta-puntan ziren bi boxeolariak, bietako inork ez zuen borrokarik galdu eta Alex Stewartek K.O.z 24 borroka irabazi zituen ordura



arte. Larunbateko 22:55 ean izango da norgehiagoka.

Ostean Oscar de la Hoya eta John John Molinaren bo-xeo-borrokaldea izango da. Hauen artean jokatu zuten Pisu Arineko Munduko Txapelketa. Oscar de la Hoyak 21 urterekin Bartzelonako Olinpiadetan urrezko domina irabazi zuen.

■ Porky Txerritxoa berri ere pantailan

Aski ezagunak diren marrazki bizidunak ikusteko aukera igandean, Porky Txerritxoaren «Mukizu» lehen atala ikusi ahal izango baita.

Ondoren, «Lukas Ahatea» etxeko kontuetan ikusiko dugu, bere bostgarren atalean. Beraz, abenduaren 15eko 14:50etik aurrera «Porky Txerritxoa» eta «Lukas», Warner Bros firmaren marrazkietako pertsonaia ezagunenak ikusteko aukera izango da.

Z A P P I N G

Tafalla eta inguruko berriak ordubetez egunero Tafalla Televisionen

ORDUBETE inguru aritu ohi dira egunero Tafalla Televisionen. Egunero lehenengo saioa magazinea izan ohi da. Maite Hernandezek aurkeztu ohi duen saio honetan «La calle opina» izeneko tartea dute egunero, kaleko jendeagana gerturatu eta Tafallan pil-pilean den gairen baten ingurukoak galdetu ohi dizkiete, «*Indurainek jarraituko al du? Zer iruditzen zaizu kale honetan egin duten erakin hau?...*».

Jarraian lehiaketaren txanda ohi da, «Descubre Tafalla» izenekoan Tafallako leku bat ageri den panelaren zatiak agertu ohi dituzte egunero. Egunean egunean Raquel Olcoz aur-

kezleak argibide gehiago eskaintzen dizkie ikus-entzuleei, hauek erantzunarekin eskutitzak bidali ditzaten. Azkenean garaile denak bidaia bat irabazi ohi du.

Manu Zapatak astearte eta asteazkenetan aurkeztu ohi du zinema programa. Pare bat minutuz bideoan atera diren azken filmeen inguruko berriak kaleratu ohi ditu.

Zinemaren inguruko saioa ez den egunetan, «A quien corresponda»-ren txanda da. Autoak gaizki aparkatu ohi dela lekuren batean, edo ikus-entzuleek jasotzen dituzten antzeko kexak jaso, kamerarekin grabatu, eta Tafallako telebistakoek kexua adie-

razi ohi diote dagokionari. Honek ere bizpahiru minutuko iraupena ohi du.

Asteazkenetan magazinaren lekua hartu ohi du «Al habla con la alcaldia» edo eztabaida saioak. «Al habla con la Alcadia» deritzon saioan hilean behin Tafallako alkatea platora gerturatu eta egiten zaizkion galderei erantzun beharrean izaten da. Gainontzeko asteazkenetan, eztabaida saioaren tartea ohi da. Saio hauen guztien amaieran informatiboaren ordua da, Tafalla eta inguruko berriak jasotzen ditu, Gabriela Michelek.

Programazioa 13:30ean hasi ohi da, baina aurrez 11:30etik 13:30ak bitartean herriko telefono interesgarrienak pantailaratu ohi dituzte.

Saio guztien arduraduna, errealdorea eta kamera pertsona bera da, Jabier Ramos.

Mikrofono aurrean jartzeko ikasgaia


Bereziak dira Euskal Herriko hainbat ikastetxeetako ikasgelak, arbela beharrean nahasketa-mahaia dute, liburuak beharrean mikrofonoa. Irratia dute ikasgaia. Astean ordu gutxi batzuek ikasleen ahotsaren oihartzuna zabaldu ohi dute irrati hauek.

HAINBAT ikastetxeetan ohi baino irakasgai bat gehiago dute: Irratia. Ahozko hizkuntza eta idatzia garatzeko tresna modura sortu zen irrati ikastetxe askotan.

Ikasgela bat egokitu eta beharrezko irrati izateko materialez osatu duenetako bat da Bermeoko Leizaldi Ikastola. Aintzane Egaña Leizaldi Ikastolako ikasketa buruaren hitzetan: «*Duela biru ikasturte hasi ginen, gletan egiten diren lanetaz baliatuz abozko hizkuntza*

eta idatzizkoa bultzazea izan zen helburua. Horretarako oso medio atsegina da, ikasleek gogo gehiago jartzen dute horrelako lanetarako. Ikastolak finantziatu du dena eta argitaletxe batetakoak dobainik bidali dizkigute diskoak.

Goiko Irratia izenekoa dute Tolosako Eskolapioetan. Irrati honetako ardura-duna da Joxelu Martin: «*Duela bi urte martxan hasi zen irrati eta gaur egun asteen 11-12 saio ditugu.*



Tolosako Eskolapio ikastetxeetan duela bi urte jarri zen martxan Goiko Irratia. (Argazkia: Gari Garaialde).

Larunbatetan dute emandaldi eguna Leizaldi Ikastolakoek, aldiz Tolosako Eskolapioetakoek asteleheneetik ostiralera egunero emititu ohi dute.

Ikastetxeetako irratiaren oihartzuna ez da oso handia izan ohi; gehienetan ikastetxea den herria izaten dute uhin hedapen eremua. Ai-

patu Bermeo eta Tolosa-koan ere horrela da. Hala ere eskolapioetakoan epe laburrean oihartzuna zabaldu asmoz dira, «*gure seinalea inguruko herrietara ere zabaltzeko gogoz gara, baina horretarako milioi erdi pezeta behar ditugu.*

ARRITXU ZELAIA

B A G A K

Elgoibarko Zazpiki Irratia berriro martxan

Udako etenaldiaren ondoren duela aste t'erdian antenara itzuli ziren Zazpiki Irratiakoak. Herriko jende eta kolektiboek lan egiteko irrati atea zabalik izango dituztela jakinarazi nahi izan dute. Irratioko Elgoibarren sortzen diren hainbat ekitaldien berri jasotzeko prest dira, batia kartelera propioa eskaintzeko ere.

Irrati kalitatea hobetu asmoz, hainbat ikastaro tekniko eta teoriko antolatu dituzte.


«Kirol kantxa» Segura Irratian

Asteleheneetik ostiralera egunero 10:00ak aldera (ostiraletan 9:30etan) eskaini

ohi dute «Kirol kantxa» irratia Segura Irratian. Astelehenean Beasaingo futbol taldeaz aritu ohi da programa. Astearteetan ere futbola ohi da protagonista, baina 3. maila eta preferentekoak, Tolosa, Urola, Lazkao, Ordizia eta Ilintxaren berriak. Jarraian areto futbolari ere tartea eskaini ohi diote.

Asteazkena rugby, saskibaloia eta eskubaloien eguna da. Ordiziako Rugby taldeak du tarte nagusia.

Ostegunetan txirriindulartza, pilota, mendia, eski pisten egoera eta beste hainbat kirolen ingurukoak jorritzen dituzte eta astea amaitzeko asteburuan izango diren kirolen berri eman ohi dute «Kirol kantxa» irratia.



Aitor Artza (Egin Irratia)

Bere ahotsa askok eza-gutuko dute, duela hiru urtez geroztik «Igo bolumena» irratia entzun baitaitekkelako.

Industria mailari dagokion ikasketak egin eta gaur egun CAFen la-

AURPEGIA

nean aritu arren, kazetaritza munduan hainbat leketan aritu da idazten: «*Artikuluak idatzi ditut 'Gaztegin' erako, 'Entzun' aldizkariako kolaboratzailea naiz, 'Argia' rako ere egin izan ditut disko kritikak, 'Goierritarra'n ere aritu naiz. Kazetaritzari buruz ikasi dudana, nire buruak eman didana izan da.*

Betidanik musikazale sutsua izan da eta aurretik musikaren inguruan jarraitzea gustatuko litzaioake: «*Igo Bolumena'n jarraituko dut, nire ustez rock magazin oso interesgarria da.*

Laser berria txantxarra minik gabe deusezteko

ORAIN arte dentistarengana joatea ez da oso gustukoa izan kasik jende guztiarentzat, dentistarenganako bisita hori minarekin lotzen baita gehienetan: mina dentistarengana joan aurretik (arrazoi horrexek eraginda gertatzen baitira bisitarik gehienak) eta mina dentista gure ahoaren barrualdean lanean ari denean ere.

Aurrerantzean, ostera, batere minik edo oinazerik gabe eta erabateko higie-ne edo garbitasunarekin euren ara-


zoak nola desagertzen diren ikusi ahal izango dute txantxarrak sendatu asmoz dentistaren kontsultara joan ohi direnek. Nola den posible hori? Bada, laser izpiaren bitartez.

Odontologiako teknika berri hau Ex-podental 96 izeneko azokan aurkeztu zuten bere asmatzaileek. Enpresa horretako gerentea den Wolfgang Ade jaunak jakitera eman duenez, ekipo berri horiek inolako presiorik gabeko tratamenduak eskaintzen dituzte, inolako

bibrazioarik eta zaratarik gabeko tratamenduak; eta gainera, hamarretik bederatzik kasutan anestesiarik gabekoak izan ohi dira, ez baitute inolako molestiarik eragiten. Hala eta guztiz ere, oraingoz metodo zaharrarekin jarraitu beharko dugu gutariko gehienok, izan ere aparatu berri horiek zortzi milioi t'erdi pezeta (340.000 libera inguru) balio baitute.

Aparatu berriak badu, aurretik aipatutako guztiaz gainera, beste abantaila nagusi bat ere, eta ondokoa da: gaixotasun infekzioso-kutsagarriak (alegia, hepatitis edo HIESa, batik bat) paziente edo gaixoari transmititzeko arriskua kasik ezinezkoa da, ez baitago inolako kontaktu edo ukipenik gaixoa- ren eta dentistak erabiliko duen instrumentalaren artean. Aldiz, orain arte ezagutu dugun ohiko metodoarekin denok badakigu kontaktu hori egon badagoela ■

Ekipo berri hauek presiorik gabeko tratamenduak eskaintzen dituzte, bibrazioarik eta zaratarik gabekoak; eta hamarretik bederatzitan anestesiarik gabekoak izan ohi dira, ez baitute molestiarik eragiten



JABIER AGIRRE

L A N D A R E A K

Erwinia amylovora

IZEN xelebre hau hemendik aurrera zer hitz egin franko emango duen bakterio batena da. Bakterio honek *fire-blight* edo su-gorrina deritzon gaixotasuna sortzen du.


Bakterio honek errosazeo familiako kideak erasotzen ditu, puja berriak ihartzetik hasi eta landarea hil arte. Kaltetu aipagarrienak sagarrondo, udareondo edo madariondo, gurbea eta maspilaren generoa (*Sorbus* sp.), pirakanta eta kotoneaster guztiak dira.

Su-gorrina duela ehun bat urte eza- gutzen hasi zen Estatu Batuetan, 1.922an Zeelanda Berrira iritsi zen eta Europan 1.957an sartu zen Ingalaterratik. Urte batzuk geroago Holanda, Danimarka, Alemania eta abarretatik

Europan hegoaldea kolonizatzen ari da. Iberiar penintsula zen, orain arte, gaixotasunetik libre zegoen lurralde bakarra.

Honelako gaixotasun batek eragin dezakeen sarraski izugarria saihesteko, Pirinioetako mugak familia horretako landareei itxita egon dira urtetan. Hala ere, beharrezko osasun pasaporterik gabeko landare edo landaregaiak ekarri edo bakterioak ugaltu eta intsektuak, haizea... medio zabaltzeko duen erreztasunagatik, dagoeneko Gipuzkoan —kontinentetik sarrera naturala— antzemana da gaitza.

Kontsumoak eragindako garraio eta komunikazio erreztasunak honelako gaitzak azkarrago zabaltzea dakar. Au-



retik neurriak hartzea komeni da: kanpotik ekartzen den landareen osasun pasaporte exijitu, eta landareengan zerbait arraroa somatuz gero teknikariren bati jakinarazi. Hala ere, hemendik aurrera, bakterio honekin elkar-bizitzen ikasi beharko dugu ■

JAKOBA ERREKONDO

Irati: zer ikusia eta non ibilia franko eskaintzen duen inguru ederra

Zaraitzu bailararen inguruetan egingo dugu txangoa aste honetan, Irati basoan barrena. Inguru honetako ardatza Orhi mendia dugu, Pirinioetako lehenengo «bi milakoa». Zaraitzu eta Irati arteko Abodiko mendi-zerra (1.400-1.500 metro arteko mendiez osatua) ere igaro ahalko dugu. Iratiko Etxeak eta inguru apartak ezagutzeko aukera dotorea.

OTSAGIKO parrokitik abiatuko gara txangoa osatzeko, gora egiten duen bideska hartuz. Bideska hau hasieran harrizkoa da, eta gerora basoan murgiltzen da, Muskilda mendian barrena. Muskildako ermitan (1.010 metrora) 20 minuturen buruan izango gara. Bertan santutegiarekin eta ermutauaren etxearekin egingo dugu topo, XVII. mendean eraikitako horma batez inguraturik. Ermitak zerbait bereizgarria baldin badu, hori kono itxurako dorrea da, egurrezko oholtzoez egindakoa. Ermita XII. mendean hasi ziren eraikitzen, eta aldrean gotiko estiloko amabirjina du.

Mendiaren atzealdean errepide bat dago (atse-den-gune bat eta Abodi mendi-zerraren eta Orhi mendiaren ikuspegi ederrak eskaintzen ditu), eta berori hartu eta 300 bat metro jaitsi ondoren, ezkerrean egiten duen pista hartuko dugu beherantz. Pistak Abodi mendi-zerraren magaleraino eramango gaitu, Batineko bordaren inguruetara. Borda eskuinaldetik pasa eta goranzko joera hartuko du bideak.

Pare bat hesi eta beste bi errekatxo igaro ostean, beti ipar-mendebalderanzko norabidean, artzainen etxola

batera iritsiko gara. Etxola hau irekirik egon ohi da beti eta bi gela ditu. Borda honetatik oso gertu Harrizabala edo Sanson gisara ezaguna den harrizarra topatuko dugu. Sei metroko luzera eta hiru metroko zabalera duen iruinari ikaragarri honek, urte askotan, transhumantzia abelbidearen amaiera eta



Goiko argazkian, Andra Mari basiliza ederra. Irati basoaren erdialdean, zuhaitzez inguratua, dago 1945ean eraikitako ermita hau. Erdiko argazkian, berriz, Irati basoaren ikuspegi zabala.

Behekoan, aldiz, Abodi mendi-zerra dugu begibistan.

Hemengo klima hotza eta haizetsua da.



udaldiko larreen hasiera adierazten zituena artzantzan.

Metro gutxira, Abodi mendi-zerrak duen sakonune txiki bat dago: Las Alforjas (1.430 metro). 10 bat minutuz ibili ondoren, Mendebaldeko Abodi (1.496 metro) tontor zabalera helduko gara. Iratiko basoaren ikuspegi benetan ederra izango dugu bertotik. Hemen ezkerrean hartuz Paso de Tapla deritzona igaroko dugu, eta 25 bat minututan Iratiko Etxeetara iritsiko gara. Gogoratu beti iparralderantz joan behar dela, gorantz. Pagadi bat igaro ostean, Otsagi-Iratiko Etxeak errepidera irtenko gara eta pista bat jarraiki, kanpatze-zona batera iritsiko gara. 1945ean eraikitako Andra Mari basiliza topatuko dugu hemen, zuhaitzez inguratua.

Errepidea segiz, Iratiko Etxeak edo Erregaren Etxeak deitutakoetara (860 metro) helduko gara. Hemen —Iratiren Bihotza gisa ere ezaguna— egiten dute bat Urtxuria eta Urbeltza ibaiek ■

**ANDONI URBISTONDO
MIKEL EGAÑA**



ANTZERKIA

13

● «Bizi erraz, euskaraz» kanpainaren barnean, **Txalo taldeak «Xagu tranpa»** lana antzeztuko du gaur Getxo Antzokian 19:30ean (euskaraz) eta 22:30ean (gazteleraz). Kanpaina berari jarraiki, **Markeliñek «Tatapa»** taularatu du etzi 12:30ean (euskaraz) eta 17:00etan (gazteleraz).

● Azpeitiko XIV. Euskal Antzerki Topaketetan gaur **Akusaren «Mirandolina Ostalera ederra»** ikusi ahalko dugu. Bihar, aldiz, **Taun Taun taldeak «Ububabel»** aurkeztuko du. 19an eta 20an, **Txalok «Xagu tranpa»**. Emanaldiak Zelaitxo antzokian 21:30ean.

● **Teatro de la Abadiak «Entremeses»** antzezlana aurkeztuko du gaur, bihar eta etzi **Barakaldo Antzokian**. Emanaldiak 20:30ean izango dira.

14

● **Hikak bi emanaldi** eskainiko ditu asteon, «**Henry Bengoa Inventarium»** lana aurkeztuz. Lehenengoa gaur izango da, Gernikako institutuan 22:00etan. Bigarrena, hilaren 19an Berako antzokian 13:30ean.

BERTSOLARITZA

14

● **Zumarragako X. Bertso Jaialdia** egingo da gaur Larunbata udal aretoan. Bertsolariak:



Museoaren zabalkuntza helburu izanik, **Ormaiztegiako Zumalakarregi museoak erakusketa ibiltari bat antolatu du: «Dilijentzia: bidea...**

Abenduaren 14an, igandearekin, Donibane Lohizuneko Euskal Kultur Eguna edo Liburu Azoka

burutuko da. Euskarazko liburu, disko, CD, bideo, joko eta bestelakoak izango dira ikusgai eta erosgai bertako Jai-Alain. Ereintabil Elkarteak da ekimen honen antolatzailea, eta nola ez, ohiko erakusmahaietz gain bestelako ekitaldirik ere izango dugu dastagai Donibane Lohizunen egun honetan. Hala, goizeko 10:00etan ekingo zaio azokari, azoka bera zabalduz. Arratsaldeko 16:00etan, ostera, Takolo, Pirrux eta Pirrux pailazoan saioarekin gozatu ahal izango dute txikienek, eta baita hain txikiak ez



direnek ere. 20:00etan, berriz, afari herrikoia egingo da, Alaitz eta Maider trikitilariak alaiturik. Sabela ondo betetzeaz gain, beraz, giro ederrean dantzan ere egin ahal izango dugu.

Sebastian Lizaso, Anjel Mari Peña-garikano, Xabier Narbarte eta Jon Sarasua. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Asier Otamendi arituko da.

ERAKUSKETAK

13

● **Kanbon** argazki erakusketa izan dugu ikusgai azken egun hauetan. «**Atzoko eta gaurko argazkiak»** izeneko bilduma honek, ordea, gaurkoa du azken eguna zabalik.

● Bilboko Simon Bolivar kaleko La Taberna de los Mundos tabernan, **Manuel San Felixek urazpiko munduaz osatutako erakusketa** izango dugu ikusgai urtarrilaren 7ra bitarte. Erakusketa: «Formentera Subacqua» da.

● **abentura zenean»**. Erakusketa honen lehenengo kokagunea Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunea izango da (abenduaren 18tik 1997ko urtarrilaren 15era). Erakusketak ondoko hau bilduko du bere baitan: irakurketa eta irudien ikusketa gunea, katalogoa, taldeka erabiltzeko maleta didaktikoa eta gaiari buruzko ikus-entzunezkoen emanaldiak. Aukeratu duten gaia, berriz, erakargarria da oso: dilijentzia. Honen inguruan egitarau edo programa oso bat garatu dute antolatzaileek. XIX. mendeko anitz testu eta irudi aurkeztuko ditu, museoaren artxibokoak, dilijentziaren mundua argitzen dutenak.

19

● **Komikiak 100 erakusketa ibiltaria Donostiara** Osteguna iritsiko da gaur. Gauza asko izango dute ikusi eta ikas-tekorik komikiaren munduari buruz Donostiara hurbiltzen direnek. **Urtarrilaren 11ra bitarte** zabalik.

IKUSKIZUNAK

15

● **Bilboko Kafe Antzokian** ekitaldi franko izango da asteon. Gaur, Kafe Antzokiaren **lehenengo urteurrenaren jaia** egingo da 19:30ean: besteak beste, bideo-emanaldia, kantari, musikari, bertsolari, dantzari eta antzerkilari bereziak. 18an, berriz, 20:00etan «**Gabon dut anuntzio»** **poesia-emanaldi erreztatua eta kantatua** eskainiko dute Bitoriano Gandiagak, Gontzal Mendibilek eta Pello Zabalak. Horren ostean, 21:00etan, **Waterson: Carty hirukotearen folk kontzertua**. 19an, musika izango da nagusi 22:00etan hasita. Euskadi Gazteako VI. Maketa Lehiaketan garaile izan den **Fundiziyue** taldeak kontzertua eskainiko du, Bostongo **Velvet Crush** lagun duela.

17

● **Espainiako Dantza Konpainia Nazionalak**, Asteartea Nacho Duatorekin, dantza-ikuskitzuna aurkeztuko du gaur eta bihar Gasteizko Printzipal Antzokian 20:30ean.

18

Asteazkena

● **Academica Palanca** «El misterio de las voces vulgares» musika eta umorezko ikuskizuna eskainiko du gaur EHUren Leioako kanpuseko Areto Nagusian, 12:00etan eta 17:00etan.

LEHIAKETAK**13**

Ostirala

● **Lazkao 96 Argazki Lehiaketa** martxan da. Edo-nork har dezake parte, **koloretako zein zuri-beltzeko argazkiekin, baina 30 x 40 neurria errespetatuz**. Argazkien gaiak Lazkao izan behar du, eta partehartzaile bakoitzak gutxienez hiru argazki aurkez ditzake eta gehienez sei. Lanak Udaleko Kultura Sailean aurkeztu behar dira. Gaur amaituko da epea.

16

Astelehena

● **Tolosako Udalak IV. Antonio Maria Labaien Narrazio Lehiaketa** antolatu du. Ipuinak euskarazkoa izan behar du, orijinala, inongo sariketetan saritu gabea eta **30 orrialdeko luzera izan behar du. Gaia librea da**. Lanak Sta. Maria Plaza 4, 20.400 Tolosa helbidera igorri. Oroitu gaurkoa duzuela horretarako azken aukera.

● «Resurreccion Maria Azkue» **Literatur Saria** antolatu dute. **Euskaraz idatzitako edozein narrazio edo olerki-lan** aurkez daiteke. Bi maila bereizi dituzte: 1983tik 86ra artean jaiotakoena (narrazioan bi orrialde eta

Azkaingo, Berako, Sarako eta Zugarramurdiko hainbat elkartek antolatutako «Altxoriatik Larrunerat» kultur hilabetea

abenduaren 29an amaituko da. 13an, «Mendia eta bere oihanaren historia» gaiaz mintzaldia Azkaingo Bil Tokin 21:00etan. 14an, 22:00etan, Lau Behi eta Tapia eta Leturia Band taldeen kontzertua Zugarramurdiko frontoian. 20an, aldiz, «Mendia» erakusketaren irekitzea (29ra arte zabalik) eta «Maldan gora» dantza saioa Berako Kultur Etxean 19:00etan. Biharamunean, Aconcagua 93 eta Shisha Pangma espedizioez jardungo dute Azkaingo Bil Tokin 21:00etan. 22an,



literatur lehiaketa eta ipuinaldia Sarako Omordian 16:00etan. 27an, azkenik, mintzaldia Azkaingo Bil Tokin 21:00etan.

olerkian 15 lerro) eta 79tik 82ra bitarte jaiotakoena (lau orrialde eta 30 lerro). Lanak aurkezteko epea gaur amaituko da. Hona igorri: Bilbao Bizkaia Kutxa, Kultura Aretoa, Elkano 20, 48.008 Bilbo.

19

Osteguna

● **Istorio Lehiaketa** antolatu du Bermeoko Euskaraz Berbetan taldeak. **Lanak euskara batuaz edota bizkaieraz osa daitezke**. Hiru eta 15 orri artekoak izango dira. Lanak liburategian utzi behar dira, eta gaurkoa da horretarako azken eguna.

M U S I K A**13**

Ostirala

● **Def Con Dos** talde madrildarrak kontzertua emango du Arrasateko Gaz-

tetxean gaueko 22:30etik aurrera. Bes-telako planik ez baduzue, plan ederra.

● **Xabier Montoiak kontzertua** eskainiko du gaur gaueko 23:00etatik aurrera Zumaiako Oxforden.

14

Larunbata

● «Euskal presoak Euskal Herrira» lelopean antolatutako jaialdian, **Su Ta Gar** eibartarrak Ezpeletako Ferrialean izango ditugu gaur gaueko 22:00etatik aurrera. Ondoren, **Zanpa** taldearekin gaupasa.

● «Euskaldunon Egunkaria»-k antolatuta, **Benito Lertxundik bi kontzertu emango ditu** gaur (22:30ean) eta bihar (18:00etan) Oiartzungo Madalensoron. Sarrerak: 1.000 pezeta (40 libera).

● **Maixa eta Ixiarrek** dantzan jarriko dituzte gaur Nafarroa Behereako **Bastidara** gerturatzen diren guztiak 22:00etatik aurrera. Ondoren, gaupasa Xitoak taldearen eskutik.

15

Ilgandea

● «Ekaitza»-k antolatuturik, **Mikel Laboaren kantaldia** gozatu ahalko dugu gaurko egunean Irulegion arratsaldeko 16:00etan hasita.

19

Osteguna

● **Jabier Muguruzak** kontzertua emango du eguerdik 12:00etatik aurrera Bilboko Injeniarren Eskolako areto nagusian.




Hilaren 13a Santa Lutzia eguna dela-eta, urtero legez Santa Lutzitako Feria burutuko da Zumarragan.

Zaldi-abere eta euskal produktuen erakustaldiaz gain, egun horretan ez da ezerfko ere faltako ferian: erakusketak, dastaketak, kalejirak, herri kirolak, musika, artisauak, lehiaketak... Lehiaketak azpimarratzekoak dira, asko izango baitira: zaldi-abereena, XIV. Buzkanta Lehiaketa, errezil sagar, fruta eta barazkien lehiaketak, oilasko eta kapoi lehiaketak eta ardo lehiaketa. Beraz, zer ikusia eta zer dastatua franko izango duzue asteburu honetan Zumarragara hurbilduz gero.

Denborapasa

Gurutzegramak



EZKER ESKUIN: 1.- Proiektuak. 2.- Kordea galduta edo ia galduta duenaren egoera. 3.- Sexu eme. Uranioa. Euskal mitologiako pertsonaia. 4.- Belardia. Jainko egiptoarra. 5.- Azaldu. Hizki baten izena. 6.- Gironako zenbait ibilgailuetan. Atsegin. 7.- Denbora tarteak. Toka, du. 8.- Alderantziz eta bizkaieraz, omen. Tona. Mendiko atea. 9.- Motza. Zintzo. 10.- Ukapen. Lasaia.

GOITIK BEHERA: 1.- Zerbait ezabatzeko tresna. 2.- Gol egiten duten jokalaria. 3.- Iruten duen pertsona. Bostehun. Axolagabetsuna adierazteko hitza. 4.- Tantalioa. Argia egin. 5.- VIII. hila. Rubidioa. 6.- Musika nota. Gure hizkuntza. 7.- Haur hizkeran, ura. Tona. Jatorri atzizkia. 8.- Ote, hitz elkarketan. Badago. Bokala. 9.- Aurrekoa. 10.- Portua. Izan.

Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.

8 letra

Abiadura
Atabalak
Atezaina
Enkantea


7 letra

Azalore
Euskara
Eztikia
Gatibua

4 letra

Aetz
Alea
Aran
Arin
Asea
Atea
Biki
Enea
Gari
Iaio
Igel
Irak

Irun
Jaun
Jira
Laga
Okin
Okon
Orea
Oren
Sano
Uzta
Ziba
Zuzi




2 letra

Ag
Az
Da
Ni
Ol
Te
Tb
Tn

3 letra

Gas
Nik
Oso
TIR


ERANTZUN zenbakidunak bete ondoan, pasa ezazu letra bakoitza dagokion goiko taulako laukira eta grabatuan ageri den herriaren izena, Gipuzkoako herri baten izena ageriko zaizu.



1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---

Arduradun		Kobazulo		VI. hil		Betekada
Ordezkar		Pl., noble- zi tituloa		7 Eztena		
▶		▼		▼		▼
Gozo- denda	Nafarroa- ko ibaia	Arazoak				
Azikeria	Edari alkoholdun	Gaueko argi				
▶	▼	▼				
2						
Joan zaitezte				Indioa		
Gizon izena				Lemazain		
▶		Larrua	▼		1	
		Arte	5		Einsteinioa	
Tona	Aldaketa	▼		Ukatzeko		6
Anaia	Atzo gauean			4 Izan		
▶	▼	50		Mein		
		Martxa du		Sodioa		
Gutziz garbiak		▼		▼		Potasioa
Landare mota		▼				Errep. txori mota
▶		Auzi		▼		
		Kontso- nantea				
Sarrerak		▼		Norbait		
	1					3

Hieroglifikoa



Noiz iritsiko da Aitor?

Aurrekoastekosoluzioak

ERRENTERIA

Gurutzagrama

●	U	●	K	●	Z	●
U	R	D	U	L	I	Z
●	T	●	I	●	A	U
T	X	A	P	E	L	D
●	I	Z	U	T	I	A
●	O	M	A	R	●	●
●	E	R	T	Z	A	I
●	E	L	I	Z	A	●
●	E	U	R	R	I	●
A	T	A	L	A	●	●
●	A	R	●	●	G	A
●	A	R	●	●	G	A

EZKER ESKUIN 1. Gaisotasun. 2. Izkutaleku.

3. Za. Tarota. 4. Albo. Trapo. 5. Soimua. Ter. 6.

Er. Dr. Oina. 7. Mesolita. N. 8. E. A. Ira. Kl. 9.

Artzaina. O. 10. Kasu! Narda.

GOTIK BEHERA: 1. Gizasemeak. 2. Azalore.

Ru. 3. Ik. Bi. Sats. 4. Sutondo. Zu. 5. Ota. Urfa.

6. Tarta. Irin. 7. Alor. Oina. 8. Setatu. Ar. 9.

Ukapen. K. D. 10. Nu. Uramio.

Kate hitzak


●	E	Z	A	K	●	I	G	E	L	●
●	O	K	I	N	●	●	A	R	O	●
B	I	L	K	U	R	A	●	E	R	●
O	N	●	E	K	I	A	L	D	E	●
E	●	E	R	O	●	A	U	●	L	●
●	A	R	R	A	●	I	B	A	N	●
Z	●	R	A	●	A	L	A	K	●	B
I	Z	O	K	I	N	A	K	●	Z	●
B	A	T	●	H	I	R	I	T	A	●
A	M	A	K	●	S	●	A	U	T	●
●	A	K	E	R	●	E	K	A	I	●

Hieroglifikoa:

BEHARTSUA BENETAN

ERROBIKO PIRAIÑAKO

Komikia




Auzia otzandu

AZKEN asteotako gertakariak erakutsi digutenez, Euskal Herrian diharduten erakunde politiko eta sozialak sakabanatuta dabilta. Hausnarketarik eragin beharko ligukeen fenomenorik ere ageri zaigu; alegia, eskari berberak edo antzekoak izaki ere estrategiak ez direla bateratuak, ez direla elkarrekin lotzen. Egoera honen adierazle dugu Senideak eta Gureak erakundeek bultzatutako azken manifestazioa: uko egin zitzaion gizartearen babes ahalik eta handiena lortzeari, ez baitzen deialdia plataforma zabalago baten esku utzi. Marroñoko Mahaiaren esku, adibidez. Horrexegatik nabaritu ziren manifestaldi hartan halako hutsune esanguratsuak, bai kualitatibo bai kuantitatiboki.

Astetik atera sumatzen da, bestalde, gero eta nabarmenagoak direla gure gizartearen hiru talde, elkarrengandik gero eta urrutiago daudenak, bakoitza bere errotara ahalik eta herritar gehiago bildu nahian. Eta haus-tura sozial sakona sortzeko gero eta arrisku handiagoa (eta hurbilagoa) eragiten dutenak, gizartearen desegituraketa lekarkeen haustura.

ESPAINOLISMOAREN inguruan bilduak dira batzuk; ETaren eremuan beste batzuk, eta abertzaletasun bakezalearen inguruan gainerakoak. Euskal gizartearen hiru abarrok elkarrengandik gero eta urrunago dabilta. Eta lubaki sakonzabalak ari dira eraikitzen euren artean. Oztopoak besterik ez diren lubakiak, Euskal Herria eta Estatu Espainiarraren arteko auzia gainditzeko bidean. Oztopo berri bakoitzak isolamendu, tentsio, gorroto eta deshumanizazio handiagoa dakar.



RAFAEL LARREINA

Eako idazkari-orde nagusia

'Kale borroka'k eragiten duen tentsio eta ezinegonak herritarren urruntzea dakar, batez ere kontzientzia abertzalea duten herritarrena. Horrela bada, lehen euskal presoak Euskal Herrira ekartzearen aldekoa zen zenbait jendeke jarrera epelagoa du gaur egun, nazkatuak baita izan istilu eta enfrontamenduaren estrategia baztertzaila horrek.

Gero eta nabarmenagoa da euskal indar politikoen elkar-urruntzea. Eta espainolismoaren inguruan biltzen direnek begi onez dakusate, jakina, sakabanatze hori. Gizartearen haustura eta, ondorioz, tentsio eta gorroto gehiago eragin lezakeen sakabanatzea. Tentsio horrek eta auziaren deshumanizazioak (oinazea tresna politiko bezala erabiltzeak, dela preso-oen senideen oinazea, dela ekintza terroristen biktimena, dela bahituena

eta horien sendiartekoena) derrigor garrantza auzia ez aurrera ez atzera egotera.

'Ez aurrera ez atzera' sistema konpobidea ez denez, euskal erakunde politiko eta sozialen sakabanatzea dakarrenez, eraikuntza nazionalari atzeraka eragiten dionez... dinamika hau baztertera utzi beharrean gara. Eraikuntza nazionalerako beste estrategia bat bultzatu behar da. Eta horretarako topagune bat aurkitu beharko dugu, euskal gizartearen horren inguruan biltzeko eta kontsentsu politiko berriak sortzeko.

BILATZE horretan abertzaletasun bakezaleak zeregin izugarria duela-koan nago. Baina bai ETaren inguruak bai espainolismoarenak ere erakutsi beharko dute auzia konpontzeko benetako borondaterik. Guztiz onuragarria litzateke, bide horretan, uko egitea oinazearen erabilerari politikagintzan. Hots, bahituak askatzea, presoak Euskal Herrira hurbiltzea, kale istiluak amaitaraztea... hizbitan, auzia otzandu edo humanizaztea.


Hausnarketa ahaleginik egin beharko genuke gatazka otzandu ahal izateko, gizaki bakoitzari zor zaion errespetua berreskuratzeko. Edozein delarik ere, gure iritziekin bat ez badator ere.

Auzia otzantzea auzi berori konpontzeko urratsak ematea litzateke. Gizarte guztien oinarri den gizakia errespetatuz, bere duintasuna zainduz, 'besteak' ere hor direla aitortuz, 'besteak' errespetatuz...finean, aniztasuna onartuz. Eta aniztasuna onartzetik dator askatasuna: gizakien askatasuna, herrien askatasuna. Eta ba-kea.

~~La acería Marcial Ucín
se va a Francia~~

~~LA ACERIA MARCIAL UCIN SE VA
AL PAIS VASCO FRANCES~~

~~La acería Marcial Ucín
se instala en Iparralde~~



nazioa gara

LIBURU DENE ETAN SALQAI



Zure
sukalde,
bulego
edo
gelarako
egutegia